

## Jagon bilduma

Argitaratutako lanak / Títulos publicados / Titres publiés:

1. *Bertsolari txapelketa 1982*. 1983
2. ZZ.EE./AA.VV.  
*Iparragirre*. 1987
3. *Euskararen sustatzea*.  
*Euskaltzaindiaren adierazpenak (1976-2018)*. 2018
4. MIQUEL GROS I LLADÓS  
*Recuperación del Euskera en Navarra*. 2007
5. EUSKALTZAINDIA - JAGON SAILA  
Sustapen Batzordea  
*Hizkuntza-zuzenbidea. Testu-bilduma euskaraz*. 2018
6. EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN KONFEDERAZIOA/ EUSKALTZAINDIA  
*Zenbait orientabide erregistroen tratuaz*. 2008
7. EUSKALTZAINDIA - JAGON SAILA  
Corpus Batzordea  
*Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategikoa*. 2008
8. MIQUEL GROS I LLADÓS  
*El euskera en la Comunidad Autónoma Vasca (2009)*. 2009
9. ERRAMUN BAXOK ETA JEAN-BAPTISTE COYOS  
*Helduen euskalduntzea eta etorkinak Ipar Euskal Herrian. L'enseignement du basque aux adultes natifs et non natifs en Pays Basque Nord*. 2010
10. EUSKAL HERRIKO IKASTOLAK. EUSKALTZAINDIA  
*Ikastola mugimendua. Dabilen herria*. 2010
11. MIKEL ZALBIDE  
*Euskararen lekuak hogeita bost urte. Eskola alorreko bilakaera: balioespen-saioa*. 2010
12. JÚJE ETXEBARNE  
*Gramatika emendakinak. Zuberoako euskaraz*.  
Bigarten edizioa: zuzendua eta emendatua. 2015
13. EUSKAL HERRIKO IKASTOLAK. EUSKALTZAINDIA  
*El movimiento de las Ikastolas. Un pueblo en marcha*.  
*El modelo Ikastola 1960-2010*. 2011
14. EUSKALTZAINDIA - JAGON SAILA  
Corpus Batzordea  
*Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa*. 2011
15. ERRAMUN BAXOK ETA JEAN-BAPTISTE COYOS  
*Gazteak, aisialdia eta euskara Ipar Euskal Herrian. Les jeunes, les loisirs et la langue basque en Pays Basque Nord*. 2012
16. PAULA KASARES  
*Euskaldun bazi Nafarroan. Euskararen belaunez belauneko jarraipena eta hizkuntza sozializazioa familia euskaldunetan*. 2013
17. EUSKALTZAINDIA - JAGON SAILA  
*Euskal Elkargoaren sortzea eta euskararen geroa*.  
*Euskaltzaindiaren XXI Jagon jardunaldia*. 2017
18. EUSKALTZAINDIA - JAGON SAILA  
*Araba, euskaraz bidea egiten*. 2018
19. EUSKALTZAINDIA - JAGON SAILA  
*Euskara Batua eta Ipar Euskal Herria: 1964-2018*. 2019

Hizkuntzaren erabileran eragina duten gizartearen alde guztiak biltzen ditu JAGON Sailak, bai eta hiztunek bizi dituzten kultura arauak, itzaropenak eta testuingurua ere.

Euskaltzaindiaren Jagon Saileko JAGON bildumak euskararen inguruko hainbat ikerketa eta saiakera hartzen ditu, hizkuntzaren erabilera praktikoa aztertu, eta euskara sustatzeko eta babesteko.



Euskaltzaindia  
Real Academia de la Lengua Vasca  
Académie de la Langue Basque

Laguntzaileak:



EUSKALTZAINDIA - JAGON SAILA  
Sustapen batzordea

# Euskara Batua eta Ipar Euskal Herria: 1964-2018



EUSKALTZAINDIA

EUSKARA BATUA ETA IPAR EUSKAL HERRIA: 1964-2018

2018ko irailaren 13an

Prestatzailea: Jean-Baptiste Coyos



EUSKARA BATUA  
ETA IPAR EUSKAL HERRIA:  
1964-2018



EUSKALTZAINDIA

BILBO

2019

Argitalpen honen fitxa katalogifikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako katalogoan:

[www.euskaltzaindia.eus/azkue](http://www.euskaltzaindia.eus/azkue)

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en el catálogo de la biblioteca Azkue de la Real Academia de la Lengua Vasca:

[www.euskaltzaindia.eus/azkue](http://www.euskaltzaindia.eus/azkue)

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles sur le site de la bibliothèque Azkue de l'Académie de la langue basque:

[www.euskaltzaindia.eus/azkue](http://www.euskaltzaindia.eus/azkue)

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka, Royal Academy of the Basque Language:

[www.euskaltzaindia.eus/azkue](http://www.euskaltzaindia.eus/azkue)

Eskubide guztiak jabetunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoeekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoa edo mekanikoa, fotokimikoa, magnetikoa, elektrooptikoa, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz beraz transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen alde aurreko eta idatzizko baimenik gabe

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Azaleko irudia: Iñaki Mendizabal Elordi

Diseinua: Ikeder, S.L.

Aurreinprimatzea: Fotocomposición IPAR, S.Coop.

Inprimatzea: Grafo, S.A.

ISBN: 978-84-949787-6-0

Lege-gordailua: BI-596-2019

## AURKIBIDEA

### Agurrak

<i>Andres Urrutia</i> Euskaltzainburua . . . . .	9
<i>Jean-René Etxegarai</i> Euskal Hirigune Elkargoko lehendakaria eta Baionako auzapeza . . . . .	11
<i>Beñat Arrabit</i> Euskararen Erakunde Publikoaren lehendakaria . . . . .	13

### Kolokioaren akten aurkezpena

<i>Jean-Baptiste Battittu Coyos</i> , Euskaltzaindiko Jagon sailburua . . . . .	15
---	----

### Baionako lantaldea (1963-1964): lekukotasunak, testuingurua, ekarpenak

Euskara batuaren hastapenak (1963-1964) <i>Jean Louis Davant</i> , Euskaltzain osoa . . . . .	23
Euskara batuaren kezka <i>Eneko Irigarai</i> , Baionako lantaldeko (1963-1964) kidea . . . . .	35
Euskara batuaren lehen urratsak Iparraldean: ene lekukotasuna <i>Gexan Alfaro Lantziri</i> , Euskaltzain urgazlea . . . . .	37
Iparraldean nola ohartu ginen euskara batuari <i>Janbattitt Dirassar</i> , Euskaltzain ohorezkoa . . . . .	41
Iparralde eta Arantzazuren arteko hara-honakoak (1648, 1851-2006) <i>Joseba Intxausti</i> , Euskaltzain ohorezkoa . . . . .	47

### Euskara batuaren egoera eta geroa Ipar Euskal Herrian

Euskara, tresna bat baino gehiago <i>Itxaro Borda</i> , idazlea . . . . .	65
--	----

---

Euskara batua eta euskalkiak <i>Peio Jorajuria, Herria</i> astekaria . . . . .	77
Euskararen batasuna Iparraldetik ikusia <i>Joseba Garai, Iparraldeko AEK</i> . . . . .	79
Euskara batua eta Ipar Euskal Herria ikasmaterialgintzaren ikuspegitik <i>Aines Dufau Lakaberatz, Ikas Euskal pedagogia zerbitzuaren zuzendaria</i> . . . . .	87
<b>Ondorioak</b>	
Baionako jardunaldia. Ondorioak <i>Sagrario Aleman, Euskaltzaindiaren Sustapen batzordeburua</i> . . . . .	93
<b>Eranskinak</b>	
1. Kolokioaren egitaraua (triptikoa) . . . . .	97
2. Cordeliers karrikako bilkura gogoan <i>Yves Ugalde, Baionako auzapezordea</i> . . . . .	103

# AGURRAK





Andres Urrutia  
Euskaltzainburua

Hona hemen, liburu batera bildurik, Euskaltzaindiak 2018. urteko irailean Baionan egin zuen jardunaldiaren testuak.

Jardunaldi berezia izan zen hura. Eta berezitasun horrek, ez bairik gabe, arrazoi askotan zuen funtsa eta oinarria. Batetik, Euskaltzaindiak mendeurrenaren ospakizunetan jartzen zuen bere burua, urte betez luzatuko direnak; bestetik, euskara batuaren berrogeita hamar urte (1968-2018) gogoan hartzekoak ziren eta zer esanik ez, horren aurrekari agerikoak, hots, 1964. urtean Baionan ondu ziren ahalegin gihartsuak, gerora Euskaltzaindiak bere egin zituenak.

Urteak urte, ezin aproposagoa zen horretarako hautatu zen lekua, Baionak Herriko etxea, bertan ere errezibituak izan baitziren orduko ekintzaile euskaldunak, berrogeita hamar urte lehenago.

Nolanahi ere, behar-beharrezkoa zen euskararen Akademiarentzat historia hura gogoratzea eta horren protagonistak omentzea. Horretarako aukera ezin hobea eman ziguten jardunaldiaren goizeko txandan aritu zirenek, garai hartako zuzeneko lekukotza garatu baitzuten, euskara baturako ahaleginaren hainbat zertzelada idoro genituela. Arratsaldean, aldiz, egungo euskaltzaleen txanda etorri zen, besteak beste, euskararen alorrean engaiamendu nabarmena duten erakundeen hitzak ere entzuteko modukoak izan zirelako.

Battitu Coyos euskaltzain osoaren koordinazioa eta Euskaltzaindiaren antolakuntza taldea tartean zirela, egun gogoangarria izan zen hura. Hala ere, *tempus fugit* eta, jakina, zer hobea han esan eta azaldu zena idatziz jartzea baino!

Hala egin du Euskaltzaindiak, aipatu Battitu Coyos euskaltzain oso argitarazlea dela eta Herri Elkargo eta Euskararen Erakunde Publikoa sustatzaileak.

Aukera bera baliatu zuten euskararen Akademiaren eta Herri Elkargoaren ordezkariak, Andres Urrutia eta Jean Rene Etxegari direlakoek, bi erakundeen arteko lankidetzahitzarmena sinatzeko, Xarles Videgain Euskaltzaindiaren buruordea eta Beñat Arrabit Herri Elkargoko buruordea eta Euskal Erakunde Publikoaren burua, lekukoak zirela. Hartara, Euskaltzaindia aitortua izan da erakunde aholku emaile ofizial gisa Herri Elkargoaren aldetik, aitortza hori dela berebiziko urratsa euskararen etorkizunerako.

Eskerrak, beraz, honetan parte hartu duzuen guztiei eta betor, irakurle jakinguratsuen eskura, jardunaldi hartan gizarteratu zena, segurua baita, orenen gainetik, euskararen aitzinamendurako izango dela.

*Ekin eta Jarrai!*



Jean-René Etxegarai  
Euskal Hirigune Elkargoko lehendakaria eta Baionako auzapeza

## Euskaltzaindia

Euskaltzaindiaren mendeurrena ospatzeko bilduak gira.  
Funtsezkoa da arras Euskaltzaindiak euskararen batasunaren eta modernizaztearen alde egin duen lana.

Euskaltzaindia Bizkaian sortu bazen, oroit gira ere, euskara batuaren oinarriak Baionan ezarri zirela 1964an.

Azpimarratzekoa da orduz geroztik nola Euskaltzaindiak Iparraldea beti kon-tuan hartu izan duen, izan bere ikerketetan edo bere funtzionamenduan.

Nola ez aipa Jean Haritschelhar jauna, 15 urtez euskaltzainburu izan zena.

Funtsean, mugaz bi aldeetan biltzen baitu euskarak bere aberastasuna.

## Euskal Elkargoa eta euskara

Joan den ekainaren 23an, Euskal Elkargoak euskararen aitorten ofiziala egin zuen, aldi berean gure mintzairaren aldeko hizkuntza politika bozkaturaz.

Proiektu honi «Euskara jalgi hadi plazara» izena eman diogu, Bernat Etxepare idazle baxenabartarra gogoan hartuz.

Etxeparek, 1545ean, *Linguae Vasconum Primitiae* liburua idatzi eta sustut inprimarazi zuen, euskara hedatu eta aro modernora sarrarazteko xede argiarekin.

Gure hizkuntzaren aldeko ekimen ororen hazia landatu zuen orduan.

Euskal Elkargoa kate horretan aitzina doa, Euskararen Erakunde Publikoarekin batean, hizkuntza politika zehaztuz eta obratuz, euskara Ipar Euskal Herriko plaza guzietara jalgi dadin.

Argi baitugu hura dela gure lurraldearen giltzarri.

## Euskal Elkargoa eta Euskaltzaindia

Baina euskararen gizarteratze eta biziberritzearen aldeko lan hori ez genuke eramaten ahalko, mende bat lehenago Euskaltzaindia sortu ez balitz.

Gaur, Andres Urrutiak eta biok, Euskal Elkargoaren eta Euskaltzaindiaren arteko partaidetza hitzarmen bat izenpetuko dugu, honako erabakiak barnatzen dituen:

- Elkargoak Euskaltzaindia aitortzen du erakunde aholku-emaile ofizial gisa, eta Euskaltzaindiak emaniko arauak segitzeko engaiamendua hartzen du.
- Euskaltzaindiaren aholkuez baliatzen ahalko gira, besteak beste toponimian.
- Euskal Elkargoak Euskaltzaindiaren lana jendartean ezagutarazten lagunduko du, 20.000 € ko dirulaguntzaren bidez.

Euskal Elkargoa, Euskararen Erakunde Publikoa eta Euskaltzaindia eskuz esku lanean ari dira euskararen kalitatea bermatzen.

Euskaltzaindiari zorionak beraz eta iraun beza beste hainbeste mendetan.

Beñat Arrabit  
Euskararen Erakunde Publikoaren lehendakaria  
Euskal Hirigune Elkargoaren lehendakariordea,  
hizkuntza politikarako karguduna

Plazer handiz parte hartzen dut egun Euskaltzaindiaren mendeurreneko ekitaldi nagusi honetan Baionan, Euskararen Erakunde Publikoaren presidente gisa.

Euskararen Erakunde Publikoa, Estatu, Akitania Eskualdea, Pirinio Atlantikoetako Departamendua eta Euskal Elkargoa bildurik, azken hamalau urteetan euskararen aldeko hizkuntza politika publikoa antolatzen eta bultzatzen ari da.

Euskaltzaindia euskal hizkuntzaren zaintzeaz arduratzen den erakunde ofiziala da 1918tik eta bere helburu nagusiak ditu hain xuxen, euskararen ikertzea, arautzea eta haren erabileraren sustatzea.

Euskararen Erakunde Publikoak, sortu zen mementotik beretik, Euskaltzaindia euskararen Akademia gisa aitortu zuen alde batetik, eta bestalde, dituen helburuak eta eramaiten dituen lanak sustatzea erabaki zuen; hala nola urteko diru-laguntza emanez.

Iparraldean diren eragile desberdinek eta Euskararen Erakunde Publikoak dararmaten lanaren ondorioz, eguneroko lanetan ikusten dugu Iparraldeko gizartean euskararen aldeko gutizia emendatzen dela eta tresnak sortu behar direla.

Irakaskuntza elebiduna aunitz garatu da, beti eta buraso gehiagok nahi dute beren haurrek euskaraz ikas dezaten. Inkesta soziolinguistikoak erakutsi du berriz ere, Iparraldeko biztanleen %93k (ehuneko laueta hogeita hamahiruk) gizarte elebiduna ikusten dutela etorkizunean. Hizkuntzaren paisaia elebiduntzen ari da, hala nola bide seinaleak edo edozein bastimendu publiko eta pribatuetako seinaleak ere euskaraz ageri dira.

Galde soziala handituz doa eta aldi berean hizkuntzaren kalitatearen arrangura bada, euskara batuaren 50. urtebetetzea ere ospatzen baita aurten.

Horri esker, euskara gero eta eremu zabalagoetara hedatzen ahal dugula ospatzeko parada emaiten dauku.



Ezkerretik eskuinera: Xarles Videgain, Andres Urrutia, Jean-René Etxegarai eta Beñat Arrabit

## KOLOKIOAREN AKTEN AURKEZPENEA

Jean-Baptiste *Battittu* Coyos  
Euskaltzaindiko Jagon sailburua

Ezin-bestekoa. il-edo-bizikoa, dela uste dugu  
euskera batasun-bidean jartzea.

Koldo Mitxelena, 1968

### I. *EUSKARA BATUA ETA IPAR EUSKAL HERRIA: 1964-2018* KOLOKIO HORI ZERGATIK?

2018. urtea garrantzitsua da Euskaltzaindiarentzat. Alde batetik, bere mendeurrena hasten baita ospatzen, baina bai ere, bestetik, euskara batuaren berrogeita hamar urteak. Euskararen historiaren narrazioan ohi dugu erraten euskara batua, Arantzazun, 1968ko urrian, Euskaltzaindiaren VII. Biltzarrean sortu dela. Eta egia da orduan Akademiak hizkuntza idatzian euskara batzeko lehen arau-multzoak finkatu zituela, ortografiaren, aditz morfologiaren, izen eta izenordainen deklinabidearen, neologismoen eta hitz mailegatuen alorretan nagusiki.

Halere, euskara batua lotua baldin bada Arantzazuko egunekin, aitzinetik bilkurak egin ziren euskara batuaren oinarriak lantzeko eta horietan sartzen dira Baionan izan zirenak (1963-1964). Txillardegiren gidaritzapean, zortzi hilabetez, beste zazpi euskaltzale bildu ziren Cordeliers karrrikako 14an, Euskal Idazkaritza elkartearen egoitzan. Lana zen, euskara batzeko bidean, ortografiaz, aditzaz eta izenaren deklinabidez bereziki proposamen batzuen egitea. Taldearen lanaren fruitua ber gunean, 1964ko agorrilaren 29-30etan, etorri ziren Euskal Herri osoko berrogei bat euskaltzaleei aurkeztu zieten. Eta lau urte berantago, 1968ko urrian, Arantzazun, Mitxelena aurkezturik, Euskaltzaindiak bere biltzarrean proposamenak onartu zituen.

1966an, Baionan Cordeliers karrikan onartu ziren erabakiak *Baiona'ko Biltzarren Erabakiak* izenburuarekin argitaratu ziren. Beraz, kolokio honen helburua zen ere erakustea nola orduko zortzi orrialdeetako dokumentu xume hori euskara mota berri bat bilakatu den administrazioetan, unibertsitateetan, goi mailako ikerkuntzan orain baliatua dena, baina ere ikus-entzunezko komunikabideetan, sare sozialetan edo, bistan da, literatura garaikidean. haur batzuen ama-hizkuntza bilakatuz.

Baina euskara batuaren historia zinez luzeago dela erran dezakegu. Ipar Euskal Herrian, XVI. mendean hasi zela erran nahi nuke, Joannes Leizarragarekin (1571n).



Hona aipamen ezaguna haren *Jesus Christ Gure Jaunaren Testamentu Berria* liburuaren aitzinsolasean:

(...) batbederak daki heuskal herrian kuasi etxe batetik berzera ere minzatzeko maneran zer diferentia eta dibersitatea den: razoin hunegatik sensu egiazkotik aldaratu gabe, lengoajeaz den bezenbatean ahalik gehiena guziei adi eraziteari iarreiki izan gaitzaitza, eta ez xoil edozein leku iakineko lengoaje bereziri.<sup>1</sup>

Horrela, Leizarragak jadanik tokiko euskara ezberdinen gainetik beste bat xerkatzen zuen. Eta premia horrek, denek ulertuko luketen euskararen bilaketa horrek, mendez mende bere bidea egin du, adibidez xix. mendean Agosti Xahorekin, xx. mendeko bigarren zatia arte, Baionako lantalde horren proposamenak eta Euskal Idazkaritzaren 1964ko agorrilaren biltzarra arte.

Beraz kolokio honen helburu nagusiak horiek ziren. Alde batetik, euskararen historia hobeki ezagutzeko, garai eta lan horiei buruzko lekukotasunak entzunaraztea, Txillardegiren lantaldetik bizirik diren bi kideei hitza emanez, eta Ipar Euskal Herrian garai hartan euskara lantzen zutenei, kazetaritzan, irratigintzan edo haur-literaturan. Itxaro Bordak hemen erraten digun bezala: «(...) duela mende erdia bi bilkuretan parte hartu zutenak, adinagatik banan bana desagertzen doaz eta gure ardurak kolektiboa daiteke memoria hori oraindik ere biltzea eta bereziki zaintzea».

Bigarren helburu nagusia zen, ekarpen horiek kontuan hartuz, gaur egungo Iparaldeko errealitatea aztertzea. Euskararen batasuna nola ikusten den orain Ipar Euskal Herritik, euskalkien eta euskara batuaren paperak, eta, geroari so eginez, beharrak zein diren agertaraztea, hutsuneak, hizlarien lan-alorrean eta era zabalagoan. Hots, euskara batuaren bilan mota bat Ipar Euskal Herritik, egin den bidearen eta egiteko litzatekeenaren argazkia. Partziala, bistan da, baina beharrezkoa euskararen historia eta geroa hobeki ulertzeko.

Akta hauetan parte-hartzaileek igorri dituzten testuak badaude. Aurkeztuko ditut orain, bana-banan.

---

<sup>1</sup> Euskaltzaindiak argitaratu duen faksimilean 1990ean, 254. or. Aipamen honetan Leizarragaren ortografia gaurkotua izan da.

**EUSKAL IDAZKARITZA**14, Kordelieren korrika  
BAIONA**Baiona'ko Biltzarraren Erabakiak**

(1964-eko Agorrillaren 29-30)

*Baiona'ra euskaldun idazleak eta irakasleak bildurik, hona hemen Biltzarrak ontzat eman dituen puntuak.*

*Batasunari buruz, euskaltzale guziei erabaki hauek betetzen hasteko eskatzen diegu; eta bereziki Euskaltzaïndiari egiten diegu dei bat, bere aipamen guziaz gure erabaki hauek aztertu ondoren onar ditzan.*

IDAZKARITZA'KO HIZKUNTZA SAILLAK.

**IDAZKERA**

- « **X** » — goxo, xamur, xede, xekatu eta abar onartzen dira.  
« sh », « ch », « ss », « s », eta abar, baztertzen dira.
- « **TX** » — etxe, atxiki, amatxo, zakurtxo, txiki eta abar onartzen dira.  
« tch », « ts », « ch » eta abar baztertzen dira.
- « **J** » — jin, jan, jario, josi, jarri, jauzi, eta abar onartzen dira. — Nahiz eta euskalki guzietan soinu berbera ez izan.
- « **RR** » — elurra, egurra, irri, farre, zoragarri, arrunt eta abar onartzen dira.  
« r' » baztertzen da.  
Hitz bukaeran « r » idatziko da beti : haur, ur, ar, zur, elur; nahiz batzutan « rr » eman (egurra, arra, elurra), eta beste zenbait aldiz « r » (nori, ura, ora).  
Elurr, atorr, zakurr, eta honelakoak baztertzen dira.

**BUSTIAK.**

Palatalizazio edo bustiera deritzan fenomenua, letra bikoiztuz idatziko da.

LL — llabur

DD — Maddalen

TT — ttaka-ttaka, pittarra, aittitta, pottoka.

« l̄ », « d̄ », eta « t̄ » baztertzen dira.

« **NB** » eta « **NP** »

Nahiz « mb » eta « mp » esan, « nb » eta « np » idatziko da : enparantza, denbora, enbata, baldinba, eta abar.

## 2. BAIONAKO LANTALDEA (1963-1964): LEKUKOTASUNAK, TESTUINGURUA, EKARPENAK

Goizaldiko hizlariak 1963-1964ko Baionako lantaldearen lana eta haren harreara gizartean aurkeztu digute, era zabalagoan euskararen eta euskara batuaren aldeko Iparraldeko testuingurua, orduko zailtasunak euskaraz idazteko, egiteko ziren aukerak, adibidez Hegoaldetik jinik, hemengo euskararen sartzeko ziren hitzak eta erranmoldeak.

Lehen hizlaria Jean Louis DAVANT euskaltzain osoa izan da. Orduko Baionako lantaldearen bizi diren hiru kideetarik bat da<sup>2</sup>. «Euskara batuaren hastapenak (1963-1964)» artikuluan Cordeliers karrikako lantaldearen lanari buruz xehetasun anitz ekarten dizkigu. Baina lehenik Ipar Euskal Herriko egoera politikoa, «apolitismoa» eta Hegoaldetik jin ziren lehen iheslariaren eragina azaltzen ditu, garaiko Iparraldeko euskarazko literaturaren ahulezia («erdi panan» zela erranez) eta euskararen «batasun gosea», Euskaltzaindiaren egoera eta jarrera. Elementu horiek orok esplikatzen dute zuzenki edo zeharka nola eta zergatik, Txillardegiren zuzendaritzaren pean, lantalde hori sortu zen eta nola lan egin zuen. Garai hartan euskara batuak aurkari anitz baldin bazituen, Jean Louis Davant estonatzeko da nola gaur egun oraino badituen, nahiz gutiago diren. Lehen eskuko lekukotasuna.

Eneko IRIGARAI Baionako lantaldearen kidea zen ere bai. Bere testuaren izenburuak dioen bezala, «Euskara batuaren kezka», erakusten digu nola bere bizi osoan, familian jadanik, Donostian eta gero Iparraldean izanik, euskararen batasunaren beharrezkotasuna ikusten zuen, azken horri 60ko hamarkadan Baionan errealitatea emanaz Txillardegiri eta beste euskaltzale ausart batzuekin.

Gexan ALFARO euskaltzain urgazleak «Euskara batuaren lehen urratsak Iparraldean: ene lekukotasuna» deitu duen testuan esplikatzen du nola garai hartan hasi zen euskara batua sartzeko bere lanetan, idatzi zituen kazeta-artikulu anitzetan, haur-liburuetan eta bai ere Radio Côte Basque irratiaren hitzaldietan. Banan-banan hartu zituen Hegoaldean erabiliak baizik ez ziren hitzak zerrendatzen ditu. Gaur egungo Ipar Euskal Herriko euskaldun alfabetatua harrizko da, hitz horiek gure oinarri-oinarizko lexikoan parte direla ohartuz.

Janbattitt DIRASSAR ohorezko euskaltzainak, bere «Iparraldean nola ohartu ginen euskara batuari» artikuluan, Iparraldeko 60ko hamarkadako prentsa idatzia eta euskararen batasunaren beharra aurkezten dizkigu, giro politikoaren aldaketa Enekoaren lehen urratsekin. Xeheki azaltzen du *x*, *b* eta beste berrikuntzak nola onartuak izan ziren eta horrekin nola euskara batuak bere bidea egin zuen Ipar Euskal Herrian. Baina euskalkiak ez ditugula baztertu behar azpimarratzen du, euskararen aberastasuna direlarik, azkenean «euskaradun bezenbat euskalki» badirela kontuan hartuz. Ohar hori Leizagarraren ikusmoldeari lotuko nioke (aipamena ikus gorago I. atalean).

<sup>2</sup> Beste biak Pierre Andiazabal eta Eneko Irigarai dira.

Bukatzeko, Joseba INTXAUSTI ohorezko euskaltzainak Baiona eta Arantzazuren artean lotura egiten du. «Iparralde eta Arantzazuren arteko hara-honakoak» artikuluan lotura hori azaltzen digu testuinguru zabalean kokatuz, mendez mendeko Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko harremanak erlijio alorrean, 50ko hamarkadan *Jakin* aldizkariaren eta taldearen garrantzitasuna euskararentzat, Arantzazuko eta Donapaleuko frantziskotarren arteko harremanak, Donapaleutik Manex Erdozaintzi-Etxarten eta Juan Joxe Iturrioren eragina, ondotik Zabalik proiektua, eta abar.

### 3. EUSKARA BATUAREN EGOERA ETA GEROA IPAR EUSKAL HERRIAN

Geroari so eginez, Ipar Euskal Herritik azterturik, euskara batuak dituen erronkak saiatuko gara identifikatzen. Eta hori beharrezkoa zaio Euskaltzaindiari. Horregatik hizlari gisa Iparraldeko euskalgintzan ari diren eragile batzuk hautatu ditugu.

Zer dute elkarrekin? Nik oraingo gizartean *preskribatzaileak*<sup>3</sup> direla erranen nuke. Erran nahi du bakoitzak bere alorrean, literaturan, komunikabideetan, irakaskuntzan edo administrazioan, euskal komunitateari euskara modelo bat proposatzen diola. Horregatik, erabakigarriak dira euskararen geroarentzat.

Euskararen batasuna nola ikusten da Ipar Euskal Herritik? Zein dira beharrrak, zein dira hutsuneak zuen lan-alorrean edo era zabalagoan? Holako galderei erantzun diete.

Itxaro BORDA idazleak bere «Euskara, tresna bat baino gehiago» testuan bi ibilbide partekatzen ditu gurekin. Alde batetik, euskara batuarena, 60ko hamarkadatik gaur egungora, eta bestetik, berea, Nafarroa Behereko euskal emazte idazle batena *Maiatz* literatura aldizkariaren sortzetik 1982an. Euskara batuari, euskalkiei, Iparraldeko eta Hegoaldeko euskaren arteko harremani buruzko eztabaidak, gorabeherak, dudak, borrokak azaltzen dizkigu. Baina, oro har, euskararen aurrerapen/aitzinamenduak, lehenik literaturan eta kazetaritzan. Hau da errelitatea, bere artikulua lehen erranaldia aipatzen dut: «Badu beraz 50 urte euskara batua deitzen dugun hizkuntza eredu berria isurtzen zaigula lumaren puntatik, Hegoaldean bezain Iparraldean», gero eta gehiago naturalagoa agertzen zaiguna. Zer ibilbidea!

Peio JORAJURIAK, *Herria* astekariako kazetariak, «Euskara batua eta euskalkiak» testuan hizkuntza hautaketa zailtasunak azaltzen dizkigu aspaldidanik kudeatzen duen Iparraldeko euskarazko astekari bakarrean. Irakurleagoa nagusiki Lapurdiko barnealdekoa eta Nafarroa Beherekoa da, baina irakurle batzuek euskara AEK-n ikasi dute. Beste batzuk Hegoaldekoak dira edo diasporakoak. Bestetik herrietako berriak ematen dituzten 40 bat lagunek beren euskalki propioa erabiltzen dute nagusiki. Beraz, euskara batua sarrarazten da emeki-emeki, «molde homeopatikoa», irakurleen ezberdintasuna errespetatzeko nahian.

<sup>3</sup> Neologismo hori *Euskaltzaindiaren Hiztegia*-n ez dago (2016, 2. argit.). Egun batez sartuko da, erabilia baita. Halaber *kolokio* hitza.

Joseba GARAI Iparraldeko AEKren didaktika arduradunaren «Euskararen batasuna Iparraldetik ikusia» artikulua bi zati baditu. Lehenean, euskara batuaren eta euskalkien arteko joko eta bilakaera Ipar Euskal Herrian zorrozki aurkezten dizkigu, eta AEK-k egiten dituen hizkuntza hautuak lurraldearen arabera, «zentzugabekeria handia da euskara batua eta euskalkiak elkarren aurka jartzea» erranez. Bigarrean, errusiar panpinaren metafora baliatuz (euskara batua panpina handiena eta gero euskalkia, tokiko euskara...), proposamen zehatz batzuk egiten ditu euskararen geroko. Ongi litza-teke euskaltzaleek, euskara irakasleek, erabakitzaileek, politikariek irakur dezaten.

Aines DUFAUK, Ikas euskal pedagogia zerbitzuaren zuzendariak, «Euskara batua eta Ipar Euskal Herria ikasmaterialgintzaren ikuspegitik» artikuluan bere lan alorreko hizkuntza hautuak azaltzen dizkigu. Zein euskara mota hauta I. mailako ikasleendako Ipar Euskal Herrian? Eta Zuberoakoendako? Dena den, laster denek euskara batua beharko dute ezagutu, Iparraldekoa baina Hegoaldekoa ulertzeko gai izan beharko dira ere. Artikulua hola burutzen da: «Horra beraz gure beharra: euskara gehiago, biziki gehiago, denetan, eskolan, familietan, eremu sozial eta ekonomietan, administrazioan ere prefosta. Nolako? Entzuten duenarentzat adierazkorra, besterik gabe».

Bukatzeko Sagrario ALEMAN Euskaltzaindiko Sustapen batzordearen buruak jardunaldi aberats horren egin duen irakurketa argi eta aberatsa ematen digu.

Eranskinetan, kolokioaren egitarauaz gain, biharamunean Yves UGALDE Baiona hiriko kultura zinegotziak bere blogean idatzi zuen «Cordeliers karrikako bilkura go-goan» artikulua dugu. Euskararendako beharrezkoa izan zen eta den batuaren aldeko borrokari eta ibilbideari buruz azken hitza utz diezaiogun: «Beti izanen dira bai eskuza-balak eta bai ilunzaleak. Eta ongi badakigu, betidanik, bi kategoriaren artean zeinek aintzinarazten eta gatazka alferretik ateratzen duen».

Hau da gogoan atxiki behar duguna: 1968an, Arantzazun, euskararen alde egin zen urrats erabakigarria Baionako taldearen lanean oinarritzen zen hein handi batean, Koldo Mitxelenak berak idazten zuen bezala *Euskera* aldizkariaren zenbaki bereziko Ortografia artikuluan: «1964-ean Baiona'n egin zen biltzarraren erabakiak hartzen ditut oinarritzat, punturik gehienak astiroago ukituaz» (1968: 205).

Era batez, euskara batu moderno Baionan sortu da, zortzi hilabeteko ernaldi ondoan Cordeliers karrikan, Arantzazun bataiatu zuen Euskaltzaindiak eta, ondotik, kartsuki hezi orain arte. Baionako lantalde ausart horrek proposamen horiek ez bazituen egin, euskarak bere biziberritzeko bidean zenbat denbora gehiago galduko zuen?

## ERREFERENTZIAK

Euskal Idazkaritza, 1966, *Baiona'ko Biltzarraren Erabakiak*, Baiona.

Leizarraga, Joannes, 1571 (1990), *Heuskaldunei, Jesus Christ Gure Jaunaren Testamentu Berria*, faksimilea, Bilbo, Euskaltzaindia.

Mitxelena, Koldo, 1968, Ortografia, Arantzazuko Biltzarrak, *Euskera* – XIII, Bilbo, Euskaltzaindia, 203-219.

**BAIONAKO LANTALDEA (1963-1964):  
LEKUKOTASUNAK, TESTUINGURUA,  
EKARPENAK**



## EUSKARA BATUAREN HASTAPENAK (1963-1964)

Jean Louis Davant  
Euskaltzain osoa

Urte haietan, «gure» bi Estatuetan, egoera politiko bortitza genuen. Hegoaldek diktadurak zirauen. Agirre Lehendakaria Parisko erbestean hil zen 1960ko martxoaren 22an, hutsune larria utziz abertzaleen artean, eta haren gorputza Donibane-Lohizungo hilerrian lurperatua dago. Lehentxeago Franco jeneralaren gobernuak pixka bat eztitzeko keinuak eginak zituen turismoaren eta kapitalaren erakartzeko xedez, baina berriki, ETA mugimendua sortu baiko, berriz gogortu zen. ETAKo lehen iheslariak Lapurdin aterpetu ziren: Txillardegia, Eneko Irigarai, Madariaga, Benito del Valle laukotea, laster Xabier Elosegi eta beste batzuk. Izendatu ditudan bostek Hazparnen lan egiten zuten. Erran gabe doa horiekin harreman estuak lotu genituela tokiko euskaltzaleek, baita itsas aldekoek. Zenbait aitzinetik ezagutzen genituen, bereziki Txillardegia berrogeita hamazortzitik. Bistan da elkarrekin ez genuela ingelesez hitzegiten, eta hor berean hasten zen ahozko euskara hibrido bat, hiztegian eta esaldietan bederen, aditzan ez bazen ere, hori guzia naturalki, metodorik eta norabiderik gabe. Denbora luzea beharko zen koherentzia batera heltzeko, aldiz presa gorria zegoen.

Iparraldetik bukatu berria zen Aljeriako sasi gerla luzea, OAS eskuin muturreko erakunde armatuaren itzala hor zegoen oraino: adibidez 1962ko abuztuaren 22an, ekintzaile batzuk de Gaulle presidentearen hiltzera saiatu ziren Paris aldean, Petit-Clamart herrian, eta gutiz huts egin zuten. Hemen frantziar eskuina osoki nagusi zen, salbu Bokalen eta Maulen. Bi adarretan zatiturik zegoen: alde batetik eskuin zaharren lekua hartuko zuen gaullisten alde jakobinoa, bestetik de Gaulleren aginte bertikalari aihur ziren erdiko kristau demokratik, Errecart parlamentaria buru. Euskal Herriarentzat xede politiko berezirik ez zuten batzuek ez besteek. Tartean bazeuden pertsonalki euskaltzale zirenak beren kasa, beren oguz, bereziki Errecart eta horren lagunak, haatik orokorki aterabide politikorik aipatu gabe. Gainera Errecartek hauteskundeetan Bearnoko bozen beharra bazuen, eta lotura horrek Euskal Herriaren aldeko plan berezirik asmatzea zail egiten zion.

Aldaketak gazteriatik etorri behar zuen. Nolakoa zen gazteen egoera? Emigratio handia zegoen, Garazi eta Baigorri aldetik Estatu Batuetako mendebaldera, denetarik Frantziako hiri handietara, nagusiki Parisera. Laster iheslari ekonomiko horietarik batzuek herrira itzultzeko hautua eginen zuten hemen plantatzeko eta euskal mugimenduaren indartzeko sail ezberdinetan, enplegua barne, baina mementoko ez ginauden horretaratuek.



Laborantzan iraultza bat hasten zen, merkatuari buruz itzulia, teknika eta tresna berriekin.

Horren berme agertu ziren alde batetik Pisani ministroak asmatu lege progresistak, bestetik laborantzako eskolak: Senpere, Donibane Garazi, Maule, Donapaleu eta Hazparneko ikastetxeak, azken hau Piarres Charritonek sortua Saint-Joseph delako lizeo teknikoaren itzalean.

Piarresek lehentasuna eman zion industriako lanbideari, laborantzakoarena franko niregain utsiz. Horretarako arrazoiak bazituen, Iparraldeko lantegi zaharren krisia bazetorrela asma baitzezakeen intuizio eta usno pixka bat bazukeen edonork, burua gidoitik altxatuz geroz. Bokaleko burdin aroztegiak 1963an hetsi ziren, Hazparne eta Mauleko zapatagintzak urte zenbait gehiago iraungo zuen.

## IPARRALDEAN EUSKAL APOLITISMOAREN MUGA HAUTSI GENUEN

Hizkuntzari zegokiola, Iparraldean Euskaltzaleen Biltzarraren ospea emendatua zen azken urteetan, batetik eskola, kolegio eta lizeoko ikasleen artean urtero antolatzen zituen lehiaketen arrakastari esker, bestetik urteko biltzar nagusira zetorkion jende oste politari esker, mila bat jende biltzen baitzuen hor. Baina muga baten hunkitzen ari zen. Alde batetik kultura mugimenduan adar berri batzuk sortzen ziren, zenbait zuzenka horren haurrak, adibidez Ikas erakundea, irakasleen ardura hartzen zuena. Bestetik Euskaltzaleen Biltzarrak euskararen alde botere publikoei egiten zizkien eskari guztiak zakarrontzira joaten ziren seko. Beraz unibertsitatea utzi berri zuten gazte zenbait joko antzu eta umiliagarri horretaz aser ziren, pentsatu zuten euskal gaia politizatu behar zela, eta horretarako berek politikan sartu behar zutela, euskal mugimendu abertzale bat piztuz. Eredubariak izan ziren Baionako bi eskolatu gazte: Ximun Haran pilotari handia, botikarigaia, eta Mixel Burucoa mediku berria.

Aitzinetik Bordelen euskal ikasleen elkarte bat eraikia zuten, *Embata* deitua, frantses grafiako M horrekin, ber izeneko aldizkaria frantsesez agertu ere noiztenka. Gainera urtero, udako bakantzetan, udalerrri bateko ikerketa sozio-ekonomiko sotila egiten zuten egun zenbaitez etxez etxe, ondotik astebeteko ikastaldi bat antolatzen Euskal Herriko arazoez. Eta gero, 1960 urte bukaeran, Embatatik sortu zuten *Enbata* hilabetekari politikoa, euskal idazkera berriko N horrekin. Haatik orokorki ikasleek anaia handien OPA hori gaizki hartu zuten, eta salbuespenez kanpo Enbata politikotik bazter egon ziren.

Gazterian bazegoen beste indar pre-abertzale bat, Euskaldun Gazteria, baserri munduko gazteen ekintza katolikoa, zinez euskalduna, ikasleen elkarte ez bezala. Gainera euskaraz bere aldizkaria bazuen, *Gazte* hilabetekaria, eta horretan euskaraz idazten hasi ginen gazte andana bat, Piarres Charriton omonier/kapellauak lehiazaririk. Baina hor politikarik ez zen egin behar. Gainera Aljeriako gerlak belaunaldi hori politikari buruz izoztu zuten: mende erdi batez, departamenduko kontseilari orokor bakar bat eman du eta dena ere euskararik ez zekiena. Hegoaldetik maiz uste da gerla horrek Iparraldean abertzaletasuna piztu zuela. Ene ustez alderantzizkoa ger-

tatu zen, hortik atera ginen abertzaleak salbuespenak izan gara. Bestalde gaztean luma ona zuten gehixenek ez dute gero jarraitu. Baina hor gerlaz beste arrazoirik izan dela baliteke, bereziki tartean neskak ere bazeudela, eta ezkonduz geroz beste lanik bazuketela, jendarte zaharretik ez baikinena oraino arras libratuak: bi muduren arteko belaunaldia izan gara. Haatik belaunaldi horrek ez du gaitzespenik merezi. Ekonomia berriari eman da, laborantza suspertu du, bera euskaltzalea egon da pasiboki bederen, irekia, aitzineko belaunaldia baino tolerantzia gehiagorekin.

Azpimarratzekoa da bestalde Piarres Charrittonek hirurogeian Hazparnen sortu zituen lanbideko bi lizeo haien eragina, batetik industrian, bestetik laborantzan, bainan eragin hori berantago agertu beharra zen. Hasi berriak ziren, eta horien hazkundera eskatzen zuen lan erraldoiak azaltzen du nolaz Charritton euskara baturako lehen solasetan isilik egon zen, bere usaia guzietarik at, ongi jakina den bezala ez baitzen isilik egoteko gizona, errateko anitz baitzuen ere. Haatik buruz-buruko solasetan beldur bat agertzen zidan, eta geroztik ere agertu dit behin baino gehiagotan: euskara kimiko bat antola genezan, ingeniariaren euskara bat eraikiz logika hutsean finkatua. Euskalki bizi eta naturalei atxikia zegoen.

Puntu batean bederen ados genuen, ortografian. Berak gazte hilabetekarian x (*ixa*) sartua zuen

Iparraldeko *ch* zaharraren orde, eta lehenago, Mauleko Saint François (d'Assise) institutu katolikoan irakasle genuelarik, bereziki 1953-1954 ikasturtean, irakatsi zigun ahozko *ia* eta *ua* basa diftongoak *ea* eta *oa* idatzi behar zirela, hitzaren erroa bere hartan utzirik, *a* artikulua gehituz: adibidez etxea (etxe-a) eta otsoa (otso-a) izkiria, nahiz garai hartan euskaldun guziek, Eskiulatik Bilboraino, *etxia* eta *otsua* ahaskatzen zuten, salbu agian Lapurdiko bospasei udalerritan

## GURE LITERATURA ERDI PANAN

Bigarren Mundu Gerlaren ondotik, zertan genuen euskal literatura? Oso nekez berpiztu zen. Hamalaukoak bezalaxe, guda berri horrek euskaldungoari lazagarriko kaltea egin zion, beharbada lehenak baino handiagoa. Frantziar nazionalismoa berriaz indartu zen. Frantzia zinez apaldua eta zapaldua egona baitzen lau urtez, Liberazioari esker are gehiago kukurrukuz hasi zen, ustez eta gerla irabazi zuela, de Gaullek eta komunistek sinetsarazirik. Ondorioz euskal gogoia kasik itoa gelditu zen. Munduko bi gerlen artean Jean Ybarnegaray eskuin gogorreko parlamentari ospetsuak gure «berri txikia» jartzen zuen «berri handiaren baitan»: «La petite patrie dans la grande». Baina bigarren gerlaren ondotik aberri txikia desagertu bezala zen, ez zen gehiago aipu: Frantzia aberri bakarra zen.

Euskal gogoaren su hazia beren kasa eta oguz bizirik atxikitzen zuten bi gizon soilek: alde batetik Zuberoan Battitta Ichouréguy mauletar kazeta saltzaile eta pirripita petatztatzaileak, denei euskaraz ari baizitzaen, bazekitenei bezala ez zekitenei, beti sustuki euskararen eta Zazpiak-bat delakoaren alde, *Euzko Deia* ere zabalduz ni bezalako ikasle gazteen artean, Agirre Lehendakariaren mezuekin; bestetik Iparralde osoan Marc Légasse euskal anarkistak noiztenka hedatzen zuen, haatik frantsesez, *Hordago* panfleto abertzalea.

Literaturari zegokiola, Lapurdin eta Baxenabarren hutsunea bete zuten, ohorea salbatuz, Mattin eta Xalbador bertsolariak. Laikoen artean bederen ez zen gehiago Jean Etchepare mediku zena bezalako idazle bikainik (1877-1935). Apez bakar batzuk agertu ziren, bereziki *Herria* astekarian. Frantsesek kolaboratzailetzat debekatu zuten *Eskualduna* astekaria, eta horren ordeztu Piarres Lafitte erresistenteak 1944an sortu zuen *Herria*. Hor idazle agertu ziren Lafitte bera, Etienne Salaberry heletar filosofoa, Paristik Guilsou senperrarra, «Jainkoa sotoetan» eleberri autobiografikoa zatika emanez, bere apez laneko bizitzan oinarritua, prostituten salbamenaz arta hartzen baitzuen. Gainera Lafitte idazle polifazetiko eta gizon orkestrak liburuxkak ugari agertzen zituen euskal gai ezberdinez, batean euskaraz, bestean frantsesez.

*Gure Herria* aldizkaria ere hor zegoen, berantago itzaliko zena. Artikulu sakonik ateratzen zuen edozein gaiez, hizkuntza batean ala bestean. Hor ere leku nasaia zuten Salaberryk eta Lafittek. Munduko bi gerlen artean luma gazte andana gaitza agertu zen *Gure Herrian*, apezgai eta beste, bereziki Zuberoatik. Baina gero zer bilakatu ziren?

Zuberoan pastoralak nekez berpiztu zen. Gerla ondoko lehena berrogeita hamekan eman zen Garindainen *Robert le Diable* antzerkiarekin, hamalau urteko hutsunea bukatuz, aitzinekoa hogeita hamaseian gertatua baitzen, Garindainen hura ere, *Roland* piezarekin.

Laster pastoral idazle berri bat agertu zen: Pierre Bordaçar *Etxahun-Iruri*, 1953an Barkoxen *Etxahun koblakari* antzerkiarekin. Bederatzi emanen zituen, horietarik zortzi euskaldun «gizon handi» batzuen ohoretan. Holaz euskaldunen historia pastoralean sartu zuen, eta beraz bide berri bat ireki. Mende laurden batez pastoral idazle bakarra izan zen, aita Junes Casenave agertu arte 1976an *Santa Grazi* piezarekin. Orain hogei bagaude lehia bizian. Irurik bere herritarra ospatu du 2001ean, Zalgizerekin, *Etxahun-Iruri* pastoralaz, Roger Idiart erretore zenaren lumatik.

Etxahun-Iruri kantuan ere nabarmendu zen, berrehun bat idatziz, bereziki *Agur Xiberoa* ereserkia. Haatik agur nostalgikoa den hori ez zuen oldarrean kantatzen, orain ohi den bezala, iduri bailuke erasora deitzen gaituela, *Marseillesaren* antzera. Berak erreposki abesten zuen, hitzek manatzen duten bezala, eta hola egin behar genuke guk ere.

Beste kantugile on bat izan zen Alexis Etchécopar *Attuli* bazkoxtarra. Haatik ez zen Etxahun bezalako plaza gizona, umilegi zen, publikoan ez zen gogotik agertzen. Baina Barkoxek ospatu du bi mila eta hamarrean *Xabakoa* pastoralaz, Patrick Quéheille *Kanpo* herritar gaztearen lumatik.

Haatik Zuberoak ez zuen gehiago prosalari handirik, Belapeire, Maister, Inchauspé, Constantin aita-emeak bezalakorik, Junes Casenave agertu arte, salbuan, Parisen, Jon Mirande profeta heterodoxoa, desertuan oihu bakartia, eskuin muturreko anarkista, baina zinez abertzalea eta luma bikainaren jabe.

Iparraldean orokorki, munduko bi gerlen arteko izen handiak xahartzen ari ziren eta pirka pirka beste mundura joaten: Saint-Pierre apezpikutegirik gabeko apezpikua (1884-1951), Albert Constantin Atharratzeko medikua (1873-1957), Pierre Lhande jesuita (1877-1957), Moulrier *Oxobi* poeta (1888-1958), Elizalde *Zerbitzari* azkaindar apeza (1883-1961)... Eta mementoan lekukoaren hartzailek ez ageri... Pizkunderik izatekotan, beste nonbaitik etorri behar zuen.

## HEGOALDEAN HASI ZEN PIZKUNDEA

Pizkundera Hegoaldetik hasi zen apalki, lazgarriko kalteak eginak zituen gerlaren ondotik, isilune dorpea emekiño zilatuz kimu bakartiez. Azpimarratu behar da ikastolen haurtzaroa, haziak ereiten ari zena erdi segetuan andereño bihoztoi zenbaiti esker, gero tokiko elizen babesa erdietsiz. Andereño horien artean bat aipatu behar dut, Jone Forkada, Txillardegi esposatuko zuena, eta biekin ezagutzak eginen nituen 1958ko udaberrian Donostian.

Bestalde hor zegoen aldizkariaren oinarritzko lana: *Zeruko Argia* (1954an berriz agertua, 1960-63 bitartean isildua), *Egan* (1948an Arrue, Irigarai eta Mitxelena euskaltzainek sortua), *Euzko Gogo* (Jokin Zaitegi apezak Guatemalan sortua, 1956an Biarritzen plantatua), *Jakin* (1956an Arantzazun sortua), *Anaitasuna* (Berriatua frantziskotarrak sortua 1953an).

Idazleetan lehena izan zen Salvatore Mitxelena frantziskotarra bereziki *Aranztazu*. *Euskal sinismenaren poema* deituriko obra nagusiarekin (1949). Gainera lan egin zuen antzertian, saiakeran etab... Ondoko urteetan laikoaren artean emeki emeki agertu ziren prosalariak:

- Jon Etxaide zinez emankorra: *Alostorrea*, *Joanak joan* (1955) eta *Gorrotoa lege* (1964) nobelak, *Markesaren alaba* antzerkia (1958), *Amasei seme Euskalerriko* (1958) izan ziren haren lehenbiziko idazlan ugariak, eta agertu ahala irakurri nituen, gipuzkerarekin topo eginez nekezia gehiegirik gabe.
- Txillardegi existentzialista molde berezi batean agertu zen *Leturiaren egunkari ezkutua* (1957) eta *Peru Leartzako* (1959) eleberriekin: ondoko urteetan irakurri nituen.
- Jose Antonio Loidi Bizkarrondo Irungo botikariaren *Amabost egun Urgainen* nobela poliziala (1955) zinez gustatu zitzaidan 1958an ezagutu nuenean, eta aipaturiko liburu zerrenda horretako errazena izan zitzaidan euskararen aldetik.

Urte haietan, eta goizegi joan arte, Gabriel Aresti Segurola (1933-1975) gure poeta nazionala izan zen, lehenik *Maldan behera* (1960) eta *Harri eta herri* (1964) olerki sortekin. Geroxeago Aresti berriz aipatuko dut euskara batuari buruz ireki zituen bide berriak oroitaraziz. 1954an agertzen hasia zen, bere idazlanak orduko aldizkari gehienetan argitaratuz.

Aldizkarietan beren luma ona goizik erakutsi zuten geroan sona handia bilduko zuten beste gazte batzuek ere: Joseba Intxausti (1936), Xabier Kintana (1946), Joan Mari Torrealdei (1942) adiskideek bereziki...

## IPARRALDEAN ERE POXI BAT MUGITZEN HASI GINEN

Iparraldea laster mugitzen hasi beharra zen. Jon Mirande jadanik ari zen Paristik. Idazle gazteen artean Txomin Peillen lehena izan zen, zubereraz eta gipuzkeraz aldizkarietan, laster eleberrian eta gero poesian ere. Miranderekin sortu zuen *Igela* agerkari humoristiko-satirikoa.

Ene aldetik 1957an hasi nintzen *Gazte* hibatekarian, eta 1962an *Herria* astekarian, bereziki laborantzako gaiez. Ber gaitan agertu zen liburuxka batean Jean Irigaray azkaratiar agronomoa, euskara natural eder baten jabe, luma trebea erakutsiz polemika politikoan ere.

Idazle peto-pettoa, zinez literaturakoa, Jean Etxepare Jatsuko gaztea, bihotze-koak hogeita lau urteetan eraman zuen (1937-1961). Iparraldeko aldizkarietan hasia hura ere, ipuinean ahalmen ederrak dastatzera eman zizkigun, bereziki *Mendekoste gereziak* obraz.

Hegoaldekoarekin erkatuz, eskasean agertzen zaigu hor Iparraldeko lehen uzta, oraino berdea eta kopuruz murrizta. Haatik bi sailetan aitzindari plantatuko gara: antzerkian eta kantugintzan. Antzerkian zinez emankor ditugu Telesforo Monzon eta Piarres Larazabal apezka. Laster lekukoa hartuko die Daniel Landart gazteak (1946), haatik lehenbiziko urratsak olerkian eta kazetaritzan egin ondoan.

Kantu berria Iparraldean sortuko da, nahiz aitzinetik Nemesio Etxaniz gipuzkoar apezak ale batzuk ereinak zituen, eta bizpahiru entzunak genizkion 1958an Mitikilen bildu zen Euskaltzaleen Biltzarrean. 1961ean plazetan kantari molde moderno batean agertuko dira *Soroak* taldean, beskoitar eta bizkaitar Robles Aranguiz bost haurrideak: haietan Estitxu, neska bakarra, berantago fama handia bilduko duena mugaren bi aldeetan. Ber urtean Mixel Labéguerie Kanboko medikuak bere lehen kantuak idatziko ditu, musikatuko eta kantatuko, gitarra lagun, bereziki «Gu gira Euskadiko gazteri berria, Euskadi bakarra da gure aberria». Piarres Larzabalen olerki batzuk ere ber gisan emanen ditu, hala nola *Bakearen urtxoa*. Eñaut Etxamendik berehala ber bidea hartuko du, haatik *a cappella*, Eñaut Larralderekin abestuz. Ondotik agertuko dira talentu gazteak ugari, haietan zendu berria den Manex Pagola (1941-2018).

## BATASUN GOSEA

Mugaren bi aldeetan eta erbestean, euskara zabalago baten gosea handitzen ari zen idazle berrien artean, bi xede nagusirekin:

- Euskaldun guziek euskaraz elkar ulertzea eta gauza guzietz elkarrekin mintzatzea.
- Gai guzien behar bezala aipatzeko ahalmena ukanen zuen hizkuntza nazionalaren erdieste.

Xede horiek gogoan, idazle batzuk beren euskararen zabaltzera saiatzen ziren, nor bere aldetik:

- Jon Mirandek zubereraz gain lapurteraz idazten zuen.
- Txomin Peillenek zubereraz eta gipuzkeraz.
- Telesforo Monzonen idazkeran nahastekatzen ziren Bergara sorterriko «bizkaiera» (kakotxen artean), gipuzkoar izanez beretua zuen gipuzkera, eta Donibane-Lohizunen bizi zuen lapurtera.

- Gabriel Arestik aitzin-batu bat antolatzen zuen hiru euskalki horiek franko iruski juntatuz: lapurterari toki handia ematen zion, gure literaturako tradizio luzeenari eta geroztik maluruski bazter utziari segida bat eskainiz.
- Federiko Krutwigek Leizarragaren euskara proposatzen zuen, «lapurtera klasikoa» deituz. Haatik Iparraldeko gutiz gehienentzat, Axularrena da izenburu hori hartze duena, Leizarragarenari gaina harturik, mende zenbaitez euskalki nagusia egon baita berriki arte Iparraldean, Nafarroa Garaiko parte batean, eta edonongo euskaltzale askoren baitan.
- Vatikanoko II Kontzilioa zuzen etorri zitzaigun (1962-1965), hizkuntza ezberdinei liturgiako atea irekiz; eta gainera Euskal Herriko elizbarruti katolikoei Erromatik manu hau etorri zitzaien; testu berdina ondu behar zutela euskararen eremu guzira. Apez euskaltzale batzuk lanari lotu ziren, Iparraldetik nagusiki Andiazabal, Emile Larre euskaltzaingia, Guillaume Eppherre Zuberoako euskaltzain osoa, Jean Diharce *Xabier Iratzeder* Belokeko aita abadea, ber denboran euskaltzain osoa. Geroztik liturgian hiztegi berdina eta esaldi/erranaldi berdinak erabiltzen ditugu Euskal Herriko eliza guzietan, euskaraz ari garen ber, eta maluruski hori zaigu gehienik faltatzen, euskaraz artzea, bereziki Zuberoan.
- Azpimarratzekoa da bereziki *Jakin* aldizkari sortuberriak 1959tik 1963ra batuaren alde egin zuen lan kolektiboa, Baionako Biltzarrari bidea irekiz eta zabalduz. Eta ondotik lehena izan zen, bulta batez agerkari bakarra ere, horko erabakiak bere gain hartu zituena, bai aldarrikapenez, bai bere idazkeran. Izen pare bat aipatzekotan, bidegileetan ezagunenak nituen alde aurretik Inchausti eta Torrealdei, 1963ko udan Arantzazuko bilkura batean ikusirik. Gero Inchaustik Baionako Biltzarrean parte hartu zuen.

Beraz, batasunaren xedea indartuz bazabilan idazle berrien artean. Gauza bat falta zitzaien: fama eta sona handiko pertsona edo erakunde batek inizatiba har zezan, metodoa eta bidea denei proposatuz. Normalki euskararen akademiari zegokion lemaren hartzea, eta ez zuen egin. Beraz arraunlari bat jarri zen kapitainaren aulkian. Euskaltzaindia izan beharrean, Txillardegi gertatu zen euskara batuari porturako bidea ireki ziona itsasontzi ahul batean, Baionako Biltzarraren arartez. Urrats hori egin aitzin, Txillardegi zinez saiatu zen Euskaltzaindiaren mugiaraztera, baina debaldetan. Haatik justifikaziorik onena ez ote du ondotik etorri dena?

## URTE HAIETAKO EUSKALTZAINDIA UZKUR ETA HERABE

Jose Luis Alvarez Enparantza (1929-2012), izengoitiz Txillardegi, Donostia sorterriko baserri baten izenetik, eraikuntzan ingeniaria, Iparraldean izenez bederen zenbaiti ezaguna zitzaigun 1957tik *Leturiaren egunkari ezkutua* eleberriaren bitartez. Ekin eta gero ETA erakundearen sortzaileetarik zen, baina guk ez genekien orduan, eta Guardia Zibilak ere ez oraino. Hain zuzen ere, horrek jakin ez zezan, Txillardegi Dantxarian Iparraldera pasa zen 1961eko urtats egunean, lan egiten zuen enpresako langileen greba baten kariara: haien alde jarri baitzen, poliziak galdezkatuko zuen las-

ter, eta gure gizon horren berri sakonagoen aitorraraztera lehiatuko zen. Piarres Charrittonek Hazparneko Saint Joseph kolegioan aterpetu zuen, eta nik iheslaria han aurkitu nuen Eguberriko oporren ondotik irakasle lanetan hasi nintzelarik, Aljeriako soldaduzkatik itzuli berrian. Otsailean Parisera lekutu zen, eta 1962ko uztailean Hazparnera itzuli, hor Benito del Valle eta Madariagak eraiki zuten lantegi txikian langiteko. Familiarekin egoitza Angelun hartu zuen.

1962ko udazkenean, Frantziako «Assemblée Nationale» legebiltzarreko bozketak gertatu ziren ohiko epea baino lehen. Abertzale gazteek Mixel Labéguerie adiskidea bulkatu genuen aurkeztera, eta gero handizki lagundu. Ustekabean diputatu atera zen. Ez zegoen prestik, gu are gutiago. Mirarizko garaipen horrek ustekeriaz bete gintuen, eta denbora joan ahala, ez zigun deus onik ekarri, oso alderantziz. Labéguerieren bidea eta gurea banatu ziren, elkarganik gero eta gehiago urrunduz joan ginen. Gure adiskidantza hautsi zen eta harremana gaizki bukatu, ezin elkar ulertuz. Bitartean, bere kantuei esker fama handia bildua zuen Labégueriek, Hegoaldeko batzuek Lehendakari gaitzat ikusten zuten, eta Iparraldeko abertzaleek esperantza handiak jarri genituen hartan, euskal departamenduaren eta euskararen alde, alferrik. Azkenean, urte andana bat berantago, Labéguerie bultza hartan zendua zela, horren aurkaria izan zen Mixel Inchauspé saiatuko zen bi xede horien betetzera.

Euskara batuaren gaira itzuliz, oroitaraz dezadan horren erdiestea Euskaltzaindiak bere xede nagusietarik zuela, bere araudian argi eta garbi agertua. Txillardegik behin baino gehiagotan lehiatu zen lan horrerara bulkatzera, bainan alferrik: euskara batuaren aurkakoez gehiengo zuten antza denez. Bereziki Euskaltzaindiari bi aldiz idatzi zion: lehenik 1956an *Karta idegia* delako<sup>1</sup> gero 1958an *Batasunaren bidea* txostena<sup>2</sup>. Txosten horretan proposatzen zituen puntu asko berantago beteko ziren, baina mementoan Euskaltzaindia ez zegoen batere holako berrikuntzen onartzeko prestik, eta Mitxelenak hetsidura hori agerian utzi zion hitz labur hauez: «Nire ustez, alegia, gutxi gora be(he)ra bat gatoz. Eztut uste, ordea, gaur batasunik egin ditekianik»<sup>3</sup>.

Azkenean, asperturik, etsiturik, Txillardegik Alfontso Irigoien euskaltzainari idatzi zion urgazle egoteari uko egiten ziola, eta Piarres Charrittonek imitatu zuen<sup>4</sup>. Lojendio euskaltzainburuak demisorik ez zuen onartu: Txillardegiri bereziki Angelura postaz itzuli zion, «eta berehala, ahalik eta azkarrenik, Euskara Batuaren prozesua bideratuko zuela agindu zidan. Eta egiaz mintzo zitzaidala berehala ikusiko nuela» idazten du Txillardegik *Euskal Herria helburu* liburuko 167. orrialdean. Ondokoan honela jarraitzen du:

Guk, halere, hitzez eta luzamenduz asperturik, areago itxaron gabe, gure kasa jokatzaz hastea erabaki genuen: proposamenen mailan bederen, Euskara Ba-

<sup>1</sup> *Euskera* I, 1965, 240-250. Orain *Euskal Herria helburu* (EHH), 148.

<sup>2</sup> *Euskera* IV, 1959, 150-170.

<sup>3</sup> *Euskera* IV, 1959, 171.

<sup>4</sup> *Enbata*, orduan hilabetekaria, 1963ko iraila; orain EHH, 161-167. Ber gaiaz orokorki *Hegats literatur aldizkaria*, 49, 2012: Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegik*, «Altxa itzazu begiak»; bereziki Goizon Aurrekoetxearen «Txillardegik eta Euskara Batua», 137-143.

tuaren proiektu bat Baionan, eta Euskal Idazkaritzaren bitartez, abiarazteko deliberatuta.

Euskara Batuak indar politiko abertzaleen baiespina behar zuela sinetsita, Batzorde “multi-partido” horietako bat eratu genuen, eta Hizkuntza Saila bataiatu genuen.

Zortzi lagunek osatu zuten: PNVko bi partaidek (J. Solaun, Okotz eta T. Monzon; *Enbata*-ko ordezkari batek, Jean Louis Davant zuberotarra; ETAko bi lagunek (Eneko Irigarai eta ni neu); eta euskal liturgi lanetan nabamendutako apez batzuek: Roger Idiart (aurki Zuberoara “deserriratzekoa”), Andiazabal, eta Hiriart-Urruty, ondoko urteetan diosesako Bikario izatekoa. Beste bi partaideren izenak agertzen dira nire paperetan, nahiz praktikan biltzarkide ez izanak: Dagorret irakaslea eta Etxamendi delako bat. (sic).

## EUSKAL IDAZKARITZA

1963an Iparraldeko abertzale gazte batzuek eta Hegoaldetik aterbetzera etorritako zenbaitek elkarrekin Euskal Idazkaritza elkarte sortu genuen Baionan, euskal kulturaren zerbitzuko. *Enbata* mugimendu sortu berriak ostatu eman zion Kordeliereen karrrikako 14an alokatzen zuen solairuan, Imprimerie des Cordeliers delakoaren alde gaisetik. Buruzagitzat hautatu genuen Mixel Labéguerie frantziar parlamentuko diputatua eta Euskaltzaleen Biltzarreko lehendakaria.

Ber denboran sortu genuen Goiztiri argitalpen elkarte, disko eta liburu berrien ekoizten hasi zena. Elkar etxearen arbasoa izan zen.

Euskal Idazkaritzak Lauaxeta literatura saria antolatu zuen. 1963an San Martin euskaltzainari eman genion bere obra orokorraren ohoretan, eta 1964an Rikardo Arregi kazetari eta idazle gazteari, garaiko gorabeheren eta ideien argiki aipatzeagatik.

Haatik hirurogeita lauko udan krisi bat piztu zen Hegoaldeko abertzale zahar eta gazteen artean, edo hobeki erranik areagotu. ETAkoek beren politikaren gogortzea erabaki zuten, eta bereziki zerga iraultzailearen bildu beharrez hasi ziren PNVko aterbetuen eta bestelako kide batzuen artean ere. Beraz, ondotik jakin nuenez, jeltzaleak sumindu ziren.

Euskal Idazkaritzaren estreinan, 1964ko uda hastean, Mixel Labéguerie gure elkarteko lehendakariak hitzaldi bortitz bat egin zigun, bide zuzenetik baztertuko zirenak aburu publikoaren aitzinean finki salatuko zituela erranez. Nik, sarrera hitza erran berri bainuen, zaparrada hori harriturik hartu nuen, ez nekien zer pentsa, ez non jarri, ezta gure buruzagia zertaz ari zen ere: hori guzia buruz gain pasa zitzaidan, Irribarriaren pilota edonoren alde gaisetik bezala. Gero jakin eta ulertu nuen Hegoaldeko bi polo abertzaleen arteko gatazka zela jokoan, eta gu, Iparraldekoak, auzi horretan ez ginen konta; erran nezake gutiz gehienetan bezala.

Buruilaren Iean Labégueriek Txillardegiri gutunez jakinarazi zion Euskal Idazkaritzako lehendakari egoteari uko egiten ziola. Beharrik bitartean ongi burutua zen Baionako Biltzarra. Eskerrak Labégueriek bukatzera utzi zuela demisioa eman aitzin. Hori bederen.



## BAIONAKO BILTZARRA

Batzorde horretan Txillardegi genuen aditu bakarra. Eiki, beste zazpiak zer ginen? Amaturrak, agian *mateurs éclairés* batzuk. Solaun iduriz euskal kultura zabalako gizona zen. Monzon bere antzerki eta olerkiez idazle heldua zen. Nik praktikan Iparraldeko hizkera guzien berri banakien, Hegoaldekoez egunero ikasten ari nintzen iheslariekin, asko irakurtzen nuen, bereziki liburu berri guziak irentsiz —haatik ordu hartan ez ziren oraiko burrustan ateratzen— bainan ez nintzen eta ez naiz gramatikalaria, izatekoz ere hiztegi eta esaldi/erranaldi zabaleko idazlea. Hiru apezak ere ni bezalakoxeak zirela uste dut. Beraz, lan guzia Txillardegik biderratu zigun.

Zein izan ziren aipatu genituen gaiak: ortografia, deklinabidea, aditzako forma beharrenak, H hizkiarekiko hitzen oinarritzko hiztegia. Ortografiak ondotik polemika sutsuak piztuko zituen, nagusiki H hizki edo letraren poderioz. Hegoaldean aspaldi hartan galdua zuten, nahiz Mendiburu gipuzkoar apez idazleak hamazortzigarren mendean oraino zerabilen franko nasaiki. Bestalde, herri zenbaiten izenetan iraun du, bereziki Nafarroa Garaiko bi Huarte/Uhartetean eta Gipuzkoako Hernanin.

Iparraldeko literatura klasikotik abiatuz, erabaki genuen H tentuz eta neurritz euskara batuan sartzea, hitzen hasieran eta bokalen artean atxikiz, alderantziz konsonanteen ondotik ezabatuz. Euskara batuaren aurkakoez letra berezi hori gorrotoan hartu zuten, eta herra horretan ideologiak ere parte handia bazuen, H grekoz ETA delakoan. Egia da batzordeko zortzi kideetarik bost politikoak ginela, alderdi batzuen izenean hautatuak, horietan bi ETako, gainera Monzon eta ni horien lagunak, Roger Idiart ere hurbilean, Txillardegi denen burua, eta oinarri politiko horretarik aterako ziren euskara baturako lehen urratsak, nahi ala ez, batzuentzat susmagarriak.

Gainera zortzi kideetarik sei gizon nahiko gazteak ginen, beraz euskaltzain eta euskaltzale zohituak kexatu baziren, ez zen gehiegi harritzekoa, eta denbora puska bat beharko zen auzi horren jabaltzeko, lañotzeko, eztitzeko, Zuberoan diogunez «anpletzeko». Bestalde Iparraldean bazen, eta oraino badago konsonanteen ondoko H delakoa atxiki nahi zukeen jenderik; gazteen artean ere zenbait badaude, bereziki Zuberoan, kentzeak ahoskera aldatzen duelakoan. Beraz erdiko bide bat hartu genuen, eta uste dut horretan zuhurki ari izan ginela, ondoko denborek aditzera eman dutenez.

Artetik ohartzin ahal gara batzordean ez zegoela emakume bakar bat ere, nahiz andreak bazeuden irakaslekoan, adibidez Jone Forcada, Jeanne-Marie Malharin, Martxelín Arbelbide, Manex Pagola esposatuko zuena... Hutsune horrek adierazten du zein zen orduko egoera, inozenki eta lasaiki matxoa, ideologiaz matxistak ez ginenen artean ere.

Gure lanak iraun zuen guti gora behera ikasturte batez: hirurogeita hiruko azarotik ondoko udaraino. Zortzi hilabetez astero bildu ginen Euskal Idazkaritzako aretoan. Piarres Lafitte azken bilkurara gomiatu genuen bere jakintza eta itzal handiagatik, biltzar ireki baten prestatzeko. Hori abuztuaren hogeita bederatzian eta hamarrean kokatu genuen, eta hona finkatu genion egitaraua:

«29an, larunbatez, 10.30etan, “Ongi etorria”. Eta ia-ia segituan, 11.00etan, “Batasunari buruz xehetasun batzuek”.

Gero bilkurako lehendakariaren hautaketa.

Eta, arratsaldeko hiruretan, hiru gai hauek:

1. Ortografia.
2. Deklinazioa.
3. Aditza...

“30ean, igandez, 10.00etan, ‘euskal irakasleek egindako agiriaren irakurtzea.’

Eta, hamaika t’erdietan, Erabakiak”».

Biltzarrerako deia kazeten arartez hedatu genuen; idazle eta irakasleei zuzentzen genien bereziki, gainerako euskaltzaleak baztertu gabe, bistan da. Euskal Idazkaritzaren ohiko bozeramalea izanez, bereziki literatura sari emateetan eta estreinaldian hizlari agertua, ongi etorriaren erratea tokatu zitzaidan, gure lanen eta biltzar horren zergatiak eta norabideak azalduz.

Etorri zen beraz abuztuko azken larunbat hura. Niretzat oso luzea eta gora-beheratsua izan zen, are gehiago emaztearentzat, haur beharretan baitzegoen. Goizean goizik gure Maddi txikia izango zena bere amari ate joka hasi zitzaion, jalgi nahiz bezala naski. Gure ustez aste bateko epea bazukeen oraino, eta harrapatuak ginen. Baina hein bat laster haurra lasaitu zen, ama bakean utziz. Beraz ene mintzaldiaren egitera joaten ahal nintzen, gero berehala itzultzekotan. Eta hola egin nuen.

Euskal Idazkaritzako aretoan, mugaren bi aldeetako gazte multzo politari harrera hitzaldia egin nion: Hegoalderantz ireki nuen lapurtera batean mintzatu nintzen, eta bukatu baiko ziztu bizian Hazparnera itzuli. Gero emaztea eta biak zain egon ginen arratseraino, eta haurra gauan sortu zitzaion. Abuztuaren 30a zen ordukoz. Igande goizean, gaua zuriturik, ez nintzen biltzarrera heltzeko gai izan, eta ene zorionean hutsune larri horrekin egon naiz. Baketu behar dut pentsatuz Maddi alaba eta Euskara Batua ber egunean sortu zitzaizkigula. Haatik Euskara Batuak, Euskal Idazkaritzaren sabeletik irten ondoan, bere hazkundera luzatu beharra zuen beste sakela batean, kanguru txikiak bezala, Euskaltzaindiaren sakela handian.

Garaian euskara batuak aurkari asko bazuen. Halere aurrera egin du eta egiten, beti aberastuz eta malgutuz. Haatik etsaiak baditu berriz, eta zinez bitxi zait, nahiz bakanago diren. Baina gauza batek kontsolatzen nau: aurkari bistakoenek euskara batua kritikatzeko dutela euskara batu zinez ederrean.

## BAIONAKO BILTZARRAREN ERABAKIAK

Ikus *Iker-17* (207-216) orrialdeetan

1. Idazkera, grafia
2. Deklinabidea
3. Aditza, laguntzaileak (lau denbora nagusietan):
  - intrantsitiboa: naiz
  - trantsitiboa: dut.
4. H letraz hiztegi labur bat:
  - bokal bikoitzen artean H hizkia hartzen duten hitz andana bat
  - hasieran H hizkia hartzen duten beste hitz andana bat.

## GUTIENEKO BIBLIOGRAFIA

Davant, Jean-Louis, 2005, «Baionako Biltzarra», *Iker 17*, Euskaltzaindia, 207-216 or.

Davant, Jean-Louis, 2012, «Txillardegi euskara batuaren aita (1929-2012)» (hilberria), *Euskera 57* (1-2), Euskaltzaindia, 377-382 or.

Kolektiboa, 2018, martxoa-apirila, «Euskara batuak 50 urte», *Jakin* aldizkaria 225. zbk.

*Txillardegi* Álvarez Enparanza, José Luis, 1994, *Euskal Herria helburu* liburua, Txalaparta, 125-171 or.

## EUSKARA BATUAREN KEZKA

Eneko Irigarai  
Baionako lantaldeko (1963-1964) kidea

Euskara batuaren kezka familian hasi nuen 50eko hamarkadan. Aitak esaten zidan Alemanian, Erdi Aroan, Luterok egin zuen bezala saiatu behar ginela. Germaniar herrikoian Biblia itzuli zuen, eta horrela sortu zen aleman batua. Aldi berean Aingeru Irigaray eta Koldo Mitxelenaekin elkartzen nintzen gai huntaz mintzatzeko Donostian. Hirurak euskara batu bat sortzearen alde ginen, batez ere hizkuntzaren ikasketa errazteko. Aingeruk ez genuela bortxaz inposatu behar zioen. Euskalkiak aberastasuna zirela eta gorde egin behar genituela.

1960. urtean Txillardegik Lapurdira joan zen, eta ni jarraian 1961ean. Federico Krutwig Lapurdin zegoen jadanik eta hirurok hasi ginen berriro euskara batuaren beharraz mintzatzen Miarritzen. Federicok lapurtarra hartu nahi zuen oinarri, eta maiz aipatzen zuen Axularrek idatzitako *Gero* liburua ardatz hartzea hark daukan euskara aberatsagatik. Ni ere lapurtarrez mintzo nintzen garai hartan, Urdazubikoa prezeski, eta berarekin ados nintzen. Txillardegik, berriz, gipuzkera hartu behar zela zioen. Arrazoi batzuk baziren, erdi geografikoak, erdi sozialak. Gipuzkoan euskarari nahiko indartsu eusten zioten, eta gure proiektua aurrera eramatea errazago izango zela iruditzen zitzaigun; beraz, azkenean hala erabaki genuen. Gogoratu Gipuzkoan momentu horretan ikastolen mugimenduaren hasieran ginela eta beharrezkoa ikusten genuen euskara batu bat irakastea.

Baina nola egin? Eta batez ere norekin egin oihartzuna eta nola onartuak izan. Euskal Herriko urte haiei begira pentsatu genuen beharrezkoa zela alderdi politikoak gureganatzea. Horrela hasi ziren EAJ, ETA eta Enbataren arteko harremanak, baita kazetari eta idazleekin ere.

1963. urtean zehar lanean aritu ginen proposamen serio bat egiteko alderdi desberdinei eta Euskal Herriko jendeari. Euskara batuari buruzko lehenengo bilkura orokorra, 1964ko irailean egin zen, Euskal Idazkaritzan, Baionako Cordeliers karrikan. Han bildu ginen, Txillardegik, Laffitte kalonjea, Solaun, Davant eta ni idazkari lanetan. Aurretik partaide guztiekin hitz egin zen proiektuak ez huts egiteko, beldur apur bat baikenuen. Bileran partaide guziak euskara batua bultzatzeko eta onartua izateko konpromezua hartu genuen. Txillardegik proposatuta, bi urratsekin hasiko ginen euskara bateratzen: alde batetik aditzak eta bestetik deklinabideak.

Hurrengo egunean Baionako inprenta batera joan nintzen eta Txillardegiren aditz taulak eta deklinabideak inprimitu ziren zabaltzeko. Geroago Gabriel Aresti, Monzon, Labéguerie eta Irigoyen etorri ziren, eta bertze jende mota bat ere bai, hurrengo batzuetan.

Nik idazkaritza 1964ko abenduan utzi nuen. 1965ko urtarrilean Txillardegí, Madariaga eta ni Bruselara joan ginen arrazoi politikoengatik eta hemendik aurrera bakoitzak bide desberdinetik hartu genituen.

Baina euskara batuaren bidea irekia zen.

## EUSKARA BATUAREN LEHEN URRATSAK IPARRALDEAN: ENE LEKUKOTASUNA

Gexan Alfaro *Lantziri*  
Euskaltzain urgazlea

### TXILLARDEGI ETA BAIONAKO LANTALDEA (1963-1964)

Euskaltzaindiak 1968an, Arantzazuko bilkura aipatuan finkatu zuen euskara baturako bidea, Koldo Mitxelena hizkuntzalari ezaguna gidari. Orduan hartu ziren erabakiak Jakin argialetxeak, izen bereko liburuan plazaratu zituen, 1974ko martxo aldera. Liburuaren idazlea, Larresoro izan zen, hots izengoitiz Txillardegia.

Iparraldeko euskaltzale askok ezagutzen genuen, Jose Luis Álvarez Enparantza hizkuntzalari. Garai hartan, Iparraldean iheslari gisa bizi zen, eta Mitxelena bezala, bera ere euskara batuaren alde lan eta lan ari izan zen anitz urtez. Bere inguruko lagun multzo batekin, besteak beste Jean Louis Davant eta Roger Idiar-tekin biltzen zen, Euskal Idazkaritzan, Sokagileen karrikako 14an kokatua zen Baionako Enbataren bulegoan. Beren lanaren uzta *Baionako Biltzarraren erabakiak* izen-buruarekin aurkeztua izan zen Arantzazuko bilkuran. Azken xehetasun hauek *Herrria* astekarian bilduak ditut.

### GARAI HARTAN EUSKARA BATUA ZERTAN OTE ZEN IPARRALDEAN? ENE LANA KAZETAGINTZAN, ITZULPENGINTZAN ETA IRRATIAN

Garai hartan euskara batua zertan ote zen Iparraldean? Segur naiz nik baino xuxenago gogoan duketela orduko beste euskaltzale batzuek, hala nola Jean Louis Davant, Daniel Landart eta Ramuntxo Camblong batek...

Dena den, hona ene aldetik, nola bizi izan nuen, euskara batuaren aldeko joera hura. 1969tik 1975a bitartean, «Euskal liburuen xokoa» deitu saila argitaratzen nuen larunbatero, Baionako *Basque Éclair* erdarazko egunkarian. Eta hor esplikatzeko nuen zertaz ari zen liburu hori: 1968az goerotik Euskaltzaindiak hartu zituen erabakiak puntuz puntu emaiten zituen bertan: aditz bateratua lau koloretan, Euskal Herriko leku izenak, euskal izendegia eta 1968an proposatu zen batasunerako hiztegia. Eta hona zer hitzekin bururatzen nuen orduko aurkezpena: «Agian, han hemenka, sortuko bide dira bilkura ttipi batzu, liburu hontaz baliatuz, gure euskararen batasuna

aitzinago eramaiteko eta emeki-emeki herritarren artean ere sortzeko; ez dadien bakarrik euskaldun ikasien mintzaira batua bilaka, herriak mintzo duenetik apartekoa.»

Egia erran, Txillardegiri esker ohartu nintzen euskara batua beharrezkoa zela iparraldean ere... eta idazten nituen artikuluetan, ene gisako euskara batu bat erabiltzen hasi nintzen, dela *Herrian*, *Anaitasunan*, *Zeruko Argian*, Baionako *Zabal* aldizkarian, *Basque Éclair* (1969-1975) eta *Écho du Sud-Ouest* (1975-76) egunkarietan, *Euskaldunak* (EHAS-en aldizkarian), *Ekaitza* astekarian... edo oraino, 1969tik 1980a bitartean, Radio Côte Basque irratiko hitzaldietan. Frantses irrati publiko hartan, asteazkenero bost bat minutuko hitzaldia segurtatzen nuen, Maite Barnetxeren ardurapean; beste egunetakoa, beste euskaltzale batzuek segurtatzen zutelarik: hala nola Janbattitt Dirassar, Ramuntxo Camblong eta beste batzuek... Artetik erranen dut, 80ko apiriletik aitzina, Henri Duhauk beregain hartu zuela asteazkenero ene gain zen sail hori...

Bestalde, itzulpengintza ere gustuko lana bainuen, Txillardegik galdeginik, Walt Disneyren *Itsasoko gauza harrigarriak* deitu liburua euskaratu nuen. Liburua 1968an argitaratua izan zen Donostian.

Erran nahi nuke ere, garai hartan, *Zeruko Argia* eta *Anaitasuna* irakurtuz landu nuela gehienbat ene euskara batua, ordurako idazle onak baitziren, bertan idazten zuten Joseba Intxausti, Joan Mari Torrealdei, Gabriel Aresti, Txillardegi eta Xabier Kintana bezalakoak...

## HEGOALDEKO EKARPEN HANDIA LEXIKOAN

Hitzaldi honen prestatzeko, gainez-gain begirada bat eman diet garai hartan idatzi nituen artikuluei eta horrela ohartu naiz, zinez urrats ttipiak zirela orduan euskara batuari buruz egiten genituenak, Iparralde honetan.

Idea bat ukaiteko, hona han hemenka bildu ditudan hitz eta aditz zerrenda labur bat, ordura arte Hegoaldean baizik erabiltzen ez zirenak...

- Hitzak:** iritzi, ipuin, sakon, eleberri, ekoizpen, aldizkari, arduradun, irrati, baserri, atzerri, izenpedura, baldintza, haurtzaindegi, zapalkuntza, iraultza, kemen, erakunde, antzerki, antzoki, garrantzi, hitzarmen, eskubide, egoitza, begazkin, zabor, hondakin, batzorde, geltoki, egunkari, egoera, aurrezki, argazki, osasun, giro, norabide, ...
- Aditzak:** idatzi, erabaki, bultzatu, izenpetu, harpidetu, arduratu, atzerriratu, aztertu, zapaldu, ulertu, lortu, eta beste ...
- Aditz trinko erabilienak** ere sartzen genituen gure lerroaldietan, hala nola: dakar, dator, damaigu, darama, dabil, darabil, dagokigu, damaio eta beste...

## IPARRALDEKO ETA BATUAREN ADITZ FORMAK

Bestalde, batuan idazten genituen gure euskalkiko aditz eta hitz zenbait ere, batetik besterako aldea zinez ttipia zelako eta horrela, emeki-emeki irakurlea edo entzulea ohitzeko gisan: hala nola, *ginuke/genuke, ginezake/genezake, ginauzuen/genizuen, zaukan/*

zenkan, ditaike/daiteke, dauzkigu/dizkigu, gira/gara, litaike/liteke, eta abar... edo oraino: zonbait/zenbait, nun/non, nunbait/nonbait, edonun/edonon, edozoin/edozein... eta holako.

Egia da, orduan, aditz batuaren finkatzea «euskara batuari» bizkarrezur baten emaitza bezala izan zela, ene ustez...

## HITZ BERRIEN ASMATZEA

Bidenabar erran nahi nuke ere, itzulpenak eginez ohartu nintzela, maiz euskarazko hitz egokirik gabe gelditu behar izaten nuela... eta horrek bultzatu ninduela ene aldetik hitz berrien asmatzera. Iduritu zitzaidan, euskara batua idazleek edo irratilariak asmatu hitz berriez aberastu behar zela... Horrela beraz, ene artikuluetan erabili nuen lehen hitza: *hitzordu* izan zen, erdarazko *rendez-vous* eta *cita* hitzen ordezkatzeko. Ene idazlanetan, behar arau, orotara berrehundik gora hitz berri erabili dituzket, eta haietarik zenbait hamarreko, 2004an argitaratua izan zen Elhuyar hiztegiaren ezartzea onartu zidaten...

Adibide gisa hona bakar batzuk: *hitzordu/rendez-vous*, *goramen/promotion*, *lerradera/glissière*, *goimarka/performance*, *helnabi/ambition*, *helkari/arrivee*, *helgai/objectif*, *agergailu/projeteur*, *oihalitz/banderole*...

## AZKEN HITZA

Bururatzeko, ez nuke aipatu gabe utzi nahi halere, Elkar argitaletxeak 1972an Manex Pagola bultzatzaile izanik, Iparraldeko hogeitazazpi idazle eta kantarik sortu genuenak, bere ahal guziaz egiten zuela, argitaratzen zituen euskarazko liburuetan Iparraldeko euskara batu bat erabiltzeko, oinarri-oinarrian izanik, Euskaltzaindiak finkatua zuen aditz batuaren erabilpena. Gure ustez ere, beste anitzenaren gisara, Iparraldeko euskara batuak, aditzaz bestalde, tokian tokiko hitzak eta erran moldeak erabili eta landu behar zituen, Hegoaldekoenak parekatuz ahal zen guziz.

Bide berri hori elkartasunean eramana izan da, urtez urte, kazetagitzaian ala irratigitzaian; nola utz aipatu gabe irakasleek ikastoletan edo eskola elebidunetan urtez urte eraman duten oinarritzko lana... Uste dut horrela, denborarekin, lortu dela Iparraldeko euskaldunen begi-beharrietan gaur egungo euskara batuaren nolabait etxekotzea.

Egia da, hemengo begi beharriak ere nahiko ohitu zaizkiola Hegoaldeko euskarari, besteak beste, ikastolaren, irratien, edo *Berria* egunkariaren bitartez.

Baina, halere, indar bat gehiago egitea beharrezkoa dugula iduritzen zait. Segur da, hemengo hitzak atxiki behar ditugula, hauek ere euskara batukoak baitira, baina ber denboran, hangoak ere ikasi behar ditugula, prentsa idatziaren edo irratien bidez. Horrela errazkiago irakurtuko baititugu Hegoaldekoen idatziak, eta ere errazkiago solastatuko baikira, herrialde bateko eta besteko euskaldunekin.

Egia da ere, hango euskaltzaleek indar bera egin behar dutela! Hala izan bedi!

Horra, labur bada labur, ene aldetik ekar nezakeen lekukotasuna.





## IPARRALDEAN NOLA OHARTU GINEN EUSKARA BATUARI

Janbattitt Dirassar  
Euskaltzain ohorezkoa

Jaun-andereak, egun on guzietan<sup>1</sup>. Hasteko, erran behar dizuet atsegin dutala hemen kausitzea egun zuen artean, duela 54 urte Baionan egin zen biltzarra gogoan eta gainerat iduritzen zait —bainan iduripena enganakor izan daiteke— iduritzen beraz mende erdi batez gaztetu naizela! Hori hola izanez gauza ederra laiteke eta nola ez! Euskaltzaindiari esker gaztetzea gainerat, hori oraino ederrago! Baditake ere funtsean Pablo Picasso zenak arrazoina zuen idazten zuelarik «urte asko behar da gaztetzeko», hots xahartzeari buruz dela jendea egiazki gaztetzen. . .

Bainan xo, ene hitzaldia ez da margolari famatu hortaz, ez eta gazte edo xahar izaitiaz, bainan baduela berrogoita hamar bat urte euskal idazle bezala ezagutu dutan giroaz.

### ORDUKO PRENTSA IDATZIA ETA EUSKARAREN BATASUNAREN BEHARRA

Urteak jin eta urteak joan aldaketa handi-handiak izanak dira euskalgintzaren alor guzietan eta beraz prentsa idatzian ere. Oroitarazi nahi dut lehenik euskarazko prentsa idatziak etzuela denbora hartan hedadura handi-handirik. Ez Iparraldean ez eta Hegoaldean. Azpimarratuz halere, batere espantuka ari gabe, *Herria* hor zela, hein bat pixkor, eta keinka hartan berpiztu zela *Zeruko Argia*, hori 1963an. 1921ean sortua zen, Espainiako gerlatik landa urte askoz ixilik egona, ezinbestean bixtan dena. *Zeruko Argia*, geroztik zerutik jautsia, denbora hartan guretzat ere erreferentzia bat zena, Piarres Lafitte kalonjeak zion bezala. Iparraldean, hor ginuen ere *Gazte*, Euskaldun Gazteriaren aldizkaria, hor ere *Etxea* Pier Narbaitz kalonjeak sustatua emazteentzat. Garbiki erraiten ahal dena da Baionako bilkurarekin abiatu zela aldaketa sail nasa bat handik lau urteren buruan aitzina azkartu zena Arantzazuko kasko heietan. Nihaur Baionako bilkuran izan nintzen, Piarres Lafitttek gomitaturik. Piarres Cha-

---

<sup>1</sup> Argitaratzailearen oharra: Testuaren bukaeran erraten duen bezala, Janbattitt Dirassarrek bere euskalkia erabili du. «Zoin euskalki da? Nihaturen ustez enea eta ez beste nehorena». Idatzia den bezala utzi da.

rrittonek ere zer bait erranik. Han nintzan beraz. Entzule xume egia erran. Ixil-ixila ene xokoan... Gazte-gaztea nintzen eta *Herria* astekarian atxikitzen nuen pilotaren saila, Arraia izen-ordearekin, izen-orde bat luzeko joko xaharretik hartua, hazpandarra izanez eta Hazparden biziki atxikiak baitzauden, eta orai ere hala daude, luzeko joko miresgarri horri. Ordukotz, Piarres Lafitte kitzikan ari zaitan, Piarres Charritton ere ba aitzina, pilotaren sail hori behar nuela atxiki segur bainan ez nuenetz beste gai batzuri ere lotu nahi. Hori gertatu zen ondoko urtean...

Idazleen artean, euskara batua gero eta gehiago aipu zen. Txillardegi eta holako batzuek sustatzaile. Piarres Lafittek zion euskaraz idazten ginuen guziok idazkera berdina ukaitea, hori izanen zela behin hasteko eta bat urrats bat munta handikoa. Euskaltzaindiak finkatu, edo finkatzen ari zituen, neurri batzuek denentzat onargarri zauden, geroari buruz bide egokia hortan zela batere zalantzarik gabe. Gure artean, gero eta gehiago aipatzen ginuen beraz euskara batu baten beharra, euskaldun guzien arteko lokarri azkar eta premiatsu izan zadien, euskaldunak, euskaradunak behin, gero eta euskaldunago izaiteko xedetan.

Gisa hortan, hori izan zen lehen urrats aipagarrienetarik batto, aditzaz ez ginen hanbat arduratu bainan utzi ginuen Iparraldean kasik denek beti erabiltzen ginuen «ch» hura eta sartu «x». Hori etzen egunetik biharamunerat egin. Bestenaz ere *Herriaren* zuzendaria etzen batere bortxatzaile heietarik, denak haren erranetik umil umila joan behar balire bezala. Hartzen badituzue 1964-ko *Herria* astekariaren ale batzuek, ikus dezakezue ale berberean artikulu bat «ch» delakoarekin eta haren ondoan beste bat «ixarekin». Artikulu bat izenpetua «Xaharra», ixarekin, xahar hori Piarres Lafitte bera izanki, eta ondoko orrialdean norbaitek «ch» aitzina sartzen erraiteko nik dakita nungo bilkura baten «chede» nagusia hauxe zela, «chede» hitz hori «ch» ekin idatzia.

## GIRO POLITIKOA. ENBATAREN LEHEN URRATSAK

Artetik erraiteko, Piarres Lafittek bazakien argi norat ari zen bainan sekulan ez presaka edo bortxaka. Ixtorio ttipi bat kondatzen ahal dut hori gogoan... bainan lehenik hauxe azpimarratu nahi dut. Euskara batuaz ari gira eta gogoan dugu beraz nola Baionan egin zen bilkura bat guziz baliosa. Atea zabalduz nolazpait euskara batuari. Keinka bertsuan izan zen beste iraultza bat. Iparraldean, abertzale gogoan, arrunt mottel ginuena ordu arte, piztu zen eta azkartzen hasi. 1960an Itsasun, Pazko biharamunez, sortu zen Enbata. Jakes Abeberry, Ximun Haran eta holako batzuek sustatzaile erne eta kementsu. Ez idurika, Enbatak bazterrak harrotu zituen. Traba ainiz ere kausitu. Baziren Enbatakideak lurra baino apalago ezartzen zituztenak. Itsuski apaltzen zituztenak. «Enbata zikin horiek» erranez, horra nola mintzo ziren jende batzuek.

Bizkitartean, emeki-emeki beste giro bat sortu zen. Jendea hobeki ohartzuz Euskal-Herri bat bazela muga baten bi aldetan balinbazen ere. Abertzale etziren jende asko ere hasi ziren beste molde batean mintzatzen. Espainia eta Frantzia erraiteko partez, Iparralde eta Hegoalde erraiten. Iduritzen ahal zauku aitzinamendu ttipia izan zela giro aldaketa hori. Nik ez dut uste. Handia izan zela erran nezake. Behin, Eus-

kalzaleen Biltzarra bildu zen Heletan. *Sud-Ouest* egunkariak ere aipatu zuen. Idatzi zuten «une réunion internationale de basquistes a eu lieu à Helette», euskaltzale batzuek bildurik nazioarteko bilkura bat izan zela. Nazioartekoa, han baitziren frantsesak eta españolak! Bai, españolak baziren, Telesforo de Monzon han zen!!! Urteak jin urteak joan kasik galdua da gauzak hola ikusteko usaia.

Errana dut ixtorio ttipi bat kondatuko nuela. Huna beraz ixtorio hori... Orai, Iparralde eta Hegoalde hitzak hartuak ditugu eta ainitzek noiz nahi erabiltzen. Oroit niz, eta ene bekatua aitortzen ahal dut denboraren buruan, uste dut denek barkatua ere daulatela, *Herria* astekarian hasi nintzelarik idazten, Hazparneko bestetarat, asteazkena izanki pilotaren egun handia, ekar-arazten zirela hegoaldeko pilotari hobereenetarik zombait, hala nola Gallastegi eta Arriaran II; oroit niz idatzirik «español» pilotariak zirela, Hazparnen bestenez ere denak hola mintzo baitziren. Laster, Piarres Lafitte zenarekin ere mintzaturik, utzi nuen usaia txar hori...

## BAIONAKO ETA ARANTZAZUKO BILKUREN ONDORIOAK: x, b ETA BESTE

Bainan berriz jin giten bada Baionako bilkurak eta Arantzazukoek ukan zituzten ondorio heietarat. *Herria* astekarian ere «ch» utzi zen eta «ixa» sartu zen, Piarres Lafittek bere berriketariak hortarat pusatuz, ez batere manatari bortitz agertuz beraz, ez batere dena larderia bainan azpimarratuz denen onetan hori zela, idazkera berdindu baten molde, guziz egokia. Denak laster jarri ginen beraz molde horri. Batzutan entzun dut, nihaurek erran ere, berriketari bat baginuela arrunt kontra, ixaren kontra, Piarres Duhour, Hazparneko berriketaria. Geroztik haatik, ene ikusmoldea aldatu dut eta huna zendako. Berriketari gehienak etziren baitezpada hain bero ixaren alde, zendako behar zen usaia xaharra kanbiatu, bainan uzkur baziren ere, edo uzkur aire, etzuten hori ahapeka baizik erraiten, ez baitzuten Piarres Lafitte zuzendariaren kontra agertu nahi. Zioten ere Piarres Lafittek hori galdetzen bazuen arrazoinak ere bazuzkeela, gu ez baginen ere denak hanbat ohartzen arrazoin horieri... Piarres Duhour zenak bazuen ausartzia gehiago. Biziki atxikia Piarres Lafitte zuzendariari bainan ez beldur edo lotsa edozoin gaietaz bere ikusmoldearen tanpez agertzeko nornahiren aitzinean ere. Hazparnen erraiten den bezala «etzuen gibelego bortarik», go-goan zuena erraiten zuen. Eta burutan zuena etzuen zango puntan! Hola bildu zuen fama ixaren kontrakoa zela, kasik bakarra baitzen, ene oroitean behin, hola mintzo zena, hoin deplauki. Gainerat, biziki polliki mintzo zen. «Gu idazleak, ixa behar bada sartu, denbora poxi batekin bederen jarriko gira, hastean galduak izanikan ere bainan irakurleak gu baino galduago izaiten ahal dira, eta beharbada irakurle horietarik andana bat galduko dugu». Dena den, ixa sartu zen *Herrian* eta nik dakitalarik behin, ez ginuen irakurlerik batere galdu... Erran dut laster jarri ginela «ixaren» sartzeari. Eta aise jarri zeren etzen nekeziarik batere. Artaren hartzea zen dena. Bai, arta hartu behar. Ez ahantzi behar «ch» hura alde bat baztertua ginuela, «ixa» ezarri behar beraz.

Aldaketa hori etzen gisa hortako lehena zernahi gisaz. «c» hizkia baztertua ginuen eta «k» sartua. Hartu lehengo *Eskualduna* astekaria, hartu aspaldiko liburuak,

zernahi «c» ikusten da. «Etcheac» idazten zen «e t ch e a c», orai arrunt harrigarri, biziki bitxi, iduritzen bazauku ere.

Beste auzi bat ukan ginuen keinka berean. «H» hizkiarena. Auzi minbera eta zaila izan zen euskaltzale askoren artean. Ez hainbeste guretzat.

Egia erran, «h» hori nasaiki sartzten ginuen gure idazkietan. Aise sobera. Eta guhaur soberakinik ohartu gabe orobat, usaia hola hartua. P eta K konsonanteen ondolik, ardura «h» bat ezartzen ginuen. Akerra, okerra, ikus, kartsu, apeza, apoa, eka-ri, kuia, biperra, eperra, boketa eta holako frango, denak «h» alfer batekin... «T» batzuen ondolik ere berdín, hala nola «bethi» idazten ginuen «h» bat sartuz. «Ethorri» ere ba. Hots, egia da, «h»-ez itoak ginen! Uda huntan baserri askotan uliz itoak izan diren bezala!

Irakurtzen baduzue Léon Léon apezak plazaratu Ebanjelioa, euskaraz agertua 1946-an, ohartuko zirezte «ch» eta «h» horietarik badela orgataraka, «apez batek benedikahala» erranen zuen Hazparnen kokatua zen amikuztar batek! «Apeza» ere «h» horrekin. Horiek hola haatik behin nor baitek hauxe erran zaitan, «h» horietarik andana baten kentzerat ari ginelarik. «Zuek Hazparneko aldean, “h” hori behar zikuneke halere atxiki hitz batzuentzat segurik, ezen idazten duzue, hori bat da, bainan ahozkatzen ere duzue. Ez duzue erraiten apeza bain ap-Heza. H hori entzun-araziz garbiki». Oharpen bera egin zaitan «apaindu» hitzarentzat. Erraiten ginuela «ap-Haindu». Hori hola erranez, gauzak emendatuz ari zen, ez baigira behinere hola mintzatu, ez arras hola zernahi gisaz, bainan dugun aitor bazela halere holako zerbaít. Bestalde, «hainitz» idazten ginuen bainan «h» hori adiaraziz ahozkatzen ere. Denen buru, «h» ainitz kendu ginuen, «hainitz» horrena barne, eta jestu gutiz azkenean. Bainan ez ahantz halere duela mende erdiño bat Piarres Lafitte zenak berak ere «urthe on» idazten zuela oraino, «urte» hitz hortan «h» bat sartuz aioski... Beste oharpen bat haatik gai bera gogoan. Erran dut laster eta aise plantatu ginela «ch» uzteari. Araberan hein bat zailago izan zen «h» hizkiarekin. Segur, «h» horren kentzea «p» eta «k» konsonanteen ondolik, hori erretxa ginaukan. «H» begiratzea hitzen lehen hizkia zelarik, harria, hautsa, hezurra, eta hoako, hori ere egoki zitzaukun. Hautuaren egitea nekeago aldiz «h» hori hitz baten barnean zelarik eta bereziki bi bokalen artean. Adibidez, «erho», «erhi», «urhe», «ahur» eta holako hiz batzutan. Gainerat, Piarres Lafitte-k uzten gintuen gure gusurat idazterat hitz horiek. Bai, badakit, Elhuyarrek plazaratu hiztegia, 1993-an, bai eta Elkarrek 1997-an agertu zuenean, «h» horiek kenduak dira —hor, artetik erraiteko hogoita hamar bat urte ja iraganak Baionako eta Arantzazuko bilkuren ondolik— bainan aitortzen dauzuet, barkatu otoi, oraino ere nik lanak ditudala «urhe» edo «erhi» hitzak «h» hori gabe idazten. Beharbada fidatu behar nuke denboran norbaitek eman zaitan aholkuari: «Ez balinbadakizu nola idatz “erho”, idatzazu zentzugabe, berdín da. Eta “urhe” ez balin badakizu nola idatz, idatz-azu “zilar”, urhea eta zilarra berdintsuak dira». Oro har alta, holako ateraldi xeble batzuk ez gituzte biziki argitzen...

Aipatu ditudan aldaketa horiek ez dira hastapen bat baizik izan. Geroztik izan da beste frango bainan daukat lehen urrats horiek guziz baliosak izan zirela, berenaz baliosak ez da dudarik, bainan ere lagundu baigituzte, eta ez guti, ondolik jiten ahal

ziren aldaketa guzien aiseago hartzen eta onartzen. Aldaketa horiek jin dituen abiadura handiko treinen hixtu berean edo ttuku-ttuku ttaka-ttaka denbora hartuz eta arraposki, batzu presatuak beraz eta besteak ez...

Idazkera berdinduz, urrats handia egin dela, hori izan da eta dago idekidura handi bat. Euskararen egoera eta euskararen geroa ez ditugu geroztik berdin ikusten. Beste begi batzu bagintu bezala eta hori biziki baikor zait gaurko egunean. Ikusteko da hiztegia ere nola aldatu den, nola aberastu, prentsan segur, hedabide mota guzietan bai eta egun guzietako solasetan, beti aldatzen ari eta beti aberasten, duela berrogoita hamar bat urte abiatu sail horri esker. Hori egin da eskolaren bitartez, bereziki ikastolen eraginez, baina hedabide guziek, bakoitxak bere heinean, badute aitzina-mendu hortan beren eragina. Ainitz emendatu dena euskal irratien sarea hedatzearekin bai eta Euskal Telebistari esker. Ainitz emendatu gure arteko harremanak emendatzearekin. Iparraldean, mintza gaiten garbiki, ainitz hitz baditugu hegoaldeetik sartuak, kirol, ariketa, aurkezpen, azterketa eta holako, Gexan Alfarok goiz huntako bere hitzaldian azpimarratu duen bezala. Eta beste funts bat badukegu, ildo beretik, hitz berrien asmatzeko.

Nolako bidea egin den, bereziki azken berrogoita hamar urte horietan, hori ez da ene konduko gaia bainan hitz berrien asmatzeaz nahi nuzke zombait oharpen egin. Nola egiten zen lehen Iparraldean eta nola egiten den orai. Lehen, duela berrogoita hamar urte eta gehiago, bi molde baziren. Frantses hitz bat hartzen ginuen, edo zen bezala, uste dut orai ingles hitz batzu hola sartzen direla frantsesean, ingleskeria horiek ez badira ere denen gustukoak, edo bestenaz, bigarren moldean, frantses hitzari euskal itxuraño bat emaiten zitzaion. Adibidez, kirol hitza ez ginuelarik erabiltzen eta orai hor dugu, ederki baliagarri dena, bainan hitz hori ez ginueno, nola egiten ginuen? «Sport» frantses hitzetik ari ginen. Batzuk zioten «sport», «sporra» nolazpait, frantses bezala-bezala, «Gizon horrek sporra egiten du». Ez ginen haatik atrebitzen «sporra» idazterat. Beste batzuri iduritzen nolazpait aise euskaldunago zitakeela nahitez «esporra» erranez. Adibidez hau ere: Hazparnen bazen hitz bat noiz nahi erabiltzen zena, bereziki zapeta lantegiak bazirelarik. Hitz hori «kintsena» «quinzaine» frantses hitzetik hartua. Bainan euskal-usain poxi bat emanen. Hori zen hilabetearen erditsutan –15-a irian– zapatain langilek altxatzen zutena, hilabetearen azkena igurikatu gabe. Gaineratikoa hilabete ondarrean... Orai hitza galdua da, aipatu dut bakarrik erraiteko hitzak nola asmatzen ahal ziren. Hitz hori galdua, beste frango ere galdu dira, ez baitugu heien beharrik. Gutik dakite orai baserriko etxetan zer ginuen samatza... Baserriko etxeen aitzinean edo sahetsean hedatzen zena, ardua iratzea, batzutan otea, euriarekin urez asetzen zena, abereak eta jendea handik iraganez tinkatua izaiten zena, gero ongarrirako baliatzen... Denetan kendua aspaldian, gauza zikina zela, jendearen osasunarentzat ere kaltetor izaiten ahal... Nola ez den beraz gehiago samatsik, hitza bera ere galdu da, ez arras galdu, nik egun erabiltzen baitut zuen aitzinean, eta galduxe bada ere Euskaltzaindiak ez du hobenetik. Eta ez euskara batuak ere!

Aldiz, eta jo aitzina, Euskaltzaindiak lan baliosa derama hitz berriak behar direlarik sartu, ahal bezen egokiak...

## AZKEN HITZA

Azken hitz bat erran behar eta haxe izanen da. Euskara batua gero eta gehiago sartuko da, sartu behar ere baitu, bainan oroit gaiten euskalkiak ere gure ondarearen lore batzu direla. Ainiztasun soberakina ote? Ainiztasun aberatsgarria ere ditake ene gustuko segurik.

Behin, norbaitek galdetu daut zonbat euskalki badiren. Badakizue zer iharde-tsi diotan? Igual zait nehor ez bada ados ene erranarekin bainan ene ikusmoldea zoin den erraiten ahal dut. Bada euskaradun bezenbat euskalki. Eta gauza bera erran nezake frantsesarentzat. Bakoitxak badu bere mintza-moldea. Bi lagun hor dira biek beren ustez euskara bera mintzo dute. Bainan batek hitz batzu erabiliko ditu besteak kasik arrotzak dauzkanak. Gauza bera eran nezake erlisioneentzat. Zonbat erlisione dira munduan? Bospasei izen heldu dira berehala gogorat. Bainan har ditzagun girixtino edo krixtauak adibidez. Bakoitxak bere fedeari emaiten dio bere gisako berezitasun bat. Lehentasuna holako edo halako ponduari. Mintzarentzat berdin. Nik hemen orai mintzo dutan euskara ez da euskara batua. Zoin euskalki da? Nihaturen ustez enea eta ez beste nehorena. Halere denek ulertzen dukezuen.

Ixtorio ttipi bat joanden egunean gertatua. Baserri batean nintzen batez. Hango norbaitek galdera hau egin daut: «Joan den astean, ikusi zinun Jose?». Eta nik iharde-tsi: «Ez, ez nun ikusi». Bai «ikusi zinun» eta «ez nun ikusi». Hola mintzatu gira. Ni ere jarri ene heinean hango euskarari. Holakoetan agertzen da goraxago aipu nuen ainiztasuna. Bainan gisa batez aberatsgarri zautan ainiztasun horrek hobeki erakusten baizik ez du badugula bestalde, eta atsulutuki, harreman asko eta askorentzat, euskaldun guzian arteko harremanak aitzina emendatzeko; euskara batuaren beharra.

Denek bat egin dezagun beraz ikusmolde desberdin guzian gainetik ere, hori da hori helburu guziz premiatsua euskara bizi dadien eta azkar bizi, hori baita euskaldun egiten gaituen ontasun paregabea.

# IPARRALDE ETA ARANTZAZUREN ARTEKO HARA-HONAKOAK (1648,1851-2006)

Joseba Intxausti  
Euskaltzain ohorezkoa

Ondoren datozen orrialde hauetan euskal Hego-Iparraldean arteko kultur aha-  
leginen oroimena osatuz joateko zenbait datu bildu nahi dut<sup>1</sup>. Izan ere, era eta une  
ezberdinetan egon da bi Aldeon arteko topagunerik.

Aspaldidanik Iparraldeko herritarrek gogo-bihotzetan zuten Arantzazuko An-  
dre Mariaganako jaiera, urteroko erromesaldiak usadio izateraino. Nabaria eta eza-  
guna zen hori XVII. mendeaz geroztik, gutxienez.

Lapurdiko arrantzaleen Ternuarako joan-etorriek eskatu ohi zuten eguraldi-se-  
gurtasun neurrietako bat zen urteroko bi peleginazioena, Errogatibak baino zerbait  
pertsonalago ziren erromes-ibilera haiek: itsasoratu aurretik emakumezkoek egin ohi  
zutena, bata; eta itzultzean, gizonezkoek egin ohi zuten esker oneko Santutegirako  
ibilaldia, bigarrena. Garaiko historialariek ere utzi zuten horien albisterik (Gama-  
rra, 1648)<sup>2</sup>.

Eta ez da gutxiago Frantziako Erreinukoek (Arantzazurekiko) duten jaiera,  
izan ere lur-lehorrean barrena hogeitasei legoatarra dauden eskualdeetatik erromes-jen-  
detza baitator urtero Arantzazura, gizon eta emakume [...]. Eta handia da erro-  
mes datorren jendetza, eta inoiz baita bi mila eta gehiagokoa ere.

Ez gaitu horrek gehiegi harritu behar. Pirinioetako mendi, ibai, baso eta larreek  
ekonomia eta bizimodu propioak izan dituzte urtetatik biziera zibil eta erlijiosoan,  
han-hemengo bailara eta herrietan isurialde batetik eta bestetik zetozenak.

Pirinioek beren bide eta bidezidorrak izan dituzte gogoko ziren ibileretarako,  
artaldeak zaintzeko bezalatsu erlijiotasunari bide emateko. Gizarte tradizionalak ero-

---

<sup>1</sup> 2018ko irailaren 13an Euskaltzaindiaren Baionako mintzaldi egitarauko hitzaldia da hona da-  
kardan idazki hau.

<sup>2</sup> Gamarra, G., 1966, *La más antigua historia de Aránzazu (1648)*. Vitoria. (Villasanteren edizioa).  
80. zenb. «Y no es menos la devoción, que los del Reino de Francia, pues de más de veinte leguas de  
la tierra adentro viene todos los años muchísima gente en romería así hombres como mugeres, [...].  
Y suelen ser los concursos de mucha gente, que tal vez se han visto más de dos mil personas juntas de  
Francia».



sotasun, komenentzia eta premien arabera zeharkatu izan dituzte Pirinioak<sup>3</sup>. Bereziki begiratzekoa da Arantzazuko Santutegi eta Probintzia frantziskotarra nola saiatu diren elkarlanean Euskal Herria osorik aintzakotzat hartzen.

Hemeretzigarren mendean, adibidez, Pirinioetako muga-mugaldeak babes-toki izan ziren fraide esklaustratuentzat (kaputxinoak Uztaiz eta Baionan), eta hogeigarrenean, frankismotik irtenez, *Jakin* talde anitzak Iparraldean Donapaleuko Komentu frantziskotarrean aurkitu zuen biltokia ez ezik kultur taldearentzat pentsamendua erosotasun libreagoz lantzeko aukera, bereziki 1960 hamarkadan. Aldi bertsuan, Iparraldeko kostaldean, Baionan ere, egon zen antzeko batzarlekurik Hegoaldeko euskaltzaleentzat, Piarres Xarritonek, gerora euskaltzain izango zenak ardurapean zuen Eliz Erretore-etxean. Hegoaldeko fraide euskaldun erbesteratuek Etxe barnean nahiz inguruetan lan egin ahal izan zuten<sup>4</sup>.

Eta gogora dezagun Ipar-Hegoaldeetako Eskeko Fraideen sorrera (fraide eta moja) eta zein garaiz abiatu zen, XIII. mendetik bertatik hasita Iparraldean Baionako fraideekin (1242) eta hiri bereko klaratarrekin (1296). Hegoaldeko Nafarroan, mende berean daude fraideak Iruñean (beharbada 1220 inguruan, edo lehentxeago?), eta era berean Erreinu horretako hiri nagusietan: Erriberri (a. 1243), Zangoza (1250), Lizarra (1265) eta Tuteran (1266). Mende berean Araban ditugu fraideak, Gasteizen (a. 1236).

Emakumezkoen artean, klaratarrak izan daitezke aipagarrienetakoak (Sta. Klara, 1193-1253), izandako garapen eta hedapen handiengatik, eta Euskal Herrian xx. mendearen azkenetan 28 monasteriotaraino iritsi zirenak.

Hain zuzen, Italiatik kanpoko klaratarren lehenengoa Iruñekoa izan zen (a. 1228) eta Iparraldeko lehenengoa Baionakoa (1296); 1804az gerotik lekuz aldatuta Iruñeko hura Erriberri dago orain. Hemen pasaeran aipatzen ditudan klaratar hauek etenik gabe ehunka izan dira beti Euskal Herrian.

<sup>3</sup> Ikus Lefebvre, Th., 1933, *Les modes de vie dans les Pyrénées atlantiques orientales*. Paris: Armand Colin. 285-288. Pirinioei buruzko albistegi orokor eroso du irakurleak ondoko argitalpen honetan: Lévy, A. (zuz.), 1999, *Le dictionnaire des Pyrénées*. Toulouse: Privat.

<sup>4</sup> Jakina da beste Ordena edo Kongregazio Ertlijioek ere, abagune historiko ezberdinetan, bi Euskal Aldeak elkarri laguntzen ageri zaizkigula, krisi politiko-kongregazionistek halakorik eskatu zutenean, adibidez Hegoaldeko Esklaustrozioetik ihesi, Frantziako Herrialdean babeslekurik moldatu behar izan zenean (1840...). Hala nola, Jesulagunek Landetako Departamentuan, Poyane-n: ik. Revuelta González, M., 1984, *La Compañía de Jesús en la España Contemporánea*. Bilbao: Mensajero. I, 264-273. Karmeldarrek: Urkiza, J., 2005, «Entre San Juan de Luz y Markina», in: Urkiza, J., 2005, *Provincia carmelitana de San Joaquín de Navarra. Carmelitas en Euskal Herria (siglos XIII-XX)*. Vitoria-Gasteiz: Ediciones El Carmen. 235-243. Beneditarrek: Iparraldean Beloke eta Hegoaldean Lazkao, Estibaliz edo Ziortzako Monasterio beneditartu berria: Darricau, I., 1963, *L'Abbaye de Belloc. 1875-1955*. Belloc: Edions Ezkila; Darricau, I., 1963, *Le Père Augustin Bastres. Fondateur de Belloc. 1832-1904*. Belok Editions Ezkila. Frantziskotarrek: Sagüés, P., 1960, *El Padre José Areso, OFM. Misionero y restaurador*. Madrid: Editorial Cisneros. 173, 193. Dedieu, H., 1988, *Les Franciscains à Saint-Palais. Cinquantenaire de la réouverture du Couvent (1938-1988)*. Toulouse/Limoges. Intxausti, J., 2002. «Donapaleu. San Frantzisko komentua (1851-1880, 1886-1903, 1938-[2006])», in: Intxausti, J., 2002, *Gure herriko frantziskotarrak*. Arantzazu: EFA. 116-130. Oro har, alderantziz Iparraldetik Hegoaldera, ondoko data ezberdinetan beste hainbat Kongregaziok ihes egin behar izan zuen, lege zibil frantsesek horretara behartuta (1791, 1880, 1980, 1905).

Klaratarren presentzia indartu baizik ez zen egin hurrengo belaunaldietan: Gasteiz, (a. 1247), Tuter (1261), Lizarra (1262), Urduña (p. 1296), Begoña (p. 1366), Gernika (1422), Durango (1439) eta abar. xx. mendean, klaratar eta sorkundetararak besterik gabe 37 monasterio izateraino<sup>5</sup>. xviii. mende betean bere sabaia jo zuen garapen horrek: 1791-1797etan 608 moja zeuden Hegoaldean, baina Iparraldeko Iraultzak emakumezkoen monasterio guztiak itxi bazituen ere, Hegoaldean garai gordinean ere beren bizitza eramaten segitu zuten.

1880 eta 1900eko hamarkaden artean astinaldi bortitzak ekarri zituen Iparraldean ezarritako politika erlijioso frantsesak, eta anitz ipartar eta frantsesek aurkitu zuen aterpea mugaldea pasatuta. Bereziki adierazkorra gertatu zen Ordena eta Kongregazioekiko eraso politikoa mendearen lehen zenbait urtetan (1905-1914), eta Frantziatik nahiz euskal Iparraldetik Penintsularako bidea hartu zuen multzorik handienak euskal Hegoaldera bildu ziren<sup>6</sup>.

## I. GERRAONDO MURRIZTU EMANKORREAN

Hego-Iparraldean arteko harremanetan Espainiako Gerra Zibilak (1936-1939) eta Bigarren Mundu Gerlak (1939-1945) bertatik bertarako eragina izan zuten Euskalgintzan, euskararen kultura eskolatuari ere bidea mozten zitzaioela; hogeitaz hamar urte behar izan zuten belaunaldi berri gazteak euskara eskolatuaren langintzari bide emateko.

Euskalgintzako zereginetan 1956a urte mugarri gisa aurkeztu izan da<sup>7</sup>: lankideak hainbat Ikastegitatik zetozelako, beren Seminariotan barneko aldizkariak ere sortzen zirela (*Gure Izarra*, 1950; *Jakin*, 1956; *Laiaketan*, 1959; *Arnas*, 1959; *Erein*, 1960; *Gogoz*, 1965). 454 idazlek hartu zuen parte aldizkari hauetan, eta 10.642 idazlan eman ziren argitarara<sup>8</sup>.

Indar biltzaile nabariak *Jakin* aldizkaria eta taldea izan ziren (1956), Arantzazun eta Arantzazutik urte hartantxe abiaraziak (beste Ordena eta Kongregazioen Seminario ezberdinetako ikasleek parte hartzen zutela); bertako ikasle ekielek orduan elkartu zituzten han-hemengo Seminariotako idazle gazteak<sup>9</sup>.

Orduan sortutako harremanetan apenas ageri den Iparraldeko lankiderik, salbuespen nabari batekin, geroago kultur gidari estimatua bilakatuko zen Manex Erdozaintzi-Etxart-ekin (1957), artean Paris aldean ikasketak burutzen ari zela<sup>10</sup>. Hego-Iparraldean arteko harreman berrien hastapena gertatu zen berori, ondoko harremanetarako ataurrea alegia.

<sup>5</sup> Intxausti, J. 2004, «Frantziskotarren Euskal Herriko historia (c. 1229-2000)», in: Intxausti, J. (zuz.), 2004, *Euskal Herriko Erlijiosoen Historia. Lehenengo Kongresuko Aktak*. Arantzazu: Edizio Frantziskotarrak. 370.

<sup>6</sup> Intxausti, J., 2015, «Historia de la Vida Religiosa en Euskal Herria», in: Hainbaten artean, 2015, *Pasado, presente y futuro de la Vida Religiosa en Euskal Herria*. Gasteiz-Vitoria. 70.

<sup>7</sup> *Jakin*, 1981, 35-48.

<sup>8</sup> [Iztueta, P.], 1981, «Eliz ikastetxeetako aldizkariak», in: *Jakin*. 1981, 21. zenb., 60-61.

<sup>9</sup> Ik. *Jakin*, 21. zenb, 1981, 19-71.

<sup>10</sup> Erdozaintzi-Etxart, M., 1957, «Edouard Herriok», in *Jakin*, 1957, 3. zenb.,97-106.

Ondoren, are garrantzizkoagoa izan zen harremanen alor honetan, Donapaleuko komentu frantziskotarraren barne izaeraren aldaketa, lanbide erlijioso eta kulturallean, 1960. hamarkadan.

II. Mundu Gerratearen ondoren deskolonizazioa etorri zen (1945-1965), bere gerra-modu ezberdinekin. Adibidez, Frantziak kolonizatutako Aljeriari (1830...) deskolonizazio ordua heldu zitzaionean (1954-1962). Gatazka armatu hark nahitaez eman zuen Euskal Iparaldean ere zer pentsa.


Ez zen gertatu hura Estatu-Administrazioaren arazo bakarrik, Euskal Iparaldeko gizarteak bere soldaduekin heldu behar izan baitzion gatazkari, urtez urte Iparaldeko gazteak ere armetara deituta. Gerra ez ezik gerra zikina ere ezagutzeko parada izan zuten gure gazte batzuek.

Bestalde, Eliza Katoliko Erromatarrak bere baitan urte modu haietan garaturiko herrien eskubideen doktrina gogoratu behar da hemen. Hasteko, Joan XXIII.aren *Pacem in Terris* Entziklika (1963), Vatikanoko II.aren *Gaudium et spes* eta Paulo VI.aren *Populorum Progressio* (1967). Egun Interneten dauzkagu agiri horiek.

Garaiko liburu maisuetatik heldu zen gure artera anticolonialismoarena ere, eta A. Memmi-ren *Kolonizatuaren Ezagugarria* itzuli zuen Larresorok (*Jakin*, 1974). F. Fanon (1925-1961), A. Césaire (1931-2008) edo A. Memmi (1920-...) behintzat gurean egon ziren orduan, bertako editorial lanari esker nahiz atzerrietako unibertsi-tateetatik jasota (Münster, Kolonia, Leuven/Louvain, Paris, Erroma eta beste).

Idea berritze honek bere eragile eta sustatzaileak izan zituen Akitaniako Probintzia frantziskotarrean, fraide frantsesetan bezala euskotarren artean ere. Erdozaintzi-Etxart gertatu zen euskal kulturgintzarako zubirik erosoenetakoa euskal anticolonialismo kristauaren baitan; hasteko, jada 1950eko hamarkadan, Ordenaren barruan eta laster Akitaniako Nagusi Probintzial izatera heldu zelarik (1978-1984).

Horrek guztiak sortu zuen gogoetaren emaitza Akitaniako frantziskotarren aldizkari ongi landu batean dago emana (Bordele, 1959-1973: *Frères du Monde*). Ez zen, noski, J. P. Sartre (1905-1980) aitzindariaren ordu berekoa; baina bai «jakindarrontzat» deskolonizazioarekiko pentsaera kritikoa argi berri batez aurkeztu zuena.



Artxibo-paperetan, *Zabalik*-eko albistegi kronologikoan ikus daiteke nortzuk eta zertaz mintzatu ziren, ondoko urteetan Donapaleun (1985-2000)<sup>11</sup>. Begiratzekoa da komenigarri ikusi zenean, zeintzuk izan ziren euskaraz emateko gaiak: bat behintzat «Errefuxiatu euskaldunak» (Ch. Etxalus, 1987), edo frantsesez azaldutako gaien artean zeuden garaiko aztergai «biziak»: biolentzia-eza (1988), laizitatea (1993), juduen 1492ko irazpena (1992), ekumenismoa (1991-1993), armadarekiko intsumisioa (1992), Ebanjelioa eta San Frantzisko (B. Duclos, 1993), ekumenismoa behin eta berriz (1991-1994) eta abar. Hain zuzen, B. Duclos izan zen (1917-1995), jatorriz frantsesa izanik, Donapaleuko Komentutik euskal «arazoari» irekitasunez begiratu ziotenetako bat<sup>12</sup>.

Arantzazu-Donapaleu arteko harremanak ere Euskal Herria egunekotasun bi-ziago batean pentsatzeko balio izan zuen, betiere han frankismoaren loturetatik libregao ginela edo, Vatikanon II.aren irizpideetara gentozela (1963-1965).

Arantzazu eta Donapaleu Ordena frantziskotar berekoak izanik ere, ez ziren Probintzia Erlijioso berekoak, eta biek, bere barrutiarekin batera, pertsonal eta agintari ezberdin propioak zituzten eta apenas zegoen elkarren arteko gobernu-egitasmo baturik. Horrela, nahitaezkoa zen zenbait elkar-lan abiarazteko arrazo berriak aurkitu eta borondate egokiak sortzea, Ordenako barruti juridiko zurrunen gainetik (Akitania/ Kantabria<sup>13</sup>).

Eta bistan da gure euskal alorrean zereginak hautatu, antolatu eta burutuz joateko premia zkoa zen horretarako borondatea ez ezik bizikidetzara, eliz egitekoak, pas-toralak eta orokorrean inkulturazioa landuz joateko gaitasuna (adibidez, Komentuetan eta berorien barrutietan erlijiosoen biziera eta zereginari zegokien euskararen aitopena eta praxia emanda).

Nola sortu hori Akitaniako Probintzia berean frantsesa ez eze okzitaniera nagusi zirenean?<sup>14</sup> Iparraldeko euskal eremuko Akitaniako Probintzia Erlijioso bere kideetan ia erabat neolatinoa zen, euskararekiko arrotza, erdalduna, borondate ona izanik ere zinezko euskal inkulturazio eginkizuna eramateko gaitasun praktikoa eskasekoa.

Horri gaina hartzeko, zer itxaron zitekeen euskalgintzan Ipar-Hegoaldean arteko elkarlanetik? Posible ote zen, gero, halakorik? Hasteko, bi Aldeek nazioarteko

<sup>11</sup> Donapaleuko Artxiboa: Artxibo I, 10/10. eta 10/11.

<sup>12</sup> Guinle-Lorinet, S., 2006, «Un temps pour la guerre et un temps pour la paix. Itinéraire franciscain de la seconde moitié du xx<sup>e</sup> siècle: Bertrand Duclos (1917-1995)», in: *Annales du Midi*, 2006, 118.

<sup>13</sup> Aro Garaikidean, Penintsulako frantziskotarren<sup>ofm</sup> Hego Euskal Herria *Kantabria* edo *Arantzazu* deituriko Probintzian egon da (1551-1840; 1886...) eta, bestetik, Nafarroako komentuar barruti-al-daketan epe kantabriar bat izanda ere (1567-1602), ondoren Burgosko Probintzia erlijiosoan geratzen zirela. Ik. Uribe, A., 1996, *La Provincia franciscana de Cantabria. II. Su constitución y desarrollo*. Arantzazu: Editorial Franciscana. 36-46, 75-89, 95.

<sup>14</sup> Akitania frantziskotarra eraikita zegoen juridikoki 1274az geroztik, baina ondoko eraketa eta antolaera berriak gogoan iza behar dira. Brun, A., 1973 [1923], *Recherches historiques sur l'introduction du français dans les Provinces du Midi*. Genève: Slatkine Reprints. Rey, A., Duval, F., Siouffi, 2007, *Mille ans de la langue française*. Paris: Perrin («Le français: unité et variété», 10031. or.).

kulturetara bi ate-leiho ezberdinak zituzten, kanpoko begira-puntu ezberdin eta agian kontrajarriak eskaintzen zituztenak (gaztelania eta frantsesa).

## 2. BI ALDEEN ARTEKO EUSKAL HURBILPENAK

Eta euskara eta euskal kultura bi Aldeetako eskualdeetan bizi izan dira. Era berean, euskara idatziaren historia ere bi Aldeetan garatu izan da, bata bestearen jarraian, aro bakoitzeko lanek beren ezaugarriak zituztela. Eta ez dira falta izan Alde batetik bestera heldu eta hedatu direnak: Axularren *Gerok* bere bizkaierazko itzulpena izan zuen (Añibarro, c. 1820) eta Saran sortutako testu horrek Hegoaldean izan ditu argitaraldi gehienak (Zarautz, 1954; Bartzelona, 1964; Arantzazu, 1976). Esate baterako.

Erakunde-mailan badago gogoan hartzeko batasun-datu berri bat ere, Euskal bi Aldeak iraunkorki lotu dituen. Azken hamarkadetan, Erromak hala eskatuta, euskal diozesiek liturgiako itzulpenak adituen Batzorde bakarrean egin behar izan dituzte Euskal Herri osorako, nahiz eta Iparraldean eta Bizkaian testu egokitu hurbilagoak moldatu ere egin diren.

Ahozko munduan, bertsolariek Ipar-Hegoaldean artean joan-etorri bizkorreko historia izan dute Aro Garaikidean batetik bestera, eta azken mende-erdian eskola-gintzak bezala irratiek eta argitalpenek laguntzak eta irtenbideak aurkitu dituzte harreman horietarako (1960...).

## 3. ARANTZAZUREN IPARRALDEKOTASUN BERRIAK (1851-2006)

Bidasoako mugatik aski urrun egon arren, Arantzazuko Santutegiak Iparraldeko erromesak izan zituen lehen mendeetan, bertako historialariek aditzera eman ohi zuten, eta Lizarralde ere jaso zuenaren arabera (1950); badu bestaldeko «Arantzazu» horrek Iparraldean izkiribaturiko monografia argitaratua ere, hain zuzen Arantzazuko Andre Mariaren Ainhoako kaperari buruz ari dena<sup>15</sup>.

Jakina denez, Erregimen Zaharrea bereziki eta Aro Garaikidean ere, Elizak eta beronen Ordena Erlijosok barruti zibilen muga eta geografiara moldatuz joan dira, eta horrek ez zuen batere lagundu Erlijosoen «Euskal Herri Erlijioso» osoa eta bakarra egiten (euskal lurraldea Euskal Herri osoko Ordena-Kongregazioen Probintziantan emanda, alegia).

Iparraldean Iraultzako haizeek (1789...) eta aldi aldiko politika kongregazionistek beren astinduak ekarri zituzten (1880, 1905). Bestalde, Euskal Hegoaldeko Ordenekikoa, lehendik ere Koroak «erreformatu» nahi izan zuena (1768), gorabehera anitzen ondoren, 1830 hamarkadan fraideen Esklaustrazio

---

<sup>15</sup> Lizarralde, J. A., 1950, *Historia de la Virgen y del Santuario de Aránzazu*. Arantzazu: Editorial Aránzazu. 36. Gamarra, G., 1966, *La más antigua historia de Aránzazu (1648)*. Vitoria: Scriptorium Victoriense, 12, 1965, 74-173. (Villasante-ren edizioa. 83. zenb.). Olhagaray, J., 1933, *Arantzeko Ama Birgiña eta Ainboako Kaperari*. Bayonne: Imprimerie de la Presse.

orokorrek burutu zuen Liberalismoak Espainian, eta horren barruan Euskal Herrian (1836-1840)<sup>16</sup>; baina ez erlijiosoen aldetik kontrako erresistentziarik gabe, izanberrikuntzari heltzen zitzaiola (esateko, Aita Mariano Estarta, 1804-1878. *Restauración*).

Esklaustrazio ostean errealitate berria lehen Komentuei *status* juridiko aitortua eman zitzaizenean etorri zen: Bermeoko Komentu frantziskotarraren kasua (1859). Eta ondoko urteetan ekimen berriekin hainbat Ordena zaharretakoetan ere (jesulagunak, karmeldarrak eta abar).

Espainiako erregimen politikoak Cánovasekin hartu zuen norabide berria, Erreinuko Konstituzioa aldatu eta Ordena zahar eta berriekiko jokabide politiko-administratiboa molde berrituan ezarrita, azken karlistadaren ondotik (1876 ...)<sup>17</sup>.

Baina gatozen berriro Iparraldera. Hegoaldeko Esklaustrazio ondoko lehen garaian, Iparraldeko Uztaritz-Baionetan ireki ziren Hegoaldeko kaputxinoen egoitza eta komentua (1841, 1852); bestalde, Donapaleun ireki zen lehen komentu frantziskotar izanberritua<sup>18</sup>, hurrengo hamarkadetan hainbat gorabeherarekin bereari zutik eutsi ziona (1851-2006), eta emaitza emankorrek izan zituen<sup>19</sup>. Tamalgarria gertatu zen Obieta eta Izagirreraren idazkiak (biak ere Donapaleuko fraide ardatzak) nola erre ziren istripu batean.

Donapaleuko Komentu Fundazioa erabaki xedagarria eta kalkulatu izan zen, arrazoi ezberdinengatik. Hasteko, lehenengo komentua zeregin pastoraletan (1851) euskara ongi gogoan eduki zelako. Bestalde, Areso frantziskotar nafar erdal-dun elebakarra izanik (Bigüezal/Biotzarin jaioa), garai bateko Zarauzko misiolarietako bi lankide euskaldun Italiatik erakartzeaz arduratu zelako, Iparraldean misio eta prediku-lanari euskaraz ekin ziezaioten.

Hasiera hartatik berehala, argitalpen pastoraletan euskarazkoak ere nahitaezko eginbehar gertatu ziren. Adibidez, 1862an kaleratu zen Baionan Hirugarrendarrentzako Aresoren baimena zeraman euskarazko esku-liburu bat: *Tierceren escu-liburua*.

Leon XIIIak sustaturiko mugimendu laiko frantziskotarrak, Hegoaldean bezala Iparraldean ere, aro berria hasi zuen Eliza katolikoan (1883), hainbat herri euskaldunetan Hirugarrendarren Anaiarteak atontzen zirela.

Ekintzaile berrien artean, gogora ditzagun lehendik zetozen bi izen bederen: Aita Joan Obieta (Gernika 1788 - Donapaleu 1857) eta Jose Lorentzo Izagirre

<sup>16</sup> Revuelta, M., 1976, *La Exclaustración (1833-1840)*. Madrid: Editorial Católica. Ik. Intxausti, J., 2015, *Historia de la Vida Religiosa en Euskal Herria*. Vitoria-Gasteiz: Editorial Frontera.

<sup>17</sup> Horien antzeko xehetasun orokorretarako irakurleak eroso izan dezake ondoko argitalpena: Intxausti, J., 1915, «Historia de la Vida Religiosa en Euskal Herria». in: *Pasado, presente y futuro de la Vida Religiosa en Euskal Herria*. Vitoria-Gasteiz: Editorial Frontera. 121-225.

<sup>18</sup> Sagüés, P., 1960, *El Padre José Areso. Misionero y restaurador (1797-1878)*. Madrid: Editorial Cisneros. Intxausti, J., 2002. «Donapaleu: San Frantzisko komentua (1851-1880, 1886-1903, 1838-2006)», in: Intxausti, J., 2002, *Gure herriko frantziskotarrak. Herrietako historia garaikidea*. Arantzazu: Edizio Frantziskotarrak. 117-130.

<sup>19</sup> [Dedieu, H.], 1988, *Les franciscains à Saint-Palais. Cinquantenaire de la réouverture du Couvent (1938-1988)*. Toulouse.

(Aduna, 1793-Donapaleu, 1873). Bi hauei esker Donapaleuko komentu honen lan pastorala inguru soziolinguistikoari zegokion euskaltasunean burutu ahal izan zen, eta sinestun laikoen lagunarte euskaldunei bide eman zitzaien Iparraldean, sekula baino harago.

Frantziako erbestean, ondorengo komentu fundazioak izan zituen Donapaleu hark, eta Frantzia osoko komentu-fundazioetarako abiapuntu bilakatu zen berehala (Amiens, 1852; Limoges, 1854). Hegoaldeko zenbait erlijioso ere erakarri zuen hurrengo hamarkadetan, Akitaniako Probintzia berria izango zen horrek. Adibidez, Manuel Antonio Beobide azpeitiarra (1814-1877), Limoges-en (1860-1863) eta Donapaleun (1856-1860) Goardiano izan zen, eta predikari ona. Segur aski 1874an itzuli zen euskal Hegoaldera.

Horien eta denen artean, Iparraldean sortutako Akitaniako errealitate horren segida ez zen izan, ordea, aldarte zailik gabea, batez ere Frantziako Errepubliketik ezarritako Kongregazioekiko politika ezberdinen ondorioz (1880 eta 1905).

Donapaleuko Etxearen urteak ondoko hauek izan dira, azkenik, biziera erlijiosoan bezala aldi bereko euskalgintza herritarrean, Komentuari eta beraren inguru euskaltzaleari babesa ematen zitzaie: 1851-1880, 1886-1903, 1938-2006. Hegoaldean frankismoak bere indarrean jarraitu zuen bitartean (1937-1975), Iparraldeak gertutik begiratu zituen Hegoaldeko estatusunak, eta erraztu ere bai Hegoaldekoen bilerak eta zenbait kultur lan.

1960 ingurutik aitzina abagune berria ezagutu zuen Iparraldeak Hegoaldekoarekin kulturgintzan jarduteko: *Jakin*-ek, hain zuzen frankismopetik at babesa aurkitu baitzuen han bilerak egiteko. Piarres Xarrironen ardurapean zegoen Baionako Erretore-etxean nahiz Donapaleuko Komentu frantziskotarrean, azkeneko honen gidari M. Erdozaintzi-Etxart, Santos Beloki edo Joan Joxe Iturrioz zirela, berrogeiren bat urtean, 2002ra arte.

Bestalde, 1960ko hamarkadan hasita, eliz hizkuntzen politikarekiko ezin ahanztzia da 1965etik aurrerakoan Vatikanoren ondorioz. Bere gisara izanik ere, Eliz hizkerak batua izan behar zuen Euskal Herri osoan, hori zen euskal *corpus liturgikoari* buruzko Erromaren irizpidea. Horrek Hego-Iparraldeak hurbildu eta elkarrengana bultzatu zituen. Aipatzekoa da Diozesi-arte itzulpen batzordea, lan duina eta baturantz burutuz joan dena, patxada ona eta luzaroan norabide garbia galdu gabe Eustasio Etxezarreta idazkariak segurtatu izan duena<sup>20</sup>.

#### 4. DONAPALEUKO ZABALIK-EN ZUTABEAK

Izenez eta jitez Donapaleuko komentuak Etxe irekia izan nahi zuen, nornahirentzat zabalik eta nornahiri ateak irekiko zizkiona, euskalgintza aintzakotzat hartuz jardungo zuena, fraide eta herritar laikoen aterpea eta premian zetozenei ha-

<sup>20</sup> Etxezarreta, E., 1978, «Euskal Herriko Elizaren jokabidea euskarari buruz», in: *Euskera*, XXIV, 2. aldia, 829-862 orr.

rrera abegikorra eskainiko ziena, errefuxiatuentzako egoera zaila arinduz, esate baterako<sup>21</sup>.

#### 4.1. Donapaleuko ibilera euskaltzalea (1960-2006)

Komentuko pertsonalaren eraketa berria funtsezko erabakia izan zen 1960ko hamarkadan Etxearen zereginetan pastoral euskaratuago bati leku egiteko. Ahalegin horretan aitzina eginez, Akitaniako fraide euskaldunei eta Euskal Hegoaldetik erakar zitezkeenei eskumen gehiago eman zitzaizen.

Ongi azpimarratuta utzi behar da, Manex Erdozaintzi-Etxart-ek Ipar-Hegoaldean arteko harreman eta hurbiltasunean, pentsaeraz eta Akitanian Probintzial zelarik izan zuen eragina<sup>22</sup>.

Santos Beloki Ezkurrako semea (1936-) eta Joan Joxe Iturrioz Legorretakoa (1950-) izan dira Iparraldean bizialdirik luzeenak eman dituzten hegoaldetarrak ez eze Komentuko gidaritzan eskumena izan zutenak, Beloki Komentuko Goardiano (Nagusi) zela (1975-1984), eta Iturrioz ondoren (1984-2002). Bereziki, lan pastoralaren ondoan bertsolarien mundua sustatzen saiatu zen Santos Beloki, Mixel Lekuona apaizarekin batera (Iparraldeko *Bertsularien lagunak*).

Donapaleuko *Zabalik*-en ideariuma definitu, egitasmoa eratu eta lankideak bil-tzen saiatu zen Joan Joxe Iturrioz: *Zabalik*, etxea eta egitasmoa, jarraipen eutsiko lana izan zen, bere erro teoriko eta ondorio praktikoetan.

Eranskinetan jaso dut Donapaleuko *Zabalik* itxi aurretik Iturriozek Ordenako Ministro Jeneralari idatziriko gutuna (2005); garai hartako lekuko ona da berori (nahiz eta Erromatik ez zuen erantzunik jaso). Eranskinean ikus daiteke irakurlearentzat argigarri gerta daitekeen testu hori.

Urte haietakoa izan zen Afrikatik zetorren Giacomo Bini italiarra (Ministro Jeneral hautatua, 1997-2003), eta beraren «Garaiko zeinuetatik zeinuaren garaira» idazkia (Erroma, 2002), hain zuzen sorrera garaietako karisma frantziskotarra bizi-berritu eta eguneratu nahi zuena.

Iturriozen gutun hark, Vatikanoko II.aren ondoko ilduan, bere baitan zituen Eliza berritu baterako ahotsa eta gure euskal herriarekiko begiramen- eta leialtasun-gogoa aintzakotzat hartzen zituen. Ordenaren gobernurako eliztutasun kulturatu baten premia baieztatzen zuen, garaiko Eklesiologiak eta Euskal Herriak espresuki eskatzen zutena.

Anaiarteko bide-bilaketa teoriko eta praktiko hartan, senidetasun frantziskotarra lantzea izan zen beti lehen xedea, elkarri lagunduz betiere Anaia Goardianoa (horrela deitu izan zion San Frantziskok Nagusiari) Senitartearen sustatzaile zela.

<sup>21</sup> Bidegain, E., 2007, «[*Zabalik* Taldeak] Ateak zabalik baina etxerik ez» eta «Xantxo Iturrioz: Gure etxea Euskal Herria ezagutzeko leihoa izan zen», in: *Berria*, 2007, apirilaren 1a, I2-I3.

<sup>22</sup> Zenbaiten artean, 1995, *Manex gogoan. Donapaleuko bitzaldi eta lekukotasunak*. Baiona: Maiatz. Lasa, X., 2000, *Manex Erdozaintzi-Etxart. Bizitza eta pentsamendua*. Arantzazu. EFA. Bacho, G., 2007, *Zabalik. Le partenariat frères-laïcs au sein de la maison franciscaine de Saint Palais*. Merignac Copie-Media. Ortiz Lopetegui, A., 2010, *Manex Erdozaintzi-Etxart herriaren poeta*. Donostia: Elkar (Azurmendiren hitzaurrea du).



Donapaleuko kasuan, Komentuko bizialdi eta gidari-aldi luzeenak izan zituztenak Santos Beloki eta Joan Joxe Iturrioz izan ziren. Bi euskal Aldeen arteko harremanena hobeki ulertzeko aski adierazgarria da Iturriozen ibilera biografikoa.

Gipuzkoako Legorretan jaio zen Joan Joxe *Xantxo* (1950), eta II urterekin joan zen frantziskotarren Arantzazuko Seminariora. Aurretik, osaba bat zuen frantziskotarra, Leonardo Zelaia, musikari ezaguna, Arantzazun ikasle teologoen maisu izana, eta geroago urtetan Erroman Sepinski Ordena osoko Ministro Jeneralaren ondoko aholku-laguna. Komeni da Iturriozen bizitzako zenbait zertzelada hona ekartzea.

Joan Joxe (*Xantxo*) 1976an apaiztu zen, eta *Jakin* taldean jarraitu zuen ondoren ere, Tolosan (bi urte). Erdoizaintzi-Etxartek eta Santos Belokik sakaturik, Iparraldera joan zen 26 urterekin, Donapaleura; bizialdi luzea izango zen hura (1976-2002).

Gogoan hartzekoa da Joan Joxek nola ikusi eta eraman nahi izan duen frantziskotarren herritartasuna, eliz arduradun eta herritarrek elkarri lagunduz, noski, baina hori ez ezik lanak, erantzukizunak eta agintea elkarren artean partekatuz. Erakundea bera ere lankide guztien berdintasunaren menpe eramanez, hierarkia eta herritarrak elkarrekin zirela, denen senidetasun berdinduan, ahal izango zen heinean.

Donapaleun haurrak hartzen zituzten eguneko pentsio oso edo erdiarekin; Iparraldeko barnealdean premiazko bizileku bat segurtatzen zutela, herritar eta sendiekin harreman zainduan. Eliz eginkizunekin batera (predikua eta ospakizun liturgikoak), kulturazkoak eta sozialak ere begiratu ziren Donapaleuko Komentuan, gaueskolak, bertsolaritza, irrazi-emankizunak, hitzaldiak, liburutegia, kultur areto informatikoa bere zerbitzuekin.

Komentuaren gobernua Joan Joxeren ardurapean egon zen luzaro, betiere herritar laikoekikoari eutsiz, eta egitekoak molde berrietara zeramatzala. Ardura berriak izan zituen berehala Joan Joxek: Ekonomo (1981) eta Etxeko Nagusi edo Goardiano (1984-2002).

Akitaniako Probintzian fraide anaiak hil eta Anaiarte murrizteak molde berriko jarduerak ekarri zituen: orduan jaio zen Komentuko izen eta izan berria: *Zabalik* (1990-1993), Etxearen azken ordua arte iraungo zuena: erromesen harrera, laikoen presentzia ekile kulturala-eta zaintzeko.

Iturriozek 26 urte eman zituen bizitzen Donapaleun, eta 2002an utzi behar izan zituen Etxea eta hango egitasmoa. Azkenik, lau urte geroago desegin eta itxi zuen Akitaniako Probintzia frantziskotarrak komentu hura. Horrela amaitu zen Aita Areso nafarrak eta gainerako fraide euskaldunek (ez bakarrik) sustatu eta gidatu zuten Donapaleuko historia.

Donapaleuko *Zabalik* bertako fraideen Anaiarteak eta aldi berean herritar sekularrek sortu eta garatua izan zen: eraikin sozial eta kulturala, alegia, zerbait juridiko baino harago zihoana, Akitaniako Probintzia Erlijosioan txertatua. Horrek bere segurtasunak zituen, eta arriskuak ere: Akitania Probintziako agintariak zernahi erabaki har zezaketen, eta Donapaleuko *Zabalik* Komentua eta asmoa itxi ere bai (2006). Zerbait lehentxeago Joan Joxek *Zabalik* utzi eta Hegoaldera etorri behar izan zuen, Arantzazura.

Ordenatik at, Eliza osoaren aldakuntza orokorraren orduak izan ziren orduko Euskal Herrikoak. Gotzainetan, gogora Lorentzo Bereziartua bidaniarra (1963-1968) eta beste zenbait hurrengo gotzainen erabaki praktikoak (1965)<sup>23</sup>. Asmo pastoral berri baten aurrean geunden, oinarrietan sostengu bortitza zuena. Ordena Erlijiosoetako azalpen teoriko eta delibero praktiko arautu berriak argitara ematen ari ziren 1970 hamarkadan<sup>24</sup>.

Donapaleuko *Zabalik* ez zen izan Komunitate kontenplaria edo pastoralista hutsa, baizik eta bere egituraren gizartetik eta Elizatik etor zekizkiokkeen balio, elkarlan eta iradokizunen zaintzaile eta bateratzaile izan nahi zuen egitasmoa («Jainkoaren Herria»), eta Euskal Herrian euskaltasunetik eta frantziskotartasunaren lehen iturrietatik egunekotasunera heldu nahi zuena, lurraldeko premia eta eske erlijiosoei arretaz begiratu ziena.

Esateko, 1996ko estatistika xume batek erakuts lezake erromes santiagoarrei eskaini zitzaizen aterpeak zein nolako zerbitzua eman ohi zuen Donapaleun: topaketa egunetako 806 jatordu, doako 299 jatordu, ostatu-aldietako jatorduek 1.763; 180 gaualdi solte. Elkarte eta taldeei eskainitako bilera-aldiak 806. Iparraldeko barnealdean urtetan erraztu zuten gizarte-zerbitzuetarako erraztasunak ematen eta joan-etorrian zetozenei arreta eskaintzen. Ibiltaritasunaren hori beti izan da frantziskotarren tradizioaren parte, eta Donapaleun berezikiago.

Ohiko Komentuetatik at, biziera libreagokoak, gizarte-barruti arazotsuak (drogarena, esateko), lan-molde sozial eguneratuagoak bideratu nahi izan ziren, ohiko Komentu eta Parrokietako sakramentu-pastoral eginkizunetan ito gabe, Anaiarte bereziki hautatuak begiratzeko askatasunean nahi zuten bizi eta horrela lan egin. Dena den, ez zen hori Euskal Herrian kasu bakarra, hasteko Iparraldean bertan Domin txinen baserria hartu baitzuten Donapaleuko Anaiek, bertako nekazarien bizimodu, pentsamolde eta sentierara moldatzen zirela.

Hegoalde frantziskotarrean ere etxez etxe kasuz kasu begiratzekoak dira garaiko Anaiarte txikien historiak: Obanos (1969), Donostia-Kaialde (1970), Bilbo-Errekaldeberri (1970), Beasain-Loinatz (1972), Gernika-Lumo (1972), Karrantza (1975), Errenteria-Zamalbide (1977), Donostia-Jakin (1978), Segura (1981), Santurtzi (1990).

Eliz Parrokia Erakundearekiko aniztasun franko egon da xx. mendeko Anaiarte Txikietan:

- a) Parrokietako izaera instituzionala albora utzitakoak dira batzuk: Donapaleu, Kaialde-Donostia, Jakin-Donostia, Errekaldeberri-Bilbo, Santurtzi, Domintxine.
- b) Edo, hain juxtu, Parrokia-lanerako eratutakoak beste batzuk: Gernika, Karrantza, Beasain Segura, adibidez.

<sup>23</sup> Pagola, J. A., 1992, *Una ética para la paz. Los obispos del País Vasco. 1968-1992*. Donostia: Idatz.

<sup>24</sup> Agirrebaltzategi, P., 1976, *Configuración eclesial de las culturas. Hacia una Teología de la cultura en la perspectiva del Concilio Vaticano II*. Bilbao: Univ. de Deusto / Mensajero. Ikus Jesusen Lagundiko Kontzilio ondoko eguneratze lana: *Decretos de la Congregación General 34 de la Compañía de Jesús. 5 enero-22 marzo 1995*. Roma: Curia del Preósito General. Bilboko Mensajero Argitaletxeak kaleratua.

Frantziskotarren jatorrizko izaerak eta bizierak: XIII. mendeko hasiera hartan, komenturik gabeko bizimodu ibiltaria izan zuten, eta XX. mendeko bigarren erdian fraideek bizimolde ezberdinak eratu zituzten beren komentuetan eta haietatik kanpo.

Horretan, Euskal Herria eta euskara irabazten atera ziren, hizkuntza aldetik gure herriari kristau humanismo jatorragoz erantzun ahal izateko. Orain (2018), euskal gizarte sekularatuan, humanismo kristau eguneratuak ahots espiritual entzun-garriagoa aurkez lezake Vatikanoko II.aren ondoren, Euskal Herriaren osotasun bererako.

## I. ERANSKINA

Arantzazu, 2005-08-06

Al Hno. Ministro General de la Orden de los Hermanos Menores,  
Hno. José Carbalho, Paz y Bien!

La noticia del cierre del Convento de los Franciscanos o Maison Franciscaine de Saint-Palais/Donapaleu, también llamado «proyecto Zabalik» (vocablo vasco que significa «abierto» o «abiertamente»), me ha parecido que merecía bien esta carta. Le escribo, pues, con la confianza que me inspira su servicio a la Orden. No represento a nadie; mi contribución es simplemente personal. Quiero advertirle, antes que nada, que si alguna expresión de este comunicado fraterno sale de los bordes y no es ni adecuado ni respetuoso con las personas y situaciones citadas, se debe solamente a mi mala expresión. Cuento, pues, con su largueza de espíritu y su amabilidad.

Permítame presentarme: he vivido 26 años en esta casa franciscana, situada en el País Vasco Francés, situada a 55 km de Bayonne, a 120 km de San Sebastián-Donostia y Lourdes, y a 150 de Pamplona-Iruñea. Saint-Palais/Donapaleu es una pequeña ciudad de 2.000 habitantes, capital de un cantón de 8.000 habitantes. Región rural, bascófona, del antiguo Reino de Navarra. Este convento fue el primero de la Restauración franciscana en territorio francés el año 1851. Ello se debió a franciscanos vascos expulsados de España, y en particular al Hno. José Areso, Restaurador y primer Provincial de la Provincia de París.

El «proyecto Zabalik» de esta casa fue impulsado y propuesto a la Orden por vuestro predecesor en el servicio de la Orden, F. Giacomo Bini, en los años 1999-2002 (cfr. «Des signes des temps au temps de signe. Témoignages», 2002). Este pensó que la casa ofrecía, por su localización en zona fronteriza y su actividad prioritaria como albergue de peregrinos de los Caminos de Compostela, procedentes de toda Europa, las condiciones apropiadas para una fraternidad internacional. En respuesta a esta demanda, la Provincia Franciscana del Bx. Pacifique (París) decidió enviar cinco hermanos, dejándome fuera del proyecto, porque —oficialmente así se me dijo— podía molestar a la buena marcha de la nueva fraternidad, no internacional sino francesa. Conocemos lo que ha dado de sí esta fraternidad, y no podemos más que deplorarlo... De 5 hermanos inicialmente, no quedan más que dos, y además en conflicto con los laicos, «asociados o benévolos» de la casa desde 1993, año en el que se constituyó legalmente la asociación *Zabalik* (frailes y laicos juntos). Después de

3 años de presencia de la nueva fraternidad, el último capítulo provincial de la citada provincia, que ha tenido lugar a comienzos del mes de marzo, ha decidido el cierre y la venta del convento.

Me permito hacer las observaciones que siguen, para advertir la dirección de la Orden, sobre la manera de actuar de los Hermanos responsables del lugar y de la Provincia del Bx. Pacifique: es un escándalo y un deshonor para los hermanos predecesores, cuya presencia fue tan solidaria con el mundo rural.

- 1.º Según las informaciones que tengo, la noticia del cierre ha venido de arriba abajo, sin tratar de negociar en ningún momento con la asociación *Zabalik*, laicos «asociados» (llamémosles así). La dirección provincial no ha tratado de buscar una solución de futuro con dicha asociación *Zabalik*, que ha colaborado a la gestión y a la animación de esta casa franciscana durante 14 años, de manera discreta y eficaz, dando a la casa un valor que no tenía años antes, del punto de vista material y de la acogida de los peregrinos de los Caminos de Santiago, de las gentes errantes sin domicilio fijo, y del movimiento asociativo del lugar en que ésta implantada la casa.
- 2.º «En el mundo rural hay que vivir en solidaridad con los vecinos...». Los hermanos, que vinieron destinados a Saint-Palais no han sabido integrarse, echar raíces, en la tierra que les acogía. Llegaron a Saint-Palais con unas intenciones buenas, no dudo de ello, pero sin el talante de hombres que se ponen a la escucha de la gente del lugar y sin el espíritu de minoridad que caracteriza de manera específica el carisma franciscano. Dos comisiones habían trabajado a la elaboración del proyecto durante dos años y medio; se constituyeron verdaderos tribunales, sin duda para que el proyecto no fracasase; me echaron a mí como a un indeseado. Se presentaron en Saint-Palais como los «auténticos» franciscanos, y la prensa se hizo eco de ello. Ahora no les queda más que convocar la prensa para dar cuenta de lo que ha pasado estos tres últimos años, con dos hermanos jóvenes que han dejado la Orden, otro que fue expulsado después de 6 años de presencia en la Provincia y algunos meses solamente en Saint-Palais, y últimamente la decisión de cerrar y vender la casa.
- 3.º Los dos hermanos ahora presentes en la fraternidad, respondiendo a un cuestionario en vistas al capítulo provincial 2005, hablaban de la inconciliabilidad del proyecto de la Asociación *Zabalik* y del proyecto de la fraternidad. Sin embargo, el proyecto de la assoc. *Zabalik* era conocido por los hermanos antes de venir a Saint-Palais/Donapaleu. Y lo dieron por bueno en su día. ¿Cómo entender que durante los tres años de preparación del proyecto no hayan puesto sobre la mesa, de manera adecuada y dialogante, serena y constructiva, la remodelación del proyecto en vistas a buscar un consenso y dar satisfacción a las diferentes aspiraciones de los hermanos y de los laicos? Extraña que en dicho documento no haya ninguna autocritica por parte de los hermanos que han formado la fraternidad estos tres últimos años.

- 4.º Los frailes se van y la casa cierra sus puertas a finales de septiembre próximo, y se pone en venta. La asociación *Zabalik*, que expresa su voluntad y su deseo de continuar al servicio de los objetivos de esta casa, se ve eliminada, como «persona non grata», de cualquier posibilidad de animación y de toda perspectiva de futuro. La asociación *Zabalik* queda simplemente ignorada y excluida. Y cuando las decisiones se toman de forma autoritaria y secreta, se deja rienda suelta a los rumores. Algunos indicios los apoyan. El Sr. Alcalde estaba al corriente de las decisiones de la Provincia Franciscana y se declara comprador; tendría relaciones privilegiadas con el ecónomo provincial, quien en una de sus visitas expresó su antipatía a todo «lo vasco».
- 5.º Es esta palabra «vasco», en todas sus acepciones, la que hiere la sensibilidad jacobina de los hermanos franceses en general. Lo digo por experiencia. No se atreven siempre a decirlo de palabra y en los discursos y escritos (en esto son maestros, le ruego disculpe mi sinceridad), sino en la práctica, en el día a día de la vida concreta: «del cerebro no pasa al corazón». El compromiso de los laicos en el campo de una espiritualidad abierta y respetuosa de la diferencia, y su presencia dentro del movimiento asociativo, religioso y cultural, de la región están en la base de la incomprensión y del enfrentamiento del hno. Guardián de esta fraternidad contra los laicos «asociados». Esta asociación ha sido suscitada en 1993, después de tres años de reflexión, en una época en que no sabíamos por donde avanzar, y que los hermanos presentes en la fraternidad mirábamos al futuro con inquietud. Lo hicimos impulsados por las nuevas consignas y exhortaciones que nos venían de la Curia. Convencidos de la importancia de tener un laicado responsable y comprometido, abrimos nuestras puertas y nuestras vidas para compartir lo que teníamos y éramos, y sentirnos huéspedes en nuestra propia casa. El espíritu de minoridad, impulsado por la dirección de la Orden, nos empujaba a tomar esa opción. Estos laicos, en su mayoría pertenecen a un grupo de acción católica llamada CMR (=Chrétien dans le Monde Rural). Reunidos en partenariat, restauramos la casa, interior y exteriormente. Le dimos un alma a dicha casa, teniendo en cuenta la trayectoria viviente llevada por los hermanos que nos precedieron. Los objetivos eran claros: 1.º acogida y 2.º animación. La casa franciscana sería casa de acogida para los transeúntes (o porque no tienen casa, o por otras razones, en relación con la asistenta social), acogida prioritaria a los peregrinos de Santiago (cuyo número va en aumento de año en año), acogida a las personas individualmente o en familia o entre amigos para una estancia de reposo y cambio de aire, acogida igualmente al movimiento asociativo de la región prestando las salas para reuniones y sesiones de formación, sin exclusión alguna: grupos religiosos, sociales, culturales, empresariales, artesanales, sindicales, políticos... Del punto de vista de la animación, hemos organizado celebraciones eucarísticas específicas (franciscanismo, paz, familia, etc.), y conferencias sobre temas varios, con la intención de reunir a la gente y ayudarle en el compromiso diario responsable.

- 6.º Me parece que es una injusticia y un deshonor para la familia franciscana la manera en que se está actuando con los laicos asociados en Saint-Palais/Donapaleu. Además lo que se haga de este convento puede dejar recuerdos hirientes en una parte de la población rural del País Vasco francés. Lo que se está haciendo actualmente allí, va en contra de la tradición franciscana anterior vivida en esta casa y en contra, por supuesto, de todo lo que la Curia continúa impulsando, ahora como antes, en vistas a la colaboración y al partenariado laico en la Orden franciscana. Yo creo que antes de que sea demasiado tarde hay que poner remedio a esta situación de eliminación y de marginalización de la asociación *Zabalik*, y restituirle la estima que se merece de parte del movimiento franciscano y de la Provincia franciscana de París, considerándola como elemento importante en el futuro posible de la casa franciscana de Saint Palais/Donapaleu, si así lo desearan. Yo creo que la asociación *Zabalik* debería ser considerada prioritaria en las decisiones que la Provincia Franciscana de París tomará en vistas al futuro de la casa franciscana de Saint-Palais/Donapaleu.
- 7.º Me consta que la asociación *Zabalik* está interesada a continuar su presencia en la gestión material y espiritual de esta casa, fieles a los objetivos de la asociación y a la experiencia vivida hasta ahora. Un grupo de reflexión se ha constituido en apoyo de la asociación. La asociación no quiere que la casa se cierre en septiembre próximo, como los hermanos han programado. Quiere que la casa siga su actividad en el plazo de la venta. ¿A dónde irán los peregrinos de los Caminos de Santiago y los transeúntes o gente necesitada? Se sienten responsables de los compromisos adquiridos estos últimos años, y del mantenimiento de la casa, completamente renovada según la normas de seguridad vigentes. En verdad, yo pienso que la presencia de la asociación *Zabalik* en esta casa franciscana es de actualidad e innovadora, incluso hoy, en la nueva etapa de la presencia «franciscana» en la región rural del País Vasco francés.

No quiero molestarle por más tiempo. Ya sé que su agenda está bien llena y que este asunto le pueda parecer sin importancia. Pero para nosotros que vivimos de cerca, considero que, de cerrar el convento y venderlo, se trata de no dejar una mala experiencia en la región y en las gentes relacionadas y encariñadas con ella. Como muchas de nuestras casas franciscanas, este convento también debe mucho a los habitantes de la región rural, pobres pero generosos. Ello explica el interés de esta mi comunicación.

En comunión de oración a todas sus intenciones. Que el Espíritu Santo le inspire en su dura y a la vez apasionante tarea de servicio a los hermanos. Bien fraternalmente.

Hno. Juan José ITURRIOZ  
Fr. Ministro General de la O.F.M.  
Curia Generalizia dei Frati Minori  
Via S. Maria Mediatrice, 25  
I – 00165 ROMA

Iturria: Donapaleuko Artxiboa (Joan Joxe Iturrioz). 2, Kutxa, I6 agiria.



Ezkerretik eskuinera: Joseba Intxausti, Gexan Alfaro, Eneko Irigarai, Jean-Louis Davant eta Janbattitt Dirassar.

EUSKARA BATUAREN EGOERA  
ETA GEROA IPAR EUSKAL HERRIAN





# EUSKARA, TRESNA BAT BAINO GEHIAGO

Itxaro Borda  
Idazlea

## I.

Badu beraz 50 urte euskara batua deitzen dugun hizkuntza eredu berria isurtzen zaigula lumaren puntatik, Hegoaldean bezain Iparraldean. Aldaketa linguistiko handi hau ospatzen dugu Baionan eta Arantzazun 2018ko larrazken honetan: duela mende erdia bi bilkuretan parte hartu zutenak, adinagatik banan-banan desagertzen doaz eta gure ardura kolektiboa daiteke memoria hori oraindik ere biltzea eta bereziki zaintzea.

Literatura izan da, ene ustez, prentsa idatziarekin batera, euskara batuaren lehen laborategia eta egia da, idazle handiak diren autoreek eman ziotela *Gaur* taldearen inguruan (Saizarbitoria, Urretabizkaia, Sarasola...), *Pott* bandan beranduago (Atxaga, Sarrionandia, Iturralde...), hasierako *top* zintzarria. Bilbon, Arestik aurrenekoz erabili zuen 1964ko bere *Harri eta Herri* poema liburu elebidunean, ortografia berri eta ezinegonaz hazi zuen H delakoarekin. Baina batua al zen zinez ala orduko euskaldun ikasi berriek lantzen zuten Lapurdiko tradizioaren itzalpean garatu modelo bat?

Iparraldean, denborarekin, mugaz beste aldeko gaztelera aire eta eraikuntzarekiko mintzaira funtzionala euskara batua deitzen ohitu gara, noizbehinka hargatik gure buruak itoak nabaritu ditugu, ezpainetan zebilkigun (etxeko, haraneko, eskualdeko) euskara mota ez zelako botere kulturalak hobesten zutenaren arabera. Egiaz, betidanik, leize bat ireki da euskaradun arrunten (laborari, artzain, langile) eta elitekotzat (notable, politiko, apez) auto-jotzen ziren euskaradunen artean. Behialako krisi horren ezauzgarriak jabalduak dira engoitik, euskaldun zaharrak hiltzen doazen neurrian (suertez) baina ezagutzen dut Iparraldeko idazle handi bat (ez dut inor salatuko) Hegoaldetik etortzen zitzaigun batua, «patua» izendatzen zuena, ez jakin ordea haren ahoko patua, *patois* frantsesetik lerratu azpi-hizkuntzak kalifikatzeko elea zen ala ez. . .

Hala ere, nahiz eta erraten den Iparraldeak asko galdu eta Piarres Lafitte kallonjeak negar egin omen zuela Arantzazun (leienda urbanoa?), euskara batua finkatu zenean, iruditzen zait, aski lainoki sartu zela, luzerako urtu ere aitzineko idazkera ohituretan. Batuaren aitzakian gainera, tradizioaren magmatik atera hitzak (*ekoitzi* adibidez Oihenarten testuetan kausitzen dena) erabiltzeari ekin genion eta aber(e)tza-leak izateko deituak ginelako agian, aberentzat baizik ez geneuzkan laborantzako eleak, jendei aplikatzen hasi ginen, ez zena baitezpada seinale ona: *hausnartu*, *bezi*, besteak beste.

## II.

Euskarak, xx mendean, bizi izan duen abentura pilpiragarria izan da batua-rena, batzearena, batzuetan *thriller* kutsukoa, besteetan beltza, arras beltza, baina sekula ez ibai lasai baten antzekoa. Euskaltzaindia sortu eta kasik berehala lerratu ziren Azkue (1864-1951) eta haren kideak langintza horretan, beti helburu berdinarekin: euskaldun guztiek, edonon kausiturik ere, irakurtzerakoan, denek, begi kliska bakarrean, hizkuntza konprenitzeko gisa harmonizatzea, homogeneizatzea, hedatzea helburu. Gaurkoan ere, mintzairarentzat, hil ala biziko erronka bat bezala presentatua da.

Euskal literatura, gidoi katastrofistez mukurdu dugu. Zenbat aldiz ez dugu azken euskaradunaren (euskaldunaren?) ehortzeta irudikatu, adibidez 2001eko *Susa* argitaletxean plazaratu nuen eta ondoko urtean Euskadi Saria eskuratu zuen %100 *Basque* nobelan bezala, pertsonaia deitoragarria emakumezkoa zela gainera! Hizkuntzarekiko gure harremana hain bizia, minbera eta haragizkoa izanik, ulergarriak dira ditugun eztabaidak, aharrak eta ezin erranak ere bai. 1964ko bilkura baino lehen baziren debadioak euskararen ortografiari, lexikoari, sintaxiari eta adiztegiari buruz. Eta jarraitzen dute. Aldian aldika, prentsaren zutabeak inarosten dituzten komentarioak ez dira hormadiaren gaineko kukurustak baino: azkenekoa, duela gutxi Ondarroako euskalkiz izkiriatu zuen Realeko futbolari baten bere *fan's* delakoei zuzenduriko agur gutuna!

Euskararen *arazoa*, euskal elitearen begietan, betidanik eremu murriztekoa izatean datza. Argi da, behe-maila sozialean, euskal hiztunekoa zela jendaldearen (jendailaren?) gehiengoa, eta hizkuntz gatazkak duela gutxi arte, goi-mailako partaideak zituela urratzen, beraien bizitzaz egitekoa zuten xedearen arabera: zurubi sozialean gora hupatu nahi zuenak euskara utzi eta erdarak hobesten zituen, herriarekin geratu beharrean zegoenak aldiz, euskararen hautua egiten zuen, sakrifizio baten ideiarekin, bere hautua politikoki eta ideologikoki justifikatuz. Euskararen trintxera erdibitzen duen leizea ireki zen hor, abertzaleen eta gainerakoen artean. Jakina, ez da afera hain leuna edo zoharra, abertzaleek ere ba dutelako euskararekiko *arazo* bat, bakarrentzat larria, duela aste pare bat Uztaritzeko Herriko Etxean gertatuak erakusten digun bezala! Euskal politikaren elgeetan, gehiengoak konprenitzeko gisan, erdarak hobe dira eta erdaretan, behar bada idazleak, euskal politikaren kritikatzeko libertate gehiagoz goza dezakeela uste delako.

Literaturak, oraindik orain, orokorrean, argitaletxeetako edo egunkarietako zuzentzaileei esker, euskara batuaren arauak aplikatzen ditu, ortografia, lexikoa, izendegia eta aditzaren terrenoan nagusiki. xxi. mendean, bideak dagoeneko ez dauka atzera *bueltarik* eta iparraldeko idazleok normalean erabiliko ez genituzkeen hitzak etzaten ditugu paperetan, gaztelerako perlatxo zenbait *derrepentean* gureganatuz, hala nola *boligrafia*, *huelga*, *akordioa*, *errenta*. Euskara funtzionalaren denboran, hau da 1980-2000 arte horretan, etsenpluak gaur baino anitzagoak ziren. Hala zen eta kito, eredia bere artaz hartzen ez zuena euskararen etsaia zen, Euskara batuaren martxa tratatzen zuen izaki uher bat, itsuseria *anbulante* bat.

### III.

Euskal kulturaren alorrean gu baino lehen kaosa zela pentsatzeko ohitura hartu dugu. Mundu salbai eta nahasi baten irudikatzeko. Hizkuntza mailan sustut: ez omen zuten gure arbasoek elkar ulertzen, *pidgin* antzekoak sortzen ziren okzitandarrekiko muga uherretan (Zuberoan, Amikuze, Aturri ibaiaren haran lainotsuetan), euskara inguratzen zuten eledia indartsu eta nagusietatik sobera hitz mailegatzen zirela, Aitorren hizkuntzaren etorkizuna lanjerean ezartzeraino. Alta, gure zaharrak ez ziren hitz egitetik gelditzen interlokutorearen aditz bat edo beste konprenitzen ez zutelako aitzakian, komertzioa egiten segitzen zuten, zekizkiten bizpahiru mintzaira (denak eremu urrikoak, minoritario kalifikatiboa ez ahoskatzeko) ezpainetan eta hizkuntza bakoitzaren ezberdintasunekin ironikoki jolastuz. Aski zen, duela mende laurdena, Donapaleuko edo Peirohoradeko merkatuetara joatea, mintzo-nahasketa osasuntsu horren funtsaz jabetzeko.

Iragana ez dut edertuko, orduan ere «astean ostiral bat» bazegoelako aitak zioen maneran. Euskara batuaren kontzeptua ernatu zen 60ko hamarkadaren erditsuan, euskal eliteetan, euskara salbatzeko helburu argiarekin: denek behar genuen elkar entelegatu, konprenitu, ulertu, bakoitzak gure ibarretako (etxeetako?, ohantzeetako?) euskaratik aldentuz. Indar bat eskatzen zitzaion euskaldungoari, bat gehiago, euskaldunen jendartea zedarrizten zituzten *-keriak* eta *-tasunak* peko errekarara zihoazen bitartean: exodo errurala, baserri guneen eta joera arrunten hiritartzea, kontsumoaren ideologiaren sartzea, eskolatzea, belaunaldi berrien unibertsitateetara iristea... 1968ko *big bang* linguistikoaren garai haietan, apurrak, euskalkia deitzen zen hartan ari ziren euskaldunak galtzaile gisa itxuratzen hasi ziren. Gure artean, susmo tzar horren aztarna urriak geratzen dira.

Hegoaldean bezala, gaurko eredia, nagusiki, Hegoaldetik etortzen baitzaigu, Iparraldean bazen batuaren aitzineko batu bat, nafar-lapurterra eta *Eskualduna* asterkarian (1887-1944) izkiriatzeko eskura zutena, Larresoro eta Uztaritzeko seminarioetatik atera apez idazle belaunaldiek, notable zenbaitek berdinki, haietariko asko Euskaltzaindian sartzen zirela. Ohargarria da ikustea, euskaldungoa alfabetatua ez zen arren, zer-nolako hedapena ukan zuen *Eskualduna* kazetak, Hamalauko Gerla denboran demagun, hamar mila aleetarainoko tiradak zituztela jakina delarik. Zuberotarrek, zuberotar batu batean plazaratzen zituzten testuak. Horrek ederki erakusten digu, ezagutzen dugun batuaren aurretik ere, kaos linguistikoaren muinean, bazela idatzian bederen, ortografiaren, lexikoaren eta aditzaren arrazionaltzeko nahikunde azkar bat.

Modeloen arteko eztabaidaren garrantz komikoa pantailara ekartzen du Fernando Bernues eta Mireia Gabilondok bilduriko *Kutsidazu bidea Isabel* filmak (2006), 1994an plazaratu zen Josean Sagastizabalen nobelan oinarritua: batua ikasten duen euskaldun berriaren eta Anjel Alkain batek gorpuzten duen euskaldun zaharraren (kamionero baserritarra da) arteko joko pizgarria, hainbatetan agitzen dena Euskal Herrian zehar, beste euskalki bateko hiztun bat gurutzatzeko suertea daukagunean. Euskarak bere buruari burla egiteko ahalmena ezabatua da Batuak lekua hartu duen arau, agian, ez baita eledi agoniko batez irriz lehertzeko eskubiderik.

## IV.

Testu honen irakurtzaileak ez dezala ondoriozta Euskara batuaren *etsaia* naizenik. Mende erdi honetan gure iritziak binarioak baizik ez dira izan: nirekin ez dagoena etsaia da, nire etsaiaren adiskideak nire etsaiak dira. Nire etsaiak balira nire zeregin kulturaletan are urrunago bultzatzen nauten laguntzailerik hoberenak? Euskara, aspaldiko borroka linguistikoan itxuratzen da, hil ala biziko erronketan, etengabeko biktima plantan, negarrez eta gauza serio bezain oinarritzkoak baizik ez aipatzen: laborantza, bertsolaritza, erlijioa, politika abertzalea (ezker eta eskuinekoa)... literatura, baina hau ere ahalaz funtsezkoa, fantasiarik gabekoa, jansenista.

Osotasun amestu batean euskara batuaz gozatzeko, euskalkien ezagutza ezinbestekoa dela uste dut, eta horregatik gustatzen zait (zaigu?) bien arteko lotura ardatz, hausnarrean zinpurtzea, Euskara batua deritzoguna euskalki bat gehiago dela kontsideratuz, arras egia ere ez dena oinarrian. Gaurkoan, ahozkoan bederen, euskara mota horiek nahasten dira, bilbatzen, kontrastatzen, kointziditzen. ETBko *Herri Txiki Infernu Handi* emankizuna ikustean, doi bat adi egonez gero, aurkezleek gipuzkoarrerako itzulpena egin gabe ere, Bizkaiko, Nafarroako edo Zuberoako solaskideak konprenitzen ditugu. Horrek erakusten du gainera, irrati edo telebista bidez euskarren aniztasunaren dasta ematen baldin bazaigu, ez garela, ulertezintasunez, mokofin plantan gelditzen, hitzen hegian ttattit.

Lur honetako ideologia morbidoen kasuan bezala, 1968tik hona, Euskara batuarena hartu dugu banpez, azterketa, distantzia eta ironia ongi-egilerik gabe, ebanjelioko hitz alda eta kritika ezina bailitzan. Puntu horrek, fikzio bidez bederen, zantzura merezi du, batuaren izenean ez baita edozer onartzen ahal, adibidez testu literario batzuetan ergatiboaren edota nor-nori aditz harilketaren desagertze larria, nahiz eta hori, batzuen aburuz, euskara erraztearen bidea litekeen. On da hizkuntza mailako debadioak bizirik segi dezan, mintzairaren osagarri marka bat liteke eta ikusten dugu eman dezagun, frantsesaren mailan, noizbehinka, suak pizten edo sumendiak iratzartzen direla ortografiari dagokionez, idazketa inklusiboaz edo iraganeko partizipioen akordioak direla medio. Idazketa inklusiboak jendartearen feminizazio premiari ihardetsiko lioke eta gizartearen erantzuna, gizon-emazte osatu eliteetatik haste, ez da beti baikorra, hortik eztabaida.

Badut adiskide amerikar bat, nikaraguar jatorrizkoa, Illinoisko unibertsitatean *gender studies* departamenduko irakaslea, feminista eta gai horiez ari garenean, begiak distiraz, *gramatika politika da eta alderantziz* errepikatzen duena. Ez dugu ihesik. Gure urratsak, gramatikak markatzen ditu. Ildo horretatik, niretzat, idazle soila naizelako kontzientzia dudala, hizkuntzak, batuak eta euskalkiek, arrago antzera funtzionatzen jarraitzea biziki inportanta da, bata ez doala derrigor bestearen kontra, ez dela beraien baitako leizerik, biak elkarren osagarriak direla eta menturaz bakoitzak bere toki baduela, izateko eta garatzeko: hizkuntzaren ekologia, aniztasunaren begiratzea... Idazteko orduan euskarak eskaintzen dizkidan altxor guztien beharra daukat, hitzak, aditzak, trinkoak, sintaxiak, hitanoa, ergatiboa. Baina, beste batzuetan tresna horiek sobera ditut eta lau elerekin nahikoa dut, nirea pobrea dela jujatuko duten irakurleen ohar negatiboak iratzarraztea arriskatuz. Idaztea, oinarrian, ez delako ekintza sakratu bat, hizkuntza bera hala ez den moldean.

## V.

Duela gutxi, Euskara batuaren finkatze zereginetan, mende Erdiko lan handia eramán duen *Jakin* aldizkariaren galdeketa bati arropostu emanez, honakoa izkiriatu nuen, batuaren batuaz:

Lehenik erran nezake Euskara batuak, mende erdia beranduago, euskaldun guztien oinarritzko euskaretan eragin duela. Sartu da idazkeran, sartu du halaber, neurri batean bederen, ahoskeran ere. Interesgarria da ikustea nolako pataskak izan ziren hasieran, euskalki bakoitza bere urguilu propioaren zati bat abandonatzera behartua zelako eta orain nola darabilgun dugun kasik naturalki, etxetik, bailaratik edo eskualdetik kanpo gurutzatzen garenean euskaradun ezberdinekin.

Literatura eta kazetagitza izan dira Euskara batuaren esperimentatzeko eta garatzeko eremu hautuenak. Iparraldeko hegoaldean eta gaztelaren musikarekin moldaturiko lexiko batua guretu dugu, aditz era aldiz aspaldian eraginkorra zela hemen gaindi: *Eskualduna* astekariaren (1889-1944) denboran bazen jadanik batu bat Zuberoako, Nafarroa Garaiko eta Lapurdiko hiztunek irakurtzen, idazten eta entelegatzen zutena!

Euskalkietako hiztunak adin batekoak izanki naturalki desagertuko dira. Euskara batua da geldituko den euskara molde bakarra eta hitz zahar potoloak hiztegi mutxituetan zerratuko dira betiko! Horregatik bereziki zaintzekoa dugu Batua!

Batuaren erronketatik bat liteke (potentziala darabilt) euskalkietako lexikoa integratzea, adiztegi bereziak eta trinkoak ere bai. Ez badira batuaren uhinean kabitzen galduko dira. Erabiltzen ahal ditugu oraindik baliabide estilistiko (sinonimo, hizkuntza maila) gisa, idazteko unean.

Azken hilabeteotako iritzi artikulatu batzuek erakusten dutenez Euskara batua beti eraso sentitzen da, norbaitek idatzian euskalki bat hedatzen duenean. Ene ustez lekuz kanpoko minberatasuna da hori, ez baita euskalkia Euskara batuaren etsaia, alderantziz, Euskara batuak iraungo badu (eta iraunen du) euskalkiekin elkarlanean ziurtatuko baitu bere bidea.

Euskara euskaldunaren nortasun agiriaren zati handia denez, eder liteke Batuak, hitzen bidez, hiztunen jatorria erakusten jarrai dezan. Hurrengo helburua: ahoskera geratuko da ondoren batzeko, euskaraz ari garenean, zintzurretan ozen dabilzkigun espainol edo frantses azentuak ezabatzeko.

## VI.

Euskara batuaren ereduari kasik berehala jarraitzen hasi gintzaizkion. Tresna hor genuen. 1972an Hendaian kokaturiko Haize Garbia elkartearen hiztegia (frantses-euskara) atera eta arto jorran irabazi sakelako diruarekin erosi nuenean, batuari buruzko galdera sakona kausitu nuen, egileek alde ala aurka mugaz harago pausatzen zutena. Unea ez zitzaien egokia: *est-ce le moment? Haize Garbia répond: non. Par souci d'efficacité. On n'administre pas à un mourant un traitement de choc.* Hitz batzuen ortografia komunaren xedearekin lista bat agertzen da hiztegiaren hasierako orrialdeetan. Derragula, Marijan Minaberri eta Mitxelena apeza zirela proiektuaren buruak, urrunak iruditzen zaizkigun mendeetan.

*Herria* astekariarekin, azal liranja koloreko Piarres Lafitten gramatikarekin eta Haize Garbiaren hiztegiarekin alfabetatu nintzen, bakarrik, salbaiki, euskara ikasi arau idatziz. Iparraldekoa izanagatik, nireganatzen nuen mintzaira dagoeneko etxean usadio genuen hartatik arras ezberdina zen: Amikuzeko euskalkiaren musika eta erritmoaren hunkidura galdu nuen, nafar-lapurarraren egitura indartsu eta sakonaren alde. Hizki guztiak ahoskatzen ziren, bereziki aditzak eta ez nintzen gehiago amikuztarrez mintzatuko, Oragarreko jendeekin salbu, bestaburu edo ehortzetetan. Hitanoa ere galtzear egon nintzen, ordura arte ez nuelarik aditzaren beste harilketarik eza-gutu: anaiekin hika, ahizpekin noka, aitarekin zuka eta amarekin xuka. Jakin gabean, hizkuntza joera askoren jabe ginen. Euskara batuaren oinarria *zuka* baizik ez zen ari, gainerako formak buhameenak, petzeroenak, laborari pikarraienak zirela sentiarazten zigutela, bahe horretatik jada pasatuak ziren gure euskaltzale lagun berriek!

Orain, generoaren araberako euskara modu baten errekuiperatzeko saiakeren ildoan hitanoa modara pasatzen ari da, Hegoaldeko lesbiana eta feminista batzuen zirkuluetan. Batzueen aitzakian (batu ezberdinen kontzebitzaileak gizonezkoak, notableak eta apezak zirelako?) generoaren agerpena ezabatu zen gure hizkeratik. Lehen uhin batean (1910) apezek zuten euskararen destinoa beraien atzamarretan gatibatu, bigarren aldian (1970) jatorri ertaineko argitsuak zirelarik. Orokorrean. Ohartzen naiz, baldin eta hitanoa idazten badut eta anai-arrebekin, alabarekin, bilobarekin edo behialako besta-lagunekin baratzeko suertea baldin daukat, gure ezpainetatik ez dela erabat ezabatzen!

Ama zendu zitzaigun denboretan (1994) Amaia Ezpeldoien bigarren atala (*Bizizano munduan*, 1996) izkiriartzen ari nintzelarik, Susak plazaratu zuen lan hartan nerabilen Amikuzeko euskalkiaren joskera eta soinua, aldi berean *pidgin* ziminotu antzeko zerbait (*mesten aiz undarra, askal badi jua giten!*) sortuz, nire orduko eskakizuna zen: «zertan dabil duda-mudaz bide ilunetan ama-hizkuntza, ama galduz geroztik? Nola eta noraino iraun dezake? Bakardadea aditzik gabe gelditu zaigulako, orrialde hauek omenaldi amoltsu gisa bihoaz...» Iñaki Camino ikerleak geroztik Amikuzeko euskara aztertzen duen liburu mamitsua agertu du, gure aitzineko mututuei beraien mintzoaz opari eginez.

Amaia Ezpeldoi detektibe lesbianaren saila, bere osotasunean, euskararen inguruko bilaketa bat dela erants nezake, krima erreal edo sinbolikoak argiztatzeko estakuruan. Lehen liburua zuberotarrez *kometitua* da, bigarrena Amikuzeko euskalki nahasiz eta hirugarrenetik aitzina, euskara gero eta batuagoa sartzen dut, irakurlea bidaia linguistikoko batera gonbidatuz. Euskaldunontzat, estaturik ez dugun bitartean (birrau!), euskara da eztabaidak, kezkek, atseginak, irri eta negarrak garatzeko daukagun lurralde bakarra eta horrek ez luke mugarik behar!

## VII.

Nafar-lapurtarretik abiatu eta ororen buru, ez zen hain zaila izan Iparraldeko idazleontzat batua deitzen zitzaionari egokitzea. Euskaraz idazten trebatze prozesua adaptatze etengabea izan zen guretzat. Kontsonante bat hemen, bokal bat han, aldaketa minimoak eta ñimiñoak, gazteleratik mailegatu hitz bat edo beste, eta hara, prest ginen, Arestik behiala goratzen zituen euskal literaturaren «urrezko orrialdeetan»

gure izenak zizelkatzeko. Ez dakit nola eskuratzen genituen mugaz bestaldean gai horren inguruan publikatzen ziren lanak, hala nola Lur argitaletxeak egin zuen *Batasunaren Kutxa* liburua edo *Zeruko Argia* astekariaren aleak. Zailtasun geografiko zein ekonomikoen gainetik, ahurretara jazartzen zitzaizkigun eta alfatik omegaraino arakatzen genituen, idazkera mamitu asmoz!

Neurri handi batean, hala ere, iparraldeko doinua zaintzen eta atxikitzen genneraikan, trinko. Atxikitzeke eskubidea genuela iruditzen zitzaigun. *Maiatz* aldizkariaren lehen zenbakitik beretik hizkuntzaren inguruko egikera ezberdinak uztartzen ziren, batuarekin batera, zuberotarraren edo Ezterenzubiko euskalkiaren distira bereziak. H delakoaren auzian ez genuen parte hartu, nahiz eta kontsonante eztabaidatu horietatik zenbait bidean abandonatzeraz behartuak izan ginen, *urthats*, *thepo* edo *thorpe b*-rik gabe eta ortografia amiñi bat aldatuz izkiriartzen ohitzeke.

H-ri, batzuek eta besteek, ETArek ikurra izatea leporatzen zioten, ez zena gezurra alabaina, inplizituki euskara batua irudikatzen baitzen *Euskadi*, eta beranduago Euskadi batuaren hizkuntza gisa, hau da Iparraldea eta Hegoaldearen batasun politikoa egiaztatuko zeneko mintzaira izateko! Abertzaleen proiektu linguistikoa zen, familia hetero-patriarkalaren modeloaren arabera, bere lekukotasunetan Jean-Louis Davantek laudatzen dituen 1964ko Baionako bileraren garaian ETAKoa zen Txillardegia aitaren eta 1968an EAJ alderdiaren inguruko Koldo Mitxelena aita pontekoaren hegalean! Gaur egun, eztabaida bipil horiek pixka bat isilduak dira, baina euskara batuaren eramaile sutsuenak oraindik ere (ezker?) abertzaleen zirkuluetan kausitzen dira, zorionez erabiltzaileen uhinak gero eta zabalagoak direla!

1960-1980 urteetan zehar hainbat liburu eskuratzen genituen, ortografia ikusgarriz idatziak: azken denborako Aresti etsituaren olerkiak, grafia zaharrez izkiriartuak, gazteleratik zuzenean harturiko hitzez osatu euskara funtzionalean emanikoak edo nafar kutsuko testuak, bizkaierakoak, saiakerak guztiak... oroz gainetik, lapurtar euskalki irudiz kultuak, idazle asko ilusionatzen zituela. Gaur egun, halaber, euskarak nora jo ez dakienean, demagun, hitz teknikoak itzultzeko orduan, irizpide bila lapurtarraren oinarria jotzea aldarrikatzen da. Hala egitera akuilatzen gaitu bederen, Kepa Altonagak *Back to Leizarraga* liburu interesgarrian! Bitxikerien atalean, ez genuke ahantzi behar, Erramun Gerrikagoitiaren *blog* hura. Munitibarreko idazleak (*obsesione lexical aguerricoa*) hor ortografiaren gain (lapurtarra) sintaxia ere nahasten du, perpaus osagarriak lekuz aldatuz eta erlatiboak markestuz, egiazko euskara birtual bat moldatuz.

## VIII.

Euskara batuaren hedapenarekin batera, beste fenomeno batek itxuraldatu du euskarazko literatura, itsaso baten pare, feminizazioak alegia. Gaurko liburu eta autoren zerrendak ikustean, erdiz erdi daude gizonetakoak eta emakumetakoak. Dagoneko euskara ereduaren gaia arras gaunditua denez, nahikoa naturalki aspiltzen da, gero eta aberatsago, gero eta euskalkien altxorraren bertz edo tupinago. 1964ko Baionako (zero) eta 1968ko Arantzazuko bilkuretako argazkien (hiru) arabera, emazteek ez zuten eztabaida horietan lekuri ukan edo, gehiago dena, euskara ez



bide zen emazteen lankia. Emazteak, denbora haietan, idazkari lanetan ari ziren anonimoki edo izen bat zeukatenean, gizonezko euskaltzale ospetsu baten esposak edo andreak bihurtzen zirelako baizik ez zen.

Erran behar da emazteek ez zutela fama onik euskal munduan. Erdarak familietan sartzea leporatzen zitzairen eta Bigarren Mundu Gerratik lekora biderkatzen ziren herrietako *Tupintegiko Roxali* delakoak, euskara masakratzen eta frantsesa urguiluz kokatzen saiatzen ziren emakumeak. Etxeaz eta hurrez axolatzea galdatzen zitzairen eta baserrietan geratzen zirenek, herritik lan bila joaten ziren neskak emagaldutzat zeuzkaten. Orduan, erraza da ulertzeko, nola 1960ko urteetan euskararen alorrean eta bereziki euskara batuaren hasierako batzarretan ez den emazterik ageri. 2018an hargatik emakume euskaltzale haiek aipatzen ez direla onartzea zailagoa da: giroa aldatu da geroztik eta izenak eman eta biografiak osatzen ahal dira.

2018ko irailaren 13ko Baionako Euskaltzaindiaren ekitaldian, Jean Louis Davantek ez zituen ahoz aipatu, baina bere idatzizko txostenean emazte euskaltzale batzuen izenak eman ditu, 1964ko Euskal Idazkaritzaren bildumaren apartean: «Artetik ohartzen ahal gara Batzordean ez zegoela emakume bakar bat ere, nahiz andreak bazeuden irakaslegoan, adibidez Jone Forcada, Jeanne-Marie Malharin, Martxelin Arbelbide, Mañex Pagola esposatuko zuena... Hutsune horrek adierazten du zein zen orduko egoera, inozenki eta lasaiki matxoa, ideologiaz matxistak ez ginenen artean ere». Iparraldean, bestalde, euskararen alde ekin zuten Malen De Jauregiberri eta Marijan Minaberri ere gogoratzen ditugu. Besteak beste.

Euskara batuaren lehen ereduak ez zion emaztetasunari (Maite Idirinek kantatzen zuen *abizpatasunari?*) zirrikiturik zilegitzen. Lan asko egin da hondar hamarkada hauetan generoaren eta berdintasunaren aldetikako lexikoen osatzeko, euskarari (euskalki ala batua izan) bere maskulinismo karga kentzeko, gorago erran dudan bezala hitanoaren errekuperatzeko eta hitz apalesgarrien ordeztu emakumetasuna ele positiboetz janzteko. Ohituren aldatzeko aurreneko urratsak literaturan kausitzen dira, prentsan eta bakarretan gure oinarritzko harreman linguistikoetan. Adibide bat emateko *société-sociedad* azaltzeko, ardurenean jada, *jendarte* idazten da, behialako *gizarte* harren ordeztu, *gizarte* horrek *gizonezkoz* osatu sozietatea oroitarazten duelako sobera! Feministen lan tematiak eta emazteen presentzia kulturalak hizkuntzaren itxura in-paktatzen du eta naski ez da horretan bukatua!

## IX.

Euskara batuaren sarea gehienbat idatzirako orraztu zen. Egiakzi tresna baliagarria da hitzak paperean etzateko orduan, Iparraldeko bezain Hegoaldeko izkiriatazailentzat. Baina duela bi hamarkada halako krisi bat jasan zuen: Ibon Sarasolaren *Euskara batuaren ajeak* liburuak plazara ekarri zituen debadioaren terminoak. Obserbatzaileak konturatu ziren orduan, deus ez baldin bazen egiten, euskara batuaren ibaia bi abarretan banatuko zela, Iparraldean frantsesaren eta Hegoaldean gazteleraren eraginez lodituko zirenak! Lemazainak adi behar zuen berriz. Euskara are euskarago egiten saiatu ginen gure liburuetan, bazter eta sasi-mintzaira hegemonikoetako eleak baztertuz. Joera horren lekuko genuke Andu Lertxundiren 1994ko

*Otto Pette* nobela, zeinetan Iparralde kutsuko eta Hegoaldeko oinarrizko euskarak nahastuz, idazleak idazketa eredu bat moldatzen duen. Erdi Aroko euskara amestu mota bat agian.

Baina euskal literatura leitzen dugunok ohartzen gara, arrakasta handiko nobelak oro, euskara laxo batean idatzitakoak direla, gehienbat Hegoaldeko euskararen musikarekikoa. Horren erratea ez da, euskara batuaren zereginaren blasfematzea. Espero dut bederen. Gero eta gehiago ordea, idazlea oreka batera hurbiltzen da, euskara inklusiboagoa duela lumaren puntan, hau da batuaren ereduaren bahean, euskal literaturaren historiako emaitzak, guztiak orain datu-base zabal eta sakonetan gatibu daudela, eta beraz euskalkien aberastasunak, perpausen harian sakatuz. Hala ere, ikusgarriak dira Bizkaiko idazle batzuen ekinak, bereziki bizkaiera utzi eta zuberotarrez kreatzeari uztartzen zaizkionean, hala nola Luis Berrizbeitia, poema bilduma pare batean. Idazlea, gaur edo bihar, hizkuntzarekin jolastetik ezingo da gelditu eta nehork ez dio bide hori zerratzen edo ixten ahalko. Literatura zerbait baldin bada, hizkuntza delako, estandarren eta funtzionaltasunaren mugez harago, euskara batuaren kasuan.

Biziki maite dut, nik ere, Junes Casenave zenarekin ikasi zuberotarrez izkiria-tzea, noizbehinka, beharren arabera, kanta hitzak edo sortzea eskatzen didatenean, hala nola 2018ko agorrilaren Iean orraztu nuen *Etxebarreko Bentan* izeneko hau, Bernat Combi Limusinako poetaren eta Zuberoako adiskideen ohorez:

Ügatza zelüan gora,  
Labrita xanpaz tehentan:  
Eküratü da denbora  
Etxebar aldeko bentan!

Üda mina dela hüsten  
Biltzen gütüzü gogotik:  
Hauzeraino da ikusten  
Benta hartako leihotik.

Isiltarzüna dü hausten  
Solaz biren zintzarriak.  
Ez dira ihoiz errausten  
Ezpeldoi peko harriak...

Mende agor nahasien  
Maldan goza ditakea,  
Oihü eta garrasien  
Artetik berriz bakea?

Leküa amentsen zilbor,  
Kantari jiten da botza:  
Sükalde ülünean hor  
Üzten düten ene bihotza!

## X.

Idazleak, Iparraldean eta Hegoaldean, batuaren injonkzioari aski gogotik eta garaiz plegatu ziren, nahiz eta *plegatu* edo *makurtu* aditzek amor ematearen ideia iradokitzen duten. Gaur egun ohitura bihurtua da jadanik eta *batua* kalifikatiboa galtzen ari du 50 urteko martxan emendatu euskara motak, euskara soil gisa plazaratzeko. Egun oroz hazten da, herritarren praktikatik, iraganeko hizkuntza jaiduretatik, nahikunde (post) modernoaren premietatik edo adin-mailen beharren iturrietatik. Hemen, hartatik, zerbait eskas da, gazteak, hamalau eta hogeit hamar urte artean, nagusiki euskaraz hitz egitera bultzatzeko mintza-era *branché* eta kolokiala eskaintzeko. Baina hori ahozkoaren maila da eta ez doa gure solasaren haritik. Gazteek berek, aldian aldika, beraien mintzaira propioa zizelkatzen dute, erdarak euskararekin ezkonduz, idazterakoan ere *megamix* entzutetsuak eginez, demagun *genre*, *en fait*, *style* eleak perpausetan itsatsiz, beren adineko edozein gazte frantsesen (modeloak ere ez diren arren!) maneran. Joera aski interesgarria iruditzen zait, gazteak ez dezan euskararekin (zahar eta mutzi aire bat baduela(ko) batzuetan) erabat moztu.

Euskararen etorkizuna, dagoeneko, euskalkien destinoarekin batera doa parez pare. Salbuespenak salbu —bizkaiera eta zuberera beraien barne musika bereziaren-gatik— euskara *bat* da, euskalkiak barne dituela. Paperean etzanik, ez da bazter-musikarik entzuten eta beraz halako leuntze bat bada, euskaradun zaharrak mundu honetatik bestera (halakorik balitz?) doazen arau. Azken hiru hamarkada hauetan sortzen den euskaldun bakoitza, nolabaiteko euskaradun berria da eta horrek berdintze linguistikoko bat ekartzen du gure luma puntetara. Bizkaiko eta Zuberoako ikastoletan ere «manexeko» euskararen ezagutzak barreiatzen dira, ikasleak ez dezan arrotz ukan, beranduago premiazkoa ukanen duen gainerako euskaradunen euskara modua. Ondorioa baikorra da: Euskal Herriaren edozein muturretako euskaradunak prentsa idatzia irakur dezake eta gehiago dena, beste magaletako euskaradunak ulertzen ahal ditu bere lekuko euskararen senetik beretik, hizkuntza derrigor aldatu beharra daukako sentimendu frustranterik gabe.

Euskara, gorputz biziduna da eta euskal jendartearen lana maila horretan, ene ustez, hizkuntz eredu ireki eta inklusiboaren geroa ziurtatzean datza. Euskarak iraun du ahoak, mihiak, begiak eta belarriak zabalik egon delako egundainokoa, inguruko mintzairen joerak, hitzak, sintaxiak anitzetan, bereganatu zituelako, menderik mende kreolizatuz, joan-etorrian itzulpena sustatuz, garbizaletasunerako tentazioa haiztatuz, bere baitatik, azkenean, gauza berrien errateko ahalmenari sekula uko ez eginez.

## BIBLIOGRAFIA LABURRA

- Altonaga, Kepa, 2015, *Back to Leizarraga*, Arre (Nafarroa), Pamiela argitaletxea.
- Aresti, Gabriel, 1964, *Harri eta Herri*, Zarautz, Itxaropena argitaletxea.
- Borda, Itxaro, 1996, *Bizi nizano munduan* (Amaia Ezpeldoi saila), Zarautz, Susa argitaletxea.
- Camino, Iñaki, 2016, *Amiküzeko eskualdeko <sup>b</sup>eskuara*, Mendaur bilduma XI, Bilbo, Euskaltzaindia.
- Davant, Jean Louis, 2018, Euskara batuaren hastapenak (1963-1964), *Euskara batua eta Ipar Euskal Herria: 1964-2018* kolokioa, Jagon bilduma 19, Bilbo, Euskaltzaindia.
- Elkarlanean, 1970, *Batasunaren Kutxa*, Donostia, Lur argitaletxea.
- Haize Garbia elkarte, 1972, *Haize Garbia biztegia*, Hendaia.
- Jakin aldizkaria, 2018, *Euskara batuak 50. urte*, 225. zenbakia, Andoain (Gipuzkoa).
- Lertxundi, Anjel, 1994, *Otto Pette*, Irun, Alberdania argitaletxea.
- Sarasola, Ibon, 1997, *Euskara batuaren ajeak*, Irun, Alberdania argitaletxea.



Ezkerretik eskuinera: Itxaro Borda, Naroa Gorostiaga eta Joseba Garai.



## EUSKARA BATUA ETA EUSKALKIAK

Peio Jorajuria  
*Herria* astekaria

*Herria* astekariaren irakurleak Ipar Euskal Herrikoak ditugu gehienak. Astekaria Lapurdiko barnealdean eta Nafarroa Beherean da gehienik banatua, bainan beste euskal lurraldeak ere estaltzen ditu, Lapurdi kostaldea, Zuberoa eta Hegoaldea. Euskal diasporan ere hein bat irakurria da.

Hain desberdinak diren irakurle horientzat nolako euskara erabili gure astekarian? Ez da sinplea. Herri ttipietako berriketari sare nahiko handia badaukagu, 40 bat lagun, eta horiek idatzitako testuak diren bezala argitaratzen ditugu, bakoitzak bere euskalkian idatzi bezala. Artikulu nagusietan, aldiz, entseatzen gira euskara batuari hurbiltzera. Edo behintzat guk deitzen dugun «Iparraldeko batua» dugu erabiltzen, erran nahi baita gehien bat nafar-lapurtera. «Iparraldeko batua» kontzeptu hori ez zait haatik hain zuzena, zuberera ez baita aurkitzen hor.

Dena den, idazkera mota ezberdin horien arteko ahal bezalako oreka bat biltzen dugu. Tokiko euskalkiak nahi ditugu begiratu, zinez aberats baitzaizkigu. Eta denbora berean euskara batuari ere nahi genioke egin bide, emeki-emeki sartuz, molde homeopatikoa, beharrez parentesi artean ezarriz batuzko hitzek tokiko euskalkian duten erranahia.

*Herria* astekaria aspaldian hasia da lan horretan, gure irakurleak emeki hurbilazteko batuari, aldi berean leial egonez euskalkieri. Baditugu haatik irakurleak, adin aski handikoak egia erran, doi bat trabatuak senditzen direnak euskara batuarekin: «zuen hitz berri horiek ez ditugu konprenitzen», «ez duzue gure euskara erabiltzen» eta horrelako. Eta alderantziz, euskara batuan haziak diren AEK-ko irakurle multzoak arras galdurik daudenak gure astekariarekin, hizkuntza arrotz bat erabiltzen baginu bezala. Guri da bi muturreko ikusmolde horien artean halako oreka baten aurkitzea. Ezin dugu egin, adibidez, *Ipar Euskal Herriko Hitzak* egiten duena: artikuluak osoki euskara batuan plazaratu. Horrela jokatzuz, gure irakurlegoa gal genezake ziztu bizian. Eta lastima liteke gure euskalkientzat. Altxor bat dira.

Konbentzituak gira euskara batuari buruz joan behar girela, baina euskalkiak ere erabiliz, bi moduek elgar haziz.



# EUSKARAREN BATASUNA IPARRALDETIK IKUSIA

Joseba Garai  
Iparraldeko AEK

## TOKIKOA ADELATZEN EUSKARA BATUAREN BIDEAN

Udako oporren pausaldia heldu baino lehen, Euskaltzaindiak bideratzen duen *Euskara eskuz esku* egitasmoaren galdetegiari nire ihardesprenak idazten ari nintzelarik, hainbat galderek duda-mudan utzi nindutela aitortu beharra dut. Izan ere, honela dio galdetegiaren galdera nagusiak: *Zure ustez Iparraldeko euskara batu bat ba ote da orain?*

Hastapeneko akuilaldi batek pusaturik eta Iparraldeko euskalkietan ene iduriko azken urteetan eman den bilakaeran oinarrituz, baietza erantzun nion galderari segurtamen osoz. Haatik, geroago adieraziko dudan bezala, ez dira guti baietzapen hau ez-baian ezar dezaketen arrazoibideak.

Erran gabe doa, gaiak garrantzia handia du Iparraldeko euskalgintzako elkarte eta erakunde desberdinetan karraskan ari garen langile eta kideendako. Egunerokotasunak usu gaina hartzen badigu ere, zeharka ala bekoz beko, hizkera batean ala bestean aritzera behartuak gara. Hots, euskara batuan, euskara nafar-lapurtarrean, zuberotarrean...

Argiki ohartaraz dezagun bestalde, euskararen gaitasun kopuruaren aldetik dugun egoera larriak ez dizkigula galarazi behar haren funtsa edo kalitatearen aldetik egin ditzakegun gogoetaldiak. Egia da zenbait soziolinguista jakintsuren prospektibetan, 2050ean euskaldungo orokorra Ipar Euskal Herriko biztanlerian, soilik %22koa izan daitekeela. Gisa horretako xehetasun ezkorrak jakinarazten direlarik, euskara batuaz eta euskalkien kalitateaz aritzeak josteta ezdeusa edo funsgabekeria iduri lezake. Haatik, zernahi gertaturik ere, gure mintzairaren muinaren osagarriaz arduratzea baitetzpadako eginbeharra dugu.

Dena den, aitor dezagun behingoz, gaur egun euskara batuari buruzko adostasuna aski zabala dela. Izan ere, euskalgintzan diharduen *intelligentsiak*<sup>1</sup> oro har aspaldi onartua du euskara batuak hizkuntzaren garapenean izan duen garrantzia. Euskaltzaindiak, berak, euskara batua eraikitzerakoan, euskalkiak errespetatuz, erakutsi di-tuen ekinbide eta eginmolde idekiek biziki lagundu dute pertzepzio baikor horretan: euskara batuaren eta euskalkien arteko harreman baketsuak gomendatuz, arauetan usu, Iparraldeko hizkuntz-formak onartuz. Aipagarriak dira nafar-lapurtarrezko hi-

---

<sup>1</sup> *Intelligentsia* izena erabiltzen delarik, euskaraz eta euskararen hedapen, irakaskuntza eta sorkuntza lanetan ari den sektorea aipatu nahi da.



tzak baina baita ere zubererazkoak euskaltzainek *Euskaltzaindiaren Hiztegian* sarrarazteko egin eta egiten dituzten eginahalak.

Hala ere, euskara batuaren sorreran, Iparraldeko herritar anitzen ikuspuntutik bederen, bada nolazpait, «bekatu originala». Sortzearen lehen urratsak Baionan kausitzen badira ere, euskara batua nagusiki erdiguneko euskalkietan oinarriturik da. Hots, gipuzkeran, Lapurdiko mendebalean eta Nafarroako ipar-mendebalean egiten direnetan<sup>2</sup>. Horrela erran genezake, hastapen batean bederen, Iparraldeko idazle klasikoen eta herritar xehe gehienek euskalkiak ez direla osoki oinarritzat harturik izan. Baliteke beraz, egitate honek zerikusia izatea Iparraldeko zenbait eskualdetako herritarren artean euskara batuak denbora luzaz ukan duen sinesgarritasun eskasarekin, nahiz eta bistakoa izan Euskal Herriko erdiguneko euskalkien artean ez dela desberdintasun nabarmenik. Alabaina, periferiako zuberera eta mendebaleko euskalkiak bazter utzirik, Euskal Herriko erdiguneko eremu zabalean ezaugarri amankomun ugari dituzten euskalkiez ari gara.

Sinesgarritasun eskasa aipatzen dut, hizkuntza, komunikatzeko sistema izateaz gainera, identitatea zedarritzeko funtsezko osagaia baita. Izan ere, norberari buruzko kontzientzia ukaiteko eta baita ere jendartearen kokapena aurkitzeko balio du hizkuntzak. Hartakotz, gehienetan gertuen dugun mintzaira erabiltzeko joera dugu. Ildo honetatik, euskara mintzatuari dagokionez bederen, oraino gaur egun, Iparraldeko euskaldun anitz euskara batuarekin ez direla identifikatzen erran dezakegu.

*Euskara Eskuz esku* egitasmoaren galderaren funtsera berriz itzultzeko xedearekin, oroitaraz dezagun Koldo Zuazok, EHUko irakaslea eta dialektologian adituak, duela bi urte *Berria* egunkarian egin elkarrizketa batean adierazten zuena<sup>3</sup>: «Euskalkiak baturantz ari dira eboluzionatzen. Berdintzen ari da Euskal Herri osoko euskara. Bata-sun prozesu hori Lapurdin eta Nafarroa Beherean argi azaltzen da: batu bat sortzen ari da bi herrialde horietan. Hain justu ere, prozesu hori martxan jarri beharko litzateke beste euskalkietan ere bai». Koldo Zuazoren adierazpenek ihardespenean argia ematen diote beraz, arestian pausatua zaigun galderari. Urruntxago, oraino zehaztapen garbiagoak ematen ditu honakoak adierazten dituelarik: «Gero eta distantzia handia dago Hego Euskal Herriko eta Ipar Euskal Herriko euskaldunen hizkeran. Iparraldean frantsesaren eraginagatik eta Hegoaldean gaztelaniaren eraginagatik. Adineko jendeak askozaz berdinago hitz egiten du. Gazteagoek eguneroko hitz morderoa hartzen dugu erdaretatik». Ondorioz, hizkuntzalariak *tokiko euskara batu* hauen sortzea gomendatzen du Euskal Herriko beste eskualdeetan ere bai. Alabaina, euskalkiak eta euskara batua uztarturik delako *tokiko batuak* sortzea.

Ohartarazpen ezin argiago horien ondotik, Iparraldeko *tokiko batu* horren osaketa ontsa abiaturik dela ondoriozta dezakegu. Nafar-lapurtarraren euskalkitik abiaturik euskara batura doan mugimendua dela erran genezake eta baita ere alderantziz, euskara batutik euskalkira. Sorkuntza horren arrazoi eta osagaiak, nire ustez honako hauek ditugularik besteak beste:

—Iparralde osoan euskarak duen egoera larriak batasunerako urrats berrien hartzera behartzen gaitu.

<sup>2</sup> Zuazo, Koldo, 2014, *Euskalkiak*, Donostia, Elkar.

<sup>3</sup> *Berria*, 2016ko urriaren 23an.

- Aspaldian batera ibiltzen den nafar-lapurtarraren tradizio idatzi zabal eta aberatsa. Arlo horretan, idazle klasikoen, garaikideen eta *Herria* kazetaren lana ere goraiatzeko da dudarik gabe.
- Frantsesetik gureganatu ditugun mailegu-hitzen eragina.
- Oro har, bistan dena, euskara batuaren eragina.
- Eta bereziki, Iparraldeko euskalgintzako eragileek eguneroko eginkizunetan sortu, garatu eta erabiltzen dugun hizkera.

Euskalgintzako eragile anitz aspaldian ohartuak gara, euskara batua eta Iparraldeko herri xehearen mintzairaren artean alde handia eta eremu zabala badela eta euskara batua erakargarria izan dadin, prozesu dialektiko baten bitartez, delako eremu hori tokiko batuarekin betetzen joan behar dugula. Ideia honen laburbiltzeko, *Herria* kazetako artikuluetan usaian erabiltzen den euskara eta *Berria* egunkarian erabiltzen denaren artean tarte handia badela erran genezake. Jakin badakigu ez dela baitezpada adin bereko irakurlegoa, ezta kokagune geografiko berekoa ere. Haatik, biak dira herri honetako biztanle euskaldunak eta biek dute hizkuntza bultzatzen eta biziarazten.

Euskara nafar-lapurtarraren eremuan, Lapurdiko herrialde osoa, Nafarroa Beherea, Nafarroako Luzaide herria eta Zuberoan diren mendebaleko hainbat herri (Domintxaine-Berroeta, Arrüe-Ithorrotze-Olhaibi, Lohitzüne-Oihergi, Etxarri eta Pagola) sartzen dira. Nafarroa Garaiko iparraldean ere nabaria da euskalki honen eragina<sup>4</sup>.

Ezaugarri desberdinez osaturik den euskara bada ere, besteak beste honako hauek aipa genitzake:

- Hitz hasieran *x*-a erabiltzea: *xoko*, *xingar*, *xori*. . .
- Erdarako *on* bukaera, *oin* bilakatzea: *arrazoin*, *baloin*, *sasoin*. . .
- inor* izenordainaren ordez, *nebor* egitura erabiltzea. *Nehori*, *nehun*. . .
- Atzizki tipigarrienetan, *-ño* erabiltzea: *irriño*, *haurño*. . .
- aditzaren etorkizuneko aspektuan, bereziki aditz erroa *n*-z bukatzen delarik, *-en* erabiltzea *-ko* bukaeraren ordez: *joanen*, *eginen*. . .
- Destinatiboko deklinabidean: *-entzat*, morfemaren ordez, *-endako* ematea.
- Lexikoari dagokionez, berezitasunen eremua biziki zabala da: *ahantzi*, *auzapez*, *biziki*, *berina*, *fitsik*, *gako*, *jin*, *kabale*, *kalapita*, *mertxika*, *mozkin*, *pairatu*, *pentze*, *xingar*. . .<sup>5</sup>

Iparraldeko AEK-k aspaldi hartua du deliberoa bere jardueretan, Lapurdiko eta Nafarroa Behereko gau eskoletan *tokiko* batuaren aldeko hautua eginez eta bistan dena Zuberoan tokiko euskalkian oinarrituz. Gure irakas-prozesuan, lexikoa nagusiki *nafar-lapurtarraren* arabera hautaturik bada ere, ahalaz, Euskaltzaindiak euskara batua-*rendako* plantan ematen dituen arau ortografikoak, morfosintatikoak eta aditz-joskerakoak errespetatzen ohi dira. Hainbat urtez, Hegoaldeko ikasmateriala erabili dugu nafar-lapurtarraren euskalkira egokituz. Haatik, duela lau urte tokiko batuan egina, gure ikasmateriala sortzea erabaki dugu. Irakasle berriei zuzendurik antolatzen ditugun formakuntzetan ere delako *tokiko* batuan aritzea gomendatzen dugu.

<sup>4</sup> Zuazo, Koldo, 2014, *Euskalkiak*. 129. or.

<sup>5</sup> Zuazo, Koldo, 2014, *Euskalkiak*. 130. or.

Izan ere, betidanik, denbora-tarte labur batean, euskal hiztun burujabeak sortzea da AEKren helburu nagusia. Hortarakotz, beren gaitasun komunikatiboa garatzeko xedez, ikasleak elkarreraginean eman behar dira hurbilen duten giza ingurumenearekin. Ondorioz, berebiziko garrantzia du tokiko euskal hiztunen komunitateak erabiltzen duen mintzairarekin sintonian izatea.

Honela beraz, gure ikasleriaren helburu nagusia komunikazioa baita eta ahozko zein idatzizko adierazpenek helburu gisa duten garrantzia onartzen badugu, alde batetik interakziorako beharrezkoak diren edukiak erakutsi beharko dizkiegu ikasleei (ahozko hizkuntzaren ezaugarriak, testu-tipologia, komunikazio-estrategiak, elkarrizketa-taktikak...) Horrez gain, ahozkotasuna, partaidetza eta negoziazioa bultzatzen dituzten jarduerak ere txertatu behar ditugu gure programazioetan (komunikazio funtzionaleko jarduerak eta gizarte-interakzioko jarduerak). Lehen aipatu bezala, jarduera horiek ezin dira programatu tokian tokiko mintzaira kontuan hartu gabe.

Anekdotak gisa erran dezagun, Iparraldeko ikasleei Hegoaldeko barnetegietan ikasteak ez diela neholako eragozpenik sortzen. Bizkaiko Foruko barnetegian euskara ikasten duten ikasleek, zenbait hilabete Hegoaldean iragan ondoan, abileziaz egokitzen dute beren mintzaira behin eta Iparraldera itzulirik. Progresiboki, ikasitako hizkuntz-formei, lexikoari behar bezainbat aldaera gehituko dizkiete Iparraldeko tokiko batuaren herexak eskuratu arte.

Pentsatzen ahal den bezala, Iparraldeko batuaren aldeko hautua ez da beti barneko tirabirarik gabe gauzatzen. Izan ere, zenbait aldiz, Hego Lapurdiko azpieuskalkia eta Nafarroa Beherekoaren artean diren aldeak hain handiak izanik, usu, irakasleak nekezian dira hitz baten edo besteren erranahia azaltzeko orduan. Dena den, egoera gaitz bezain deserosoa izan arren, euskalki eta azpieuskalki desberdinetako lexikografia eremuan murgiltzeak satisfamendu baizik ez digu ekartzen ahal. Azkenean, oreka bat atzitzea helburu, ene iduriko, gure ikasle eta irakasleendako onargarria izateaz gainera, baliagarria den hizkera irakasten ari gara.

## GEROARI ARDURAZ BEGIRATZEKO ZENBAIT LAN ILDO

Axularrek erraten zuen: *gero dionak bego dio*. Ez gabiltzala gerotik gerora beraz! Egin ditzagun pentsamendu eta gogoeta baina biharko utzi gabe engoitik har daitezkeen deliberoak.

Zentzugabekeria handia da euskara batua eta euskalkiak elkarren aurka jartzea. Baztertzekoak dira osoki, ezjakintasunarengatik muturreko lokalismoetara bultzatzen gaituzten dinamikak baina baita ere, euskararen salbazioa euskara uniformizatuaren eskutik etorriko zaigula sinetsarazi nahi diguten egitateak. Orain arte bezala, dialektikoki, bi erakargune horien arteko erdigunean kausitu beharko genuke gure eginbidea. Honela beraz, euskararen bilakaera, matruskarekin, Errusiako panpinen jokoarekin aldera daiteke: euskara batua panpina handiena izaki, hein tipiagokoak diren beste panpinak biltzen ditu bere baitan, hots, tokiko batuak, euskalkiak eta azpieuskalkiak direnak. Erran nahi baitu, interdependentzia dela nagusi, euskalkien atomoak euskara batuarenak baitira, hizkera bakoitzaren sinergiak besteekin elikatu beharrez.

Alabaina, Iparraldeko batuaren bidetik sakontzea euskara batuaren onerako izanen da ezinbestez.

Euskarak ezagutu duen bilakaeraren logikari jarraikiz, pentsa daiteke hala ere, epe labur edo luzeagoan, Euskal Herriko erdiguneko euskara batuak gaina hartuko duela eta eskualde zabal horretako euskalkiak pixkanaka bateratuz joanen direla. Eguneroko prentsa idatzian eta unibertsitateko lanetan bereziki, gero eta bateratzeko jokaera handiagoak nabari dira. Zernahi gisaz, arestian aipatu bezala, prozesu hori molde dialektikoan bururatuko delakoan nago. Hots, euskalkietan ari diren hiztunak erakarriz, beren hizkuntz formak eta ohiturak gero eta gehiago onartuz.

Lehen aipatu bezala, Iparraldeko euskalgintzaren *inteligentsiak* azken urteotan eman bulkadek, (ikastolek, gau eskolek, hedabideek, idazleek...) *tokiko euskara batua* sortarazi dute. Geroko perspektiba batean, hizkuntza politika eraginkor helburua izanik, Euskal Hirigune Elkargoaren eta Euskararen Erakunde Publikoaren (EEP) laguntzarekin dinamika horrek ber ildotik jarraiki beharko luke. Hartakotz, jadanik ibiltzen diren tresnak oraino hobetzen ahalko dira eta euskararen artamendurako berriak eraiki. Ildo honetan jarraikiz, honako eginkizun hauek proposa nitzake geroari begira:

Lehenik, Euskaltzaindiak berriki Iparraldean abiarazi duen *Euskara Eskuz Esku* bezalako egitasmoei sendotasunez bultzada ematea. Izan ere, *tokiko euskara batu* horren ezaugarri eta berezitasunak oraino hobeki zehazteko beharrean gara. Helduen euskalgintzatik eskertuko ditugu norabide horretan egiten diren eta eginen diren eginahal guziak.

Bigarrenik, Irakaskuntza alorrean, delako *Europako Erreferentzia Markoa* oinarritzat hartuz, Nafarroako Foru Komunitatean eta Euskal Autonomia Erkidegoan egina izan den bezala, Iparraldean ere helduen irakaskuntzaren curriculuma landu beharko litzateke. Baliabide garrantzitsu batez ari gara zeren eta irizpide metodologikoez gainera, bilduma horretan, mailaz maila eduki linguistikoak eta ebaluaziorako irizpideak biltzen baitira. Helduen zein haur irakaskuntzarako ekarpen handia litzateke dudarik gabe. Gaur egun, EEP eta Baionako unibertsitatea mailen zertifikazio berria plantan ematen ari direlarik, curriculum-proiektua abiaraztea biziki komenigarria litzateke. Izan ere, curriculum hezkuntzaren antolaketaren oinarria da, hezkuntzaren praktika eta bilakaera islatzen dituena. Honela beraz, curriculumaren zehaztapenarekin, ikas-materialen, edukien eta azterketen diseinu esparruak plangintzatuko dira.

Horretarako, zergatik ez landu lehenik Euskal Herri osorako funtzionala izanen den curriculum eta ondotik, esparru administratibo bakoitzean berea apailatu? Bide hau hartuz gero, ikas zein irakas-prozesuaren inguruko irizpideak hastapenetik amankomunak izan ezezik alde guzietako sinergiekin ere bat eginen lukete. Azkeneko emaitza, bakoitza bere aldetik lortzen duena baino anitzez handiagoa litzateke.

Horiek hola hirugarrenik, azpimarratu nahi nuke baita ere, Iparraldeko idazle klasikoaren obraren azterketak duen garrantzia. Jakina da ikastolan eta oraino xehekiago unibertsitatean, gure literatur ondarea ikertzen eta haren bertuteak azaltzen direla. Alta, iraganeko erreferentziarik gabe ezin da geroa prestatu eta zorionez literatura mailan Iparraldeak iragan zabal bezain aberatsa baitu taigabe altxor horretatik haz gaitzen.

Laugarrenik, gazteek egoera eta erregistro informaletan gero eta gehiago frantsesera jotzen dute, frantsesez usu, euskaraz aurkitzen ez dituzten adierazpenak aurkitzen baitituzte: sakreak, hitz larriak, biraoak, neologismoak... besteak beste. Hiztegi gintzan ari diren hizkuntzalariak baina baita ere irakasleak eta burasoak ezin baztertuzko errealitate horretaz ohartu beharko gara, ondotik egoera eraldatzeko xedearekin taxuzko neurriak har ditzagun. Mintzaira ez formaletako adierazpideak ez badira gehiago sakontzen eta erabiltzen, euskara soilik esparru akademikorako geldituko zaigu. Honela beraz, eskolako hezkuntzan eragiteak premia handia duela ezin uka.

Gure eguneroko hizkerak galdu ditu nolazpait garai bateko freskotasun eta bizitasunak. Haatik, eskolaren jarduerak usu, ikuspegi finko, estruktural eta mugatu batean oinarritua, kontzientzia linguistikoa areagotzea du helburu. Erran nahi baita, gehienetan diskurtsoaren eraikuntza idatzizkotasunetik eta arau gramatikalak zuzen aplikatuzetik gauzatu nahi dela. Alta, ahozketasunak beste dinamika kognitiboekin du zerikusirik. Ildo berean, Walter J. Ong filologo amerikarrak honela idatzi zuen:

Idatzizkoa objektiboki urruntzen den moduan, ahozketasuna enpatikoa eta partehartzailea da: ahozketasunaren formek lekuko pertsonen edo pertsonaien kontaketak berreskuratzen dituzte, eta horrela jendea identifikatua sentitzen da, ahotan hartua, ukitua eta hunkitua. Horregatik, ahozketasuna lantzen dugunean, jendea bere ingurune sozial eta naturalaren parte sentitzen da eta eraikitze kolektiboan errazten da<sup>6</sup>.

Bertsolaritza izan da neurri batean, ahozko adierazpenaren erabilpena berreskuratzeko bideetariko bat. Bestalde, gazteendako hain erakargarria den *rap* musika mota ere lagungarria izan daiteke. Zorigaitzez, oraino musika talde guti dugu Euskal Herrian. Edozein gisaz, laburbiltzeko, gazteen artean ahozketasunaren lantzea premiazko eginkizuna delakoan, familian, eskolan, aisialdi guneetan ekimen berriak jorratzera behartuak gara.

Aipa dezadan azkenik bestelako egoera duen ekialdeko euskara zuberotarrak. Beste herrialdeetan gertatu bezala, euskara gibelka ari da Zuberoan. Herritar anitzek zuberotar euskalkiari erakusten dioten atxikimendua handia bada ere, bi ikastolen, Gaü eskolaren, Xiberoko Botza irratia eta beste hainbat elkarteren eginahalak azpimarratzekoak izanik ere, euskalkiaren geroa zinez hauskorra da. Artikulu, liburu edo kronika bakar batzuk salbu, idatzizko euskarriak urri dira. Errealitate honetaz jabeturik, Iparraldeko euskalgintzak behar bezalako neurriak hartu beharko lituzke Zuberoatik sortzen diren ekimenak sustengatzeko xedearekin. Preseski, ohargarri dira lexikografia arloan, *Nola Erran* hiztegi digitalaren hornitzeko berriki bultzatu diren lanak. Gisa horretako inizatiba gehiago behar genituzke euskalkia indartuz joan dadin.

Ildo berean ohartarazi behar da, azkenaldi honetan Zuberoan berean, ortografiaz eta hiztegi gintzaren inguruan eman diren urrats bateratuak bide onetik doatzila.

<sup>6</sup> Ong, Walter J., 1982, *Oralidad y escritura*, México, Fondo de Cultura Económica.

Larrazkeneko aroa hurbiltzen ari zaigun honetan, artzainen oletan bezala, euskararen inguruan ere ez da zeregin eskas. Artzain onen gisan, eskain diezaiogun beraz gure mintzairari, gure olari arta berezia zeren eta Etxahun Barkoxek Zuberoako Basabürüko Phixtako olaz idatzi zuen bezala:

Phixtako olha die jentek hun egiten,  
Kabalik beitätie untsa erabilten;  
Arrazu horrek deit eni errnazten  
Artzain hunak düala olha hun egiten.



Ezkerretik eskuinera: Jean-Baptiste Coyos, Itxaro Borda, Naroa Gorostiaga, Joseba Garai, Jose Luis Aizpurua eta Peio Jorajuria.



## EUSKARA BATUA ETA IPAR EUSKAL HERRIA IKASMATERIALGINTZAREN IKUSPEGITIK

Aines Dufau Lakaberatz  
Ikas Euskal pedagogia zerbitzuaren zuzendaria

Iparraldeko eskoletako ikastresnak apailatzerakoan, bi euskalki eremu badirela kontuan hartzen dugu, Koldo Zuazo dialektologoak 1999an argitaraturiko mapan adierazi zuen gisan: nafar-lapurtera eta zuberera.

Argitaratzen dugun guzia euskara batuazko aditz formak erabiliz idazten dugu, nafar-lapurterazko hiztegia eta joskera hobetsiz, haatik.



Aines Dufau hitzaldia ematen, ezkerrean Peio Jorajuria duela

Egun guzietako hizkuntza tresnarik baliosenak Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batua* dugu, eta oroz gainera *Nola Erran* hiztegi elektronikoa. Teknika eta zientzia alorre-tako gaien lantzeko, Euskalterm eta Elhuyarren hiztegiak baliatzen ditugu.



Nafar-lapurterazko tradizioari jarraikiz argitaratzen duguna, zubereraz ere argitaratzen dugu, eskolako lehen eta bigarren zikloetan ari diren irakasle eta ikasleentzat, erran nahi baitu 2 eta 8 urte artekoentzat.

Alabaina (izan ere), gure iduriko, Zuberoako haurrek lehenik zuberera menderatu behar dute, haur literaturaren bidez, bistan da, eta halaber zientzien eta matematikaren bidez ere. Hausturarik ez dadin izan eskolako, herriko eta eskolako mintzairaren artean, ikastresnak zubereraz ere argitaratzen ditugu beraz, eskolako lehen urtekoentzat.

Gero, haurrak tarrotzen diren puntutik, iruditzen zaigu euskara batura buruz zabaldu behar dutela mintzaira, lehenik Iparraldeko tradizioko hartuz eta ondotik, kolegiotik aitzina (DBH), Hegoaldeko formak ere ezagutzen. Gisa horretan, lehenik euskara batuaren ezagutza pasiboa (ulermena) eta pixkanaka aktiboa ere (mintzatuz eta idatziz) kausitzen ahal dute. Zertako ote?

- Euskarazko ezagutzak nagusiki euskara batuaz dira argitaratzen, literatura ere bai. Hobe beraz hirugarren ziklotik aitzina (9 urtetik aitzina) batuari buruz irekitzen has daitezten.
- Eskolaren eginkizunetarik bat normatiboa da. Herritar guzietan elkar ulertzeko mintzairaren menderatzea du helburuetarik bat.

Euskararen kasuan, euskara batuak euskaldun guzietan elkar ulertzeko bidea ematen du. Baina euskara «batua» izateaz gain, euskara «bildua» ere baita, gure iduriko behintzat, hizkuntzaren aberastasuna zabaltzen (ahal) du. Horregatik, mendebaldeko (hegoaldeko) testuak bezala, zubererazkoak ere ematen ditugu Ikas eskuliburuetan. Eta bide nabar, hizkuntza eredu aniztasunarekin batean, literaturarena heldu da. Hala da kolegio mailetako ikasleentzat (DBH) eta lizeoentzat ere (baxo edo batxilergora buruz), irakasleek hautatzen eta baliatzen dituzten dokumentuen arabera.

Laburbiltzeko, hizkuntza eta literatura irakasterakoan, aniztasuna dugu helburu. Gai euskaraz irakasterako, berriz, Iparraldeko tradizioko joskeran bermatuz ditugu ikastresnak plazaratzen, salbu 2 eta 8 urte arteko haurrentzat, zubereraz ere moldatzen baititugu. Haste-hastetik hola ari da Ikas. Badu hogeitun urte beraz. Eta jokamolde hori baikorki hartu dute naski irakasleek, ñabardura zenbaitekin, bizkitartean:

- Zuberoako irakasleek nahi lukete zubererazko ikastresna gehiago argitara dezagun.

Behar hori arras ongi ulertzen du Ikasek. Bizkitartean, neke luke zubereraz argitaratzen duena baino gehiagoren egitea. Alabaina, argitaletxe ttipi honek ikastresnak gai eta ikasmaila guzientzat egin behar ditu, eskola hastetik baxoraino. Gainera, Hezkunde nazionalako (erran nahi baitu frantses hezkuntza administrazioko) eskolako programei (curriculumari) jarraikitzeko, ikastresnak bospasei urtetarik berritu behar dira. Azkenik, Ikas helduen irakaskuntzaren faboretan ere ari da orain, AEKrekin hasia baita ikastresnen argitaratzen (*Ikasbide* saila, Iparraldeko formak hobetsiz).

Zerbitzu publiko gisa ekarria da Ikasek egiten duena, eta Iparraldeko euskarazko ikastresnak Euskararen Erakunde Publikoak ditu diruztatzen. Diruaren irizpidea ere kontuan hartzen dugu, dudarik gabe.

—«Iparraldeko euskaraz» egiten dugun eskaintzak Amikuzetik Hendaiarainoko eremua estaltzen du.

Leku zenbaitetan, bada gure ikastresnen egokitzeko nahia, hala nola Oztibarren, hango ikastolan bertako mintzaira baliatzen baita, hitanozko formak erabiliz eta orduan forma alokutiboak ere. Aupa hango irakasleak! Ikasen baliabideak sarean ezarriz geroz, irakasleek beren beharren arabera moldatzen ahal dituzte.

Ikasen argitalpenak Hegoaldean nola hartuak diren Durangoko azokan ikusten eta entzuten dugu. Maiz, egunkarietako eta aldizkarietako literatura kritikarien artikuluen eragina ageri da (*Berrian, Mantangorri, Garan, Behinolan, Argian...*).

Durangon haur literatura dugu oroz gainetik saltzen. Alabaina, Iparraldeko eta Hegoaldeko hezkuntza sailletako programak (curriculumak) eta irakasteko bideak ezberdinak dira. Orduan, haur eta gazte literatura dela medio dugu Hegoaldeko publiko hunkitzen. Bereziki irakasleak eta familiak.

Zer oihartzun hartzen dugu gure testuez? Literatura obra interesgarriak direla, eta pedagogiaren ikuspegitik aberatsak.

Zer diote mintzairaz? Batzuetan literatura kritikariek diote hitz batzuk «arrotz samarrak» gertatzen zaizkiela (hitz bakar batzuk). «Baina liburuaren tonoa harrapatzeko beharrezkoak», dio, adibidez, *Haserre gorria* albumaren kritika idatzi duen Xabier Etxanizek. Zuzen da. Album horretako azken erranaldia hau da: «Aita? Desertarik badea?». «*Azkenburukorik* badea?» idatzi bagenu, euskara garbiago izan zitekeen baina ez hain adierazkorra. Ez dea hala?

Biziki eskertzeokak dira Hegoaldeko literatura kritikariak, hala nola Imanol Mercero, Xabier Etxaniz eta *Behinola* aldizkaria argitaratzen duen Galtzagorri elkar-  
tea, zubigile baitira. Obren funtsa dute agerian ematen, hizkuntza saileko berezitasu-  
nak traba gisa hartu gabe.

Beharren eta galdeen azaltzea baitzen *Euskara batua eta Ipar Euskal Herria* mahai in-  
guruaren gaia, biga aipatuko ditut:

—Zubereraren kasua: Zuberoan euskaraz ari dena zubereraz ari da; zubereraz  
baizik ez. Beraz dudarik ez da euskara bizirik atxikitzekotan, zubererazkoa  
izan behar dela.

—Nafarroa Beherean eta Lapurdin, egoera nahasiagoa da.

Gorago aipatu dudan Oztibarreko kasua salbu, ez dugu ikusten euskalkiren be-  
rezitasun handirik irakasleen baitan. Denbora guti barne, biziki hazi da euskal irakas-  
kuntza eta oraingo Iparraldeko irakasleatarik anitz euskaldun berriak dira, haiatarik  
zenbait «berri-berriak», eta beraz euskalkien berezitasunetarik urrun.

Euskaldun zaharrek ez dute baitezpada beren sorlekuan irakasten. Balio luke,  
funtsean, irakasleen mintzairaz eta irakats lekuaz ikerketa egitea, ez baldin bada jada  
eginik.

Ikaseko langile eta buruzagien iduriko, funtsezko beharra ez da euskalkien gaian  
finkatzen. Gaur egun eskolan hasten diren bi ikasleatarik bat (bi edo hiru urteko hau-  
rrak beraz) sail elebidunean edo murgiltze sisteman hasten da (%46 dira, +%16 az-  
ken hamabost urte hauetan). Eder da.

Baina gero kolegiara heltzean, %20 bainik ez dira (II urteko gazteak), nahiz %II gehiago den azken hamabost urte hauetan.

Lizeora heltzean (15 urteko gazteak), %10 bainik ez dira (+%4 azken hamabost urte hauetan).

Nolako euskara dute gazteen %10 horiek? Eskolaren marka azkarreko euskara, berdin etxeokari nagusitzen zaiona. Baina ez da ene iduriko hainbat horregatik arranguratzerik. Iparraldeko euskararen geroa gazteen %10en esku dela. Horretan da koska.

Horra beraz gure beharra: euskara gehiago, biziki gehiago, denetan, eskolan, familietan, eremu sozial eta ekonomietan, administrazioan ere *prefosta*. Nolakoa? Entzuten duenarentzat adierazkorra, besterik gabe.



Zubererazko zenbait argitalpen.

# ONDORIOAK



## BAIONAKO JARDUNALDIA. ONDORIOAK

Sagrario Aleman  
Euskaltzaindiaren Sustapen batzordeburua

Euskara batuaren jaiotza 1968an Arantzazun izan zela badiogu ere, haurdunaldi luzexkoa izan zuen. 1964an Baionan izan zen ernaltzea; han ezarri ziren euskara batuaren oinarriak.

Baionako solasaldian lan hartan aritu ziren zenbaiten lekukotza izan dugu. Orduko giro politikoa aipatu digute, eta euskara eta euskal literatura zertan ziren ezagutzeko parada ere eskaini digute.

Batasuna zergatik eta zertarako egin zen jabetzeko bidea eman digu jardunaldiak, orain ahantzia duguna edo ikasi ez duguna. Egia da euskara batuak hasierako ikuspegi hura gainditu duela, batez ere idatzirako pentsatua zegoena mintzatura hedatu dela indartsu.

Baionako jardunaldi honetan bakoitza bere euskarari aritu da, denak ulertzeko eta gozatzeko moduan; batuaz ari garelarik ere, hiztun bakoitzak bere ñabardurak eta ezaugarriak ezartzen baitizkio baten batek jardunaldian erran duen bezala. Batzuen kexa izan da darabilgun hizkuntza gure euskalkitik urrunegi dagoela, baina bai ahozkoan, bai idatzian ere, publikoan ari garelarik, euskara estandarra erabiltzean nork bere mintzamoldearen zipriztinak sartzen ditu edo erabil litzake ulermena batere zaildu gabe. Arizalearen esku dago solasari edo idatziari tonua ematea.

Euskararen batasunerako lehen oinarriak jartzen Ipar eta Hego Euskal Herriko zortzi gizon izan ziren, pentsamolde eta prestaketa desberdinekoak, gazteak gehienak, Txillardegik gidari zutelarik, hura baitzen haien ustetan hizkuntzalaritzan adituena, ordura arte nola idazten zen, zertaz idazten zuten eta norengana iristen ziren zekitenak. Euskal idazleak, gazteenak batez ere, euskararen batasunaren gose ziren, beharra sumatzen zuten euskara idatzirako. Beharrak aginduta bakoitza bere aldeetik saiatu zen nolabaiteko batasuna egiten euskalki batean edo bertzean oinarriturik. Idazle batek lapurtera eta gipuzkera erabiliko zituen, bertze batek iparraldeko *batua*. Bakoitzak bere moduan ahaleginak egiten zituen ahalik eta irakurle gehiengana iristearren. Hori ez zen, ordea, aski gehienendako.

*Jakin* aldizkarikoek batasunaren aldeko apustu sendoa egin zuten eta buru jarri ziren euskara estandarra aldarrikatzen. Idazleen eskaerari Txillardegik erantzun zion, eta haren proposamenak Baionako taldearen onspena izan zuen. Eta lau urte geroago onartu zuen Euskaltzaindiak Arantzazun. Ez zen nekerik gabe egin, erran zigutenez, zailtasun franko izan baitzuten. Beldurra ere bai, euskara ez ote zen kimikoezia, oraindik tarteka entzuten dena, baina ausardiaz jokatu zuten zenbaitek, eta horri

esker, ordura arte sarbiderik izan ez zuen arloetan dakusagu euskara, eta bidea egiten ari da.

Ez zen bortxaz sartu, urrats ttipiak emanez baizik. Eztabaida izan zen, sutua maiz, eta oraindik ere bada; halere, inork gutxik jartzen du zalantzan egindako bide luzean batasunak euskararen estatusen ekarri duen aitzinamendua. Euskararen geroa bertze modu batez ikusten du jendeak.

Euskararen batasuna egiteko unea ote zen galdetzen zuten batzuek. Eta bai, une egokia izan zen, orduko aldizkarietan eta literaturan ari ziren gehientsuenak alde ziren, eta horrela idazten hasi ziren berehala. Gazteak aktibatu ziren euskararen alde. Gaur, literaturan emakume eta gizon ugari ari da; orain 50 urte zenarekin alderatzen badugu, izugarri handitu da idazle kopurua. Euskarazko egunkari bat eta aldizkariak ere badiugu, irriati eta telebistak, ikastetxeak, unibertsitatean euskara leku egiten ari da. . .

Egia da lehen aurreikusten ez ziren beharrak ikusten ditugula; izan ere, zenbat eta eremu berri gehiago irabazi euskarak, orduan eta argiago dugu hizkuntza egokitzten eta sakontzen jarraitu behar dugula, euskalkiak kontuan hartu behar ditugula gure hizkuntza aberasteko. Euskalkiak noiz eta nola erabili? Zein hizkuntza politika erabili dugu etxeko transmisioa bermatzeko familiakoen artean, edo karrikan ohiko hizkuntza euskara den herrietan euskaraz mintzatzen jarrai dezaten?

Euskalkia eta batua aurrez aurre jartzen dituzte batzuek batak bertzearen heriotza ekarri behar balu bezala. Dena euskara dela eta batak bertzea indartzen duela ikusi gabe, bataren eta bertzearen eremua, unea eta erabilera zein den nahasiz. Gure gogoetak eta nahiak adierazteko bertze hizkuntza batera jo beharrik ez izatea erdietsi beharko genuke. Ahozkoa bereziki zaindu behar dugula eta ahoskera batzuez ere izan ziren eskaerak jardunaldian.

Egitekoa badugu. Bidea luzea da.



Baionako Herriko Etxean egin zen jardunaldia.

# ERANSKINAK





## I. ERANSKINA



# EUSKARA BATUA ETA IPAR EUSKAL HERRIA 1964-2018

KOLOKIOA

Colloque  
LE BASQUE UNIFIÉ ET LE PAYS  
BASQUE NORD : 1964-2018

BAIONA

Osteguna, irailaren 13a | Jeudi 13 septembre

9:00-12:45 | 14:45-16:30

Baionako Herriko Etxea | Hôtel de ville de Bayonne

SARTZEA DOHAINIK - Aldibereko itzulpena

ENTRÉE LIBRE - Traduction simultanée

Izen ematea (irailaren 10era arte) | Inscription (jusqu'au 10 septembre)

[info@euskaltzaindia.eus](mailto:info@euskaltzaindia.eus)

Tel.: 05 59 25 64 26 - 943 42 80 50 - 944 15 81 55

# Irailaren 13 septembre

## 09:00-09:30

- Harrera
- Kafea
- Material-banaketa
- Accueil
- Café
- Distribution du matériel

## 09:30-10:00

- **Hasiera ekitaldi instituzionala:**
  - **Andres Urrutia** (*euskaltzainburua*)
  - **Xarles Videgain** (*euskaltzainburuordea*)
  - **Jean-Rene Etxegarai**  
(*Euskal Hirigune Elkargoaren lehendakaria*)
  - **Beñat Arrabit**  
(*Euskararen Erakunde Publikoaren lehendakaria*)
- **Ouverture institutionnelle du colloque:**
  - **Andres Urrutia** (*président de l'Académie de la langue basque*)
  - **Xarles Videgain** (*vice-président de l'Académie de la langue basque*)
  - **Jean-Rene Etxegarai**  
(*président de la Communauté d'agglomération Pays Basque*)
  - **Beñat Arrabit**  
(*président de l'Office public de la langue basque*)



**10:00-10:50**


- Moderatzailea: Txomin Peillen.
- Hizlaria: Jean-Louis Davant.
- Gaia: Baionako bilkuren giro soziopolitiko, kronologia, zergatia eta mamia.
  - Modérateur: Txomin Peillen.
  - Intervenent: Jean-Louis Davant.
  - Thème: Contexte sociopolitique des réunions de Bayonne, chronologie, motifs et contenus.

**10:50-11:15**

- Atsedena
- Kafea
- Pause
- Café

**11:15-12:45**

- Moderatzailea: Eneko Irigarai.
- Hitzaldia: Gexan Alfaro Gaia: Euskara batuaren lehen urratsak Iparraldean.
- Hitzaldia: Janbattitt Dirassar Gaia: Orduko euskal prentsa eta idazteko zailtasunak.
- Hitzaldia: Joseba Intxausti Gaia: Baionako ekarpena eta Arantzazu arteko lotura.
  - Modérateur: Eneko Irigarai
  - Intervenent: Gexan Alfaro Thème: Les premiers pas du basque unifié en Pays Basque Nord.
  - Intervenent: Janbattitt Dirassar Thème: La presse en basque et les difficultés pour écrire.
  - Intervenent: Joseba Intxausti Thème: Le lien entre l'apport de Bayonne et le colloque d'Arantzazu.



### 12:45-14:45

- Bazkaria
- Déjeuner

### 14:45-16:15

- Moderatzailea: **Jean Baptiste "Battittu" Coyos**
- Mahai ingurua
- Parte hartzaileak: **Itxaro Borda** (*idazlea*), **Peio Jorajuria** (*Herria astekaria*), **Jose Luis Aizpuru** (*Euskal Irratiak*), **Aines Dufau** (*Ikas*), **Joseba Garai** (*AEK*) eta **Naroa Gorostiaga** (*Euskararen Erakunde Publikoa*).
- Gaiak: **Gaurko egoera. Euskararen batasuna nola ikusten den eta zein behar ikusten diren Ipar Euskal Herritik.**
- Modérateur: Jean Baptiste "Battittu" Coyos
- Table-ronde
- Intervenants: **Itxaro Borda** (*écrivaine*), **Peio Jorajuria** (*hebdomadaire Herria*), **Jose Luis Aizpuru** (*Euskal Irratiak*), **Aines Dufau** (*Ikas*), **Joseba Garai** (*AEK*) eta **Naroa Gorostiaga** (*Office public de la langue basque*).
- Thèmes: **La situation actuelle. Du Pays Basque Nord comment voit-on l'unification de la langue basque ? Quels sont les besoins ?**

### 16:15-16:30

- Ondorioen aurkezpena eta agurra.
- Xarles Videgain eta Sagrario Aleman.
- Conclusions du colloque.
- Xarles Videgain et Sagrario Aleman.

\* Sartzea dohainik - Aldibereko itzulpena  
Entrée libre - Traduction simultanée

---

## Euskararen batasunari Ipar Euskal Herritik egindako ekarpena

### Testuingurua

- Euskara batua lotua baldin bada Arantzazuko egunekin (1968), aitzinetik bilkurak egin ziren euskara batuaren oinarriak lantzeko eta horietan sartzen dira Baionan izan zirenak.
- Baionak izan duen garrantzia markatzea eta orduan euskarari Euskaltzaindiak eman zion bultzada azpimarratzea guztiz beharrezkoa zaigu gaurko Ipar Euskal Herriko gizartean.

### Helburuak

- Baionan egin ziren bilkura horien ekarpen nagusiak gogoratzea eta aztertzea.
- Geroari begira, Ipar Euskal Herritik begiratua, euskara batuak dituen erronkak identifikatzea.


---


## L'apport du Pays Basque Nord à l'unification de la langue basque

### Contexte

- Si la création du basque unifié est liée aux journées d'Arantzazu (1968), des réunions eurent lieu auparavant pour poser les bases de cette unification et, parmi elles, celles de Bayonne (1963-1964).
- Souligner l'importance des travaux de Bayonne et de l'impulsion que donna alors au basque l'Académie de la langue basque nous paraît nécessaire dans la société actuelle du Pays Basque Nord.

### Objectifs

- Rappeler et examiner les apports principaux des travaux de Bayonne.
  - Se tournant vers l'avenir, identifier les défis qui se posent au basque unifié vus du Pays Basque Nord.
- 



## 2. ERANSKINA

### CORDELIERS KARRIKAKO BILKURA GOGOAN

Yves Ugalde  
Baionako auzapezordea



*Hona Euskaltzaindiak Baionan antolatuko kolokioaren harira Yves Ugalde Baionako auzapezordeak bere Facebook-eko blogean biharamunean argitaratu zuen testuaren euskarazko bertsioa.*

Euskaltzaindiak kolokio bat atzo antolatu du Baionako herriko etxeko areto nagusian. Euskara batua aipagai nagusia izan da. Hori heltze luze baten emaitza izan zen, zuberotarren euskara hain urrun baita bizkaitarrenetik, azken honek lapurtarretik tarte handia duelarik.

Hizkuntzek denek, frantsesa salbuespena ez da, homogeneousuna, askotan, ñabarduren eta azentuen sakrifizioei esker eskuratzen dute, hizkeren oinordekoak minberatsuak eta asaldatuak izan baldin badira ere. Zenbat aldiz ama entzun ote dut etxean, Euskal Telebistako emanaldi bat entzuten ari ginela: «Baina, Espainiako euskara da hau»...

Baina, jende uzkur hauen belaunaldia euskararen gainbeherarena izan da. Gogor jarririk beren euskararen egiazkotasunaz, haurren euskararen erabilera desagertzera utzi dute halere, eta hauetarik bat naiz. Tokiko edo gutiengo hizkuntza ikasteak frantsesa ikastea tratatzen ahal duela aitzakia hartuz, hizkuntzalari askok erakutsi baldin badigute ere ez dela batere egia.

Euskaltzainek ez baldin bazuten lan sakon hori egin, Hegoaldeko eta Iparraldeko euskaltzale zenbaitek bultzaturik Iparraldean 1963. urtetik goiti (eta hori argi



eta garbi aipatu dute kolokioan), euskara atzeratuko eta kasik desagertuko zen Iparraldean. 1963. eta 1964. urteetako bilkuretan, Cordeliers karrrikan zehazki, euskararen hizkera guztiak bateratzeko urratsa egin zen.

Ñabarduren errespetuaren denbora etorri da. Zenbait aldiz aipatu ote dit Xarles Videgain Baionako euskaltzainak hitz eta erran-molde ezberdinen aukera, gauza bera edo egoera bera adierazteko? «Hau, izatekotz Zuberoan erraiten da»... «Hitz hau Araba aldekoa da»...

Haur gastatuen denbora horretara ez gara oraindik heldu. Hizkuntzaren salbamendua presa handikoa zen, zenbaitzuk ezberdintasun altxorrak zaintzen saiatzen ziren bitartean, funtsezkoaz axolatu gabe.

Aretoan itzulpen gelaxkan lan egiten zuten itzultzaile gazteak begiratu, eta Hegoaldeko edo Iparraldeko hizkuntzalari handienek ongi ulertzen zituztela ikusiz, pentsatzen nuen euskara bateratzeko asmo eroari esker guztiak arras ongi elkar uler zezaketela, Baionatik Gasteizera.

Bai, Cordeliers karrrikako aitzindariak, kolokioan hauetarik zenbait lehen le-  
rroan jarriak zirenak, harro izaten ahal dira beren obra ausartaz. Horiek ez bezalakoa zen emazte gazte bat aretotik atera zen hiriko auzapeza frantsesez ari baitzen. Aitzin-  
dari hauek erran dezakete ama hizkuntzaren zerbitzuko aritu direla, euskara mundura zabal dadila.

Beti izanen dira bai eskuzabalak eta bai ilunzaleak edozein borrokatan. Eta ongi badakigu, betidanik, bi kategoriaren artean zeinek aitzinarazten eta gatazka alferretatik aterarazten duen.







